

HASIER ETXEBERRIA

Eulien bazka

 **Susa** narratiba

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2003 Hasier Etxeberria

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2003ko martxoan

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.com

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

*Le récit le plus réaliste qu'on puisse imaginer
se développe selon des voies irrealistes*

ROLAND BARTHES

*Eta, honek funtzionatzea lortzen badut, honek
guztiak funtzionatzea benetan lortzen badut, is-
tantean oso urruti aurkituko zarete, zeuon bu-
ruak ez ikusteko adina urrundurik.*

ANTONIO LOBO ANTUNES

Intro

1

Hilda hago, pentsatu zuen Damian Arrutik, harririk baino hilago. Hilda zeharo. Neguaren azken eguneko arrats umela eta hotza zen Donostiako Poliklinikako aparkalekuan. Eguraldi zakurra. Eguraldi tigrea eta eguraldi krokodiloa. Denak batera egiten zituen. Arratseko zortziak eta hogeiei. Mendebalak indarrez ekarritako euri tantoak Jeep Wrangler beltzaren leiarretan eta gaineko plastikozko estalkian tarrapatatan. Hilda hago, Damian, pentsatu zuen, zeharo hilda. Ez daukak itzultzerik. Ezin duk deus. Ezin duk atzera egin. Ezer ez zagok jada hire esku.

Damian Arrutik autoaren motorrari eman zion indarra beste ezeri erreparatu gabe. Automatikoki. Ez zegoen beste ezeri erreparatzeko moduan. Ezin zuen besterik ezer, pentsatu beharrik ez zeukaten mugimendu automatiko soilak baino. Automatikoak. Au-to-ma-ti-ko-ak. Besterik ez.

Aldaba doktoreak bare-bare esana zion istant bat lehenago, kartzinoma ezkatadun bat duzu eztarriko hori. Ez kezkatu. Txikia da. Kendu egingo dizugu eta, zaintzen bazara, ez duzu zertan beldurturik egon. Luze biziko zara horregatik ere. Apurtxo bat zaintzen bazara, jakina.

Kaka zaharra, ez naizela beldurtuko. Kaka zaharra, pentsatu zuen Damianek. Ba ote norbait munduan minbiziaren albistea estreinakoz entzun eta ikararik egiten ez duenik. Nor ez da izutuko gauaren aho beltzaren albistez. Non ote halako heroi burugaberik. Non ote denbora finitzearen usaina gardeniarenarekin nahasten duenik.

Heriotzaren izenetako bat da kartzinoma. Beste bat da kito eta beste bat da akabo. Bukatu zaik denbora. Kaka zaharra, Damian. Kaka zaharra. Amaitu zaizkik aukerak.

Asko aurreratu da minbizi kontuetan azken urte hauetan, dio Aldaba doktoreak. Egun bate-tik bestera agertzen dira tratamendu berriak. Amerikarrak doaz ikerketen aitzinean. Pasteur Institutuko frantsesak ere bai. Eta gu jakinaren gainean gaude beti. Gaur egungo medikuntza ez

da lehengoa bezalakoa. Unibertsala da. Gaur berehala jakiten dugu Hong Kongen edo San Franziskon aurkitutakoaren berri. Internet eta hori guztia. Badakizu denbora oso gutxian zenbat aurreratu den.

Begira. Bideo honetan ikus dezakezu zerorrek zer daukazu eztarrian. Grabatu egin dugu zinta batean. Ez da gauza handia. Ikusiko duzu. Rewind. Play.

Pause. Ikusten duzu ahots-kordan itsatsita ageri den puntu zuri hori. Bada, horixe da. Arroz ale baten ertza dirudi. Kendu eta aztertu egin beharko dugu baina ez zaitut engainatu nahi Damian, ia segur naiz kartzinoma ezkatadun bat dela. Halako itxura edukitzen dute ia beti. Play. Rewind. Pause.

Hilabete egin beharko duzu hitzik egin gabe, mutu erabat, baina gainerakoan ez digu batere buruko minik emango. Oso-osorik kendu eta kito. Ikusi egin behar, hala ere, inguruetara zabaldua dagoen ala ez. Metastasia, badakizu. Hala balitz, okerrago. Ez dirudi, baina. Ez dizut besterik ikusi ertzetan. Garbi-garbi atera dezake-

gula ematen du. Stop. Anestesia beharko dugu. Hori bai. Ebakuntzarako, badakizu.

Damianek ez zuen ezer ikusten ahal monitorean. Ez arroz alerik eta ez ezer bestelakorik ere, bere eztarriko zuloan behera zuntz optikozko mikrokamerak grabatutako haragiaren irudi gorritzak baino. Haragi mukitsua. Lirdinga.

Bereak ez balira bezala behatzen zituen monitoreko errai haiek. Ez zen bat-bateko albisteaz jabetzen. Ez zuen jabetu nahi. Ez zekien halako albiste bat nola jaso behar izaten den ere. Ez zegoen horretarako prestaturik. Inor egon ote daiteke prestaturik halako gauza baterako. Hil egin behar duela jakiteko. Uste baino lehen.

Nahikoa lan zen malkotan zeuzkan begiak zapiak xukatzen ibiltzea. Sudurraren ezkerreko zuloatik atera berri zioten endoskopiaoren kariaz zegoen hala. Ez bestelako negargura arruntaren bultzadaz, ez. Baina hori ere bazitekeen. Zergatik ez, bada. Zergatik ez zuen negar egingo. Umeez bezala. Esan berria zioten denboraren azken orena hurbil zeukala. Oso hurbil. Eta Sara-ko kanpandorrearen irudia piztu zitzaion bat-batean gogoan, Axularren esaldia eta guzti. Oren

guztiak kolpatzen gaituzten arren, azkenak soilik eramaten gaituela hilobira, edo antzeko zer edo zer dioen idatzi goibel hori. Herri oso bati pesadunbrea egunero gogorarazten dion idatzi agintari hori.

Medikuarengana etortzea erabaki arren, ez zuen pentsatu ere egingo halako ziraun luzerik sartuko ziotenik sudurretik barrura. Eztarrian behera, ahots-kordetan kilika egiteraino. Hodi beltz eta luze bat, muturrean kamera txiki eta guzti. Muturreko teknologia. Plastiko eta metalezko suge mehe bat. Malgua. Ez horren malgua, hala ere.

Ez zuen sekula pentsatuko, besterik gabetan eta anestesiarik gabe, halako tresnatzarra sar zitekeenik pertsonaren tutu txikienetako batetik sudurrean behera. Gauza ohikoa balitz bezala. Harrigarria bezain bortitza egin zitzaion hori. Medikuaren hatzek -ezkutuan erretako tabakoaren usaina gordetzen zuten hatz haiek berek- lokarri teknologiko aurreratu bat sartu zioten bere gorputzarenak ziren ere pentsatuko ez zuen hodi, tutu eta lekuetan barrena. Birjina bortxatu bati bezala.

Magnetoskopioan berriro irudia jartzeko eskatu zion Aldaba doktoreari, ahal bezala eta anartean painelua eskutik gorde gabe. Painelua-
ren babes ahula eta bakarra galdu gabe. Musu zapia.

Azkenean ikusi zuen, eztarriko haragietan itsatsitako arkakuso zurizta hura. Ikusi egin zuen mamu beldurgarriaren ertza.

Gezurra zirudiela pentsatu zuen, berari hala-
korik gerta zekiokenik. Gezurra zirudiela, arroz
ale bat bestekoa ez zen munstro zuri-zuri hark
osorik irents zezakeenik bera lako gizona. Play.
Forward eta berriz rewind. Pause. Behin eta ber-
riz, pause edo stop, begiratzearen begiratzeaz
gaitza zegoen lekutik ezabatu ahal balitz bezala.
Betiko.

Rewind. Stop, eta azkenean eject. Bideo zinta
eman zion Aldaba doktoreak eskuetara. Hau
zurea da. Kontsultaren barruan sartzen da kopia
bat emateko zerbitzu hau. Irteterakoan, ordain-
du sarreran dagoen erizainari. Irene du izena.

Ondo pentsatu baina lehenbailehen egitea
komeni da. Ebakuntza. Ondo pentsatu baina nik
ez daukat zalantzarik: oraingoz ebakuntza da

bide bakarra. Bai. Dei iezadazu ahalik eta azkarren. Irenek emanen dizu telefonoa. Garaiz harapatzen badugu, ez da larria izango. Ez da zabalduko. Horixe da garrantzitsuena. Zabaltzen ez uztea. Metastasiari bidea eragozteia.

Hilda hago, Damian, pentsatu zuen berriro Damianek. Berrogeita hiru urte eta hilda.

Hiltzeko gazteegia aukeran. Baina ba al da adin egokirik hiltzeko. Noiz izaten da hori. Zein tenoretan. Esan diezadala dakienak.

Hilda hago, pentsatu zuen. Bai. Hilda hago, Damian. Eta ez duk inor hitaz gupidatuko. Ez eta heu herori ere. Nor duk hitaz oroituko, bada. Nor hitaz arranguratuko, nor akordatuko. Izatekotan, etxeakoak. Hurbilenak. Horiexek, izatekotan. Ez beste inor. Mundu osoan.

Eta horrek ez dik baliorik batere. Ez duk hirea errenta. Denek duten ordain bera duk hori. Etxekoan gupida eta begiramen hori, berezkoa dik giza-abereak. Be-rez-ko-a. Edonori zor zaion guxtienekoa duk hori. Gu-txi-e-ne-ko-a. Hildakoan pena ematea, edonork zaukak. Zakurrek ere ba-

ditek halako zerbait. Za-ku-rrek-e-re. Etxekoen begiramena ez duk heuk irabazitako ezer. Inola ere ez. Etxekoen maitasuna doakoa duk. Airea bezala. Ai-re-a-be-za-la.

Berezko maitasunaren babes eta aterpe mota hori asasino izugarrienek ere baditek. Munstroek ere bai, Damian. Quasimodok ere eduki zian baten batena. Ala horiek ez ditik inork maite izaten. Asasino eta munstro ankerrenak ere ez ote ditiztek maitatzen euren aitek eta amek. Euren gurasoek.

Aitek ez beti. Badaitekek. Baina amek bederen, beti. Hutsik egin gabe. Esan iezadak bestenaz kasu bat historia guztian. Esan iezadak zein amak ez duen maitatu bere semea, bere alaba, bere umea. Ez ote maitasunaren lege hori maitasuna bera baino lehenagokoa. Oiloaren arrautza eta arrautzaren oiloa bezain sortzezkoa. Ez ote nahitaezkoa zomorroak zomorrokume zatarrena ere maitatu behar ezinbesteko hori.

Hilda hago Damian. Zeharo hilda. Ez daukak itzultzerik. Hondartzan galtzera abiatuta dagoen uhina haiz. Haizeak ekarri hau honaino, oharkabean. Ez haiz orain arte jabetu. Baina hortxe

hago. Akaberaren hasieran. Amaiera daukak aurrean, finiera baino ez, begien aurrean. Ez daukak atzerakorik, inolaz. Ezin duk egin beste inora, nahita ere. Hondarretan ahitzera hoa. Edo bestenaz, goitik behera abailan doan harria haiz. Hondoa noiz joko.

Hondoa jo arteko denbora bakarrik daukak. Horixe bakarrik duk hirea. Denbora laburra. Denbora motza. Denbora etena. Ez daukak gehiago. Hondoa jo artekoa baizik ez. Eta hondora hoa. Abiatuta hago. Hurbil daukak. Uste baino hurbi-lago. Ala iritsita hago dagoeneko, horko behe horretaraino. Ukitua al duk jada oinazpiez.

Ospitaleetako errepidean behera doa, Basterretxearen metalezko uso zuri eta handirantz zuzen, estadio aurreko bidegurutzera. Ezeri erreparatu gabe, ezertaz ohartu gabe. Ez eta gau itsusiari eta Aitor Zabaletari eskainitako eskultura ezin zatarragoari ere. Hura ere kito. Uste ez zuenean. Pentsatu du.

Automatikoki hartu du eskuinerantz, bariante berritik autopistarantz. Etxerantz. Ia inor ez da-

bilen errepideetan. Ez da giro. Bai. Bihar hasiko da Udaberria baina gaur ez da giro, pentsatzen du une batez, eta grazia egiten dio hain egoera larrian, eguraldiaz eta trafikoaz gogoeta egin izanak. Beldur handiaren aurrean, ostrukak zuloan babes. Zer egingo du baina. Nork daki behar bezala jokatzeko Heriotzaren muturra lehenengo bider ikusitakoan. Zein da hemen jokabide zuzena.

Ez du bere burua ezagutzen. Arrotza da. Ez-tarriko polipoak begiratzera joan da medikuarengana. Aldabarengana. Hiriko espezialistarik onenarengana. Polipoak eta pulpoak, olagarroak esan beharke ote euskaraz. Ez-tarriko olagarroak dauzkate, alegia, mediku jauna. Ez dizu graziarik egin. Ez didazu izkirimiria ulertu, Aldaba jauna. Eta gaitz arinaren lekuan minbizia gainean duela irten da kontsultatik. Olagarroen ordean, xabiroiak ez-tarriko. Edo arrabioak, edo kobra sugeak. Batek jakin. Denak txarrak horiek. Ezin txarragoak.

Lehenengo aldia da heriotzaren begiak hain ustekabean ikusi dituela, muturraren aurrean. Ez daki nola jokatu. Ez daki zer pentsatu. Kanpoko eguraldiak baino gehiago lausotzen du bere adi-

mena Aldabak emaniko albisteak. Kartzinoma ezkataduna daukazu, eztarriaren erdian. Ez-ka-ta-du-na. Ez edonolakoa gero. Kartzinoma ezkataduna, Damian. Izorrari Pello Mari. Kantzerra, mutiko. Doako erregaloa, zerutik behera eroritakoa. Kaka zaharra. Bai, kaka zaharra, horixe.

Irratia piztu du baina ez du deus aditzen. Eguneko albisteak marmarkatzen dihardute dialean. Zortzi eta erdietako albistegia da Euskadi Irratian, esan eta izan, baina Damianek ez du aditzen Gazan hildakoen gertakaririk. Ez da jabetzen Etxegarateko tunelerako eginiko inbertsioaren garrantziaz. Ez du aditzen, asfalto metro koadro bakoitzak auto garesti baten prezioa beste balio duenik. Horixe balio du. Kasurik ere ez dio egiten, bere emaztea guardasol batez astindu duen diputatu sozialistaren kontuari. Aterkiaren muturrarekin. Ia entzun ere ez du egiten irratiak esaten duenik.

Polloeko lehen tunela du aurrean, autobidean. Ezpain zuri margotu berriak dituen aho beltza dirudi tunelak. Eta kamioi poloniar handi bat aurreratzen du ezkerretik. Pölskatrans irakurtzen du ozta-ozta kartolaren atzeko aldean.

Eta TIR letra handiz. Transport International. Gero beste bat. Portugaldarra da. Veiculo longo. Aurreratu eta berriro jartzen da eskuineko aldean. Polloeko tunelean, Donostiako hilerriaren azpia gurutzatzen duen tunelaren barrenean.

Hormak zuritu berri dizkiotela ohartzen da. Zuriz janzen dira ekialdeko herrietan dolua agertzeko. Beltza baino alaiago da, behintzat, gure artean. Exotikoagoa, gutxienean.

Tuneletik irtenda, Intxaurrondoko kuartelaren parera iristen ari dela, eztanda bat, eta bi, eta hiru... eta sei. Sei leherketa lehor autopista ondoko belardian. Artzenetik metro eskasetara. Damianen autoa doan lekutik bost metro doitara edo. Nonbaitetik berari tiroka ari direla dirudi. Berariaz. Hain hurbil eta hain errenkadan ezta-dak, bere bidean. Bere kontra.

Ez dago astirik deusetarako. Hori ona da. Ez dago pentsatu beharrik. Ez dago aukerarik. Aurrera egin baino ez. Gorputzak badaki nola. Zangoak badaki nola. Senak badaki nola. Giza-abe-reak badaki nola. Erreakzionatzen badaki. Akabo bestela.

Jeepa ez da auto arina baina dardara eragin diote leherketek. Agintea galdu du ia Damianek bolantean. Kristalak lokatzez zipriztindurik geratu dira, eskuin aldekoak eta haizetakoak batez ere. Autoaren gaineko oihala, zer esanik ez.

Bazokaz jaurtitakoak granadak edo antzeko zerbait izan direla pentsatu du, bizpahiru bere autoaren gain-gainetik iragan direla sumatu baitu. Ia txapa igurtziz, toldoa ferekatuz, irratia- ren antena kizkurtuz. Zangoak dardara batean dituela, sakatu egin ditu balaztak barruraino. Albo batera egin dio autoak ozta-ozta, eskuinera, motorra ito baino lehen. Zup.

Inor ez da ohartu gertatutakoaz. Biharamu- neko egunkarietan ikusi arte, ezin izango du baieztatu gertatu zaiona benetan gertatu zaio- nik. Berak ere ezin du sinetsi. Nola sinetsiko du, bada, inor bazoka batez tiroka aritu zaionik bera- ri. Damian Arrutiri. Kasualitatea. Kuartelaren kontrako granadak, bere gainera erori dira ia. Ia, ia.

Atzetik zetozen gidari poloniarra eta portu- galdarra ez dira deusetaz ohartu, ez dute grana- da lehertuen zipriztinik ikusi eta tutua jo diote lo-

tsagabeki eta ozen, dagoen lekutik bazter dadin ertzerago, autobidean trabarik egiteke. Argi luzeak eman eta kenduz, eman eta kenduz, eman eta kenduz, esan diote bidetik albo batera alden dadila fite. Gidari baldar honi. Eta txofer portugaldarraren hatz luzea ikusi duela begitandu zaio, kamioiaren leihotik zutik zerurantz. To, sar ezak hau, esaten diola. Popatik, jakina.

Giltzari eman arren, Damianek ezin du autoa berriz martxan jarri. Autoak ez du ibili nahi.

Eskuetan dardara. Zangoetan dardara. Adimenean dardara. Ez du atertu nahi. Igelak ere itoko dituk autopistaren erreten hauetan. Pentsatzen du.

Bizirik hago, Damian, pentsatzen du. Oraino bizirik, euripe itsu honetan.

Hondarribiko golfaren inguruan bideak ilun zeuden. Beltz. Argindarra etengo zuen ekaitzak. Arbola eroriren batek. Bide bazterretako farolik gabetan, ohiturak emandako ezagutza zuen gidari Damianek bide haietan, egunero ibiltzen zituena bide okerretan. Etxetik mundura eta mun-

dutik etxera. Atzera eta aurrera. Begiak itxita ere ez zen galduko bazter haietan. Autopistaren irteeratik etxerako bidean.

Atarira iritsitakoan, garajeko ataka automatikoa ez zebilela ohartu eta eskuz jaso behar izan zuen altzairuzko xafla astuna. Argindarrik gabetan alferrik dituk aurrerapenak, Damian. Argos etorri zitzaion zaunka arrapaladan, eta euripean hanka lokaztuez egin zion agurra nagusiari. Gabardina erabat bustia zikinagotuz. Honezkero berdin duk gehiago zikinduta ere, pentsatu zuen. Ez nauk gehiago bustiko, txakur kaikua. Toma hemendik. Alde. Pasa txokora, esan zion irmo zakurrari, ostikoaren imintzioa eginez.

Autoaren argiak emanda laga zituen atearen sarraila irekitzeko. Argi haren menera, euri tantoek ez ziruditen euri. Intsektu hegalaria dirdaitsuak, euri tantoak. Edo ilunpetako perlak, bestela. Une hartan itzuli zen argindarra, ordea, eta piztu egin zen norbait sumatzearekin batera isio-tzen den argi automatikoa. Ustekabean itsu, argiaren eguzki piztua begietan. Etxean sartu, atea itxi, gabardina zoko batera bota, oinetako-

ak erantzi eta telefonora abiatu zen zuzen. Erantzungailuan play.

Ama nauk. Ez didak aspaldi hots egin. Zer moduz habil. Aitaren partez goraintziak. Piit. Damian, c'est moi, Véronique. Piit. Arruti, soy Jose Mari, el de los seguros. Se trata de la renovación del seguro de la casa. Llámeme cuanto antes. Piit. Arruti jauna, Urrutikoetxea tenientearen partetik deitzen disut. Ahal dusunean deitxeko berari. Piit eta piit luzeago bat, amaitzeko. Mezu guztiak entzunda daudela adierazteko.

Hago horretan Urruti. Itxaron beharko duk bihar goizera arte. Ni hilda nagok eta hildakoek ez ditek hitz egiten telefonotik. Are gutxiago honelako eguraldi zakurrarekin. Hilda nagok egiazki. Hirezat. Mundu guztiarentzat. Eta neronen-tzat.

Telefonoa belarrian hartuta, Véronique, est-ce que tu peux venir chez moi, vite. Oui, maintenant. Oui, s'il te plait. Esaten du. Merci, ma jolie. Klik. Etortzeko lehenbailehen etxera. Bere ondora. Mesedez eta faborez. Otoi. Lehenbailehen, Véronique.

Kartzinoma. Izena ere baduk hori. Ezkataduna gainera, legatzak, lupiak eta korrokoiak bezala. Munstro ezkataduna. Munstro korazatua.

Damianek poltsikora sartu du eskua zigarreta bila. Keinu mila bider errepikatua da hori. Peter Stuyvesant gorria. Begira geratu zaio paketeari. Las Autoridades Sanitarias advierten que el tabaco perjudica seriamente la salud. Advierten que ala advierten de que behar luke zuzen egoteko. Zalantza. Gaztelaniaz.

Tximiniara joan eta sua pizteko pastilla baten ganean ezarri du tabako pakete zigarretaz betea. Sua piztuko du. Hobeto pentsatu eta paketea ostera eskuetan hartuta, banaka atera ditu zigarreta guztiak kaxatxotik. Berriro jarri du pakete hutsa pastillaren ganean eta beraren gainetik abarrak eta haritzezko hiru edo lau enbor zati eder. Su eman dio denari. Begira geratu zaio garrari eta keak egiten duen zirimola kotoizkoari. Lehenengo bat eta gero beste bat, zigarreta guztiak sutara bota arte ez du amaitu. Bat-banaka. Mendeku txiki bat, hamabi urte zeukanetik irentsi duen ke guztiaren aurka. Mendeku alferrikako bat. Kea ezin baita ukabilkadaz

kolpatu. Madarikatu baizik ezin da egin kea. Edo zurrupatu.

Ez dut gehiago zigarretarik erreko esan, jangelako arasa batetik metalezko kaxa bat jaso, eta handik zigarro puru bat hartu du. Ez da handia. Ez da txikia. Ertaina da. Wilde La Paz. La Habana. La Autoridades Sanitarias advierten que fumar provoca cáncer. Que ala de que behar luke orain ere ondo idatzita egoteko. Zalantza. Gaztelaniaz.

Hemendik aurrera, zigarro puruak baizik ez. Txokor habanoak huts-hutsik, ez dut besterik erreko. Eta piztu egin du zigarro puruaren muturra tximiniatik ateratako txotx luze baten suarekin. Keak munstroari fereka egin diola iruditu zaio, eztarrian behera iragaitean. Lehen ez zekien bazenik ere. Kartzinoma ezkataduna. Orain badaki. Badaki ederki.

Maiuskulak behar ote dira Autoridad Sanitaria idazten den bakoitzean, pentsatu du. Zalantza. Gaztelaniaz.

Etxeak hutsagoa ematen du halako eguraldi beltzarekin. Eo, eo, eo. Bakardadeak bakardadeago. Ago, ago, ago. Halakoetan deitzen dio, batez ere, Véroniqueri. Véronique, Ziburuko adiskideari. Ziburuko zoroari. La folle. Utziz gero, alkoholetan itoko litzatekeenari. Arnasa hartzeko ere isiltzen ez den Véroniqueri. Zimurtzen hasitako neskari. Halako abaguneetarako geratzen zaion lagun bakarrari. Ari, ari, ari.

Gero eta gehiago, hain sarri irakurri ohi dituen nobeletako pertsonaien antz handia daukalla iruditzen zaio. Berrogei urtez gorako pertsonaia tipikoa baino ez da, bizitzaren harietan harrapatuta, azken finean. Hainbeste eleberritan ezagutu dituen gizonezkoak bezalakoa baino ez da. Paul Austerren eleberrietan bezala, esaterako. Gertatzen ari zaion dena, berari baino, Damian Arruti izeneko protagonistari gertatzen ari balitzaio bezala sentitzen du. Benetan berari ez balegokio bezala edo, hobeto esanda, bera ere baden pertsonaia literarioak bizi duela hori dena, baina ez egiazki berak, bere azalaren barruan bizi den gizonak.

Horregatik pentsatu du hasieran egokiena arnasa metafisikoa erabiltzea dela. Gertatzen zaion guztiari aurre egiteko estiloan, heriotzari aurrez aurre begiratzeko eran, goi arnasa moduko bat erabili behar lukeela. Kafka, Nabokov edo Gidek idatzitako eleberrietako biztanleek egiten duten eran. Edo, gutxienez, Roth edo Carverren narrazioetakoek bezala jokatu beharko lukeela. Ezin, ordea. Estilo kontua da. Estilo kontua baizik ez da. Eta berea, bere estiloa, ez da batere metafisikoa. Ez da nobela handietakoa. Aitzitik, bere estiloa guztiz dela korapilorik gabekoa, erabaki du. Sotil-sotila. Batere goi-arnasarik gabekoa. Mundutarra zeharo. Horregatik bururatu zaio, besterik pentsatu gabe, Véroniqueri telefonoz deitzea. Haragiaren auzotasuna eta babesa eskain diezaiokeen lagun bakarrari. Metafisikaren ordetan, urgentziazko berotasun primario apur bat baizik eman ez diezaiokeen emakumeari. Ari, ari, ari.

Ez du inork zertan ezer jakinik, pentsatu du ondoren. Kartzinomaren kontu hori ez dio inori esango. Zertarako. Baten bati kontatzeak gaitza uxatuko balio, mereziko luke. Gainontzean ez.

Zeini ardura dio bere eztarriak. Damian ez da Ainhoa Arteta.

Amari eta aitari, akaso bai, esan behar lieke. Ezta horiei ere. Zertarako. Horiei bai ezetz. Horiei, batez ere, ez. Ez eta ez. Semea eurak baino lehenago hilko dela pentsatzen has daitezten. Ama egunero negarrez alboan edukitzeko. Haren begietan hil beharraren miseria biderkatuta ikus-teko. Munstroa iristen denean iritsiko da eta orduan ikusiko, ez lehenago. Ala, iritsita dago gaurgero.

Sukaldera abiatu eta hozkailuan begiratu du. Omeleta baten zatia ageri da. Hotza baina omeleta, azken finean. Bakailaoarekin. Katalinak lagako zuen, eurei afaritan sobratutakotik. Goiz afaltzen dute horiek. Katalinak eta Moisesek. Olamendi baserriko maizterrak. Auzoak. Garbitzaileak. Lorezainak. Damianen etxeko zelatarriak. Damianen beraren zaindariak. Salbatzaileak. Aingeru guardakoak. Moises eta Katalina. Berak irabazten duen soldataren herena ordaintzen die ia. Emazte bati baino gutxiago, hala ere.

Bigarren herena, etxe handiegiak irensten dio hilero. Hamar urte iragan dira jada eta orain-

dik zorretan. Beti zorretan, etxeari loturik sekulorum sekulotan. Etxea da gaurko Sisiforen harri berria, aurrezki kutxek ekarria. Erosi baino garestiago salduko luke orain, hirukoiztuta ziurrenera. Diru zakukada eder bat, baina nora lihoake leku horretatik. Ez da erraza onetik txarragorako bidea. Alderantzizkoa hobe, betiere.

Golfeko urbanizazioan bizi nahi zuen Jaione, kosta ahala kosta. Ez dago halako leku ederrik munduan, esaten zion. Hiria hurbil, hondartzak pauso batera. Nafarroa eta Donostia hortxe. Iparraldea bertan. Ez gara inon biziko golfean bezain ondo, Damiantxo. Bai Jaione, bai Jaione, zuk nahi bezala Jaione, atera zitzaion Damiani arrapostu ahotik azkenean.

Berari bost axola. Zer demonio. Ez zen leku txarra Hondarribiko golfa. Golf jokalariai kenduz gero, jakina. Ez zen batere paraje makala. Belardiak eta hariztiak, Jaizkibelen magalean. Zarate-tatik urrun. Etxe bat hemen eta beste bat dezentte harantzago, hirietako eromenik gabe. Bake santua. Behar zenerako, gainera, autopista urrats batera eta auzoak, ia gehienak, sekula ikusten ez diren horietakoak. Satorren jeneroko-

ak. Zeu damutuko zara ni baino lehenago, Jaione, esan zion. Zeu zara etxean geratu beharko duena. Niri antzerako zait hemen edo han, zeurekin baldin banaiz, maitea.

Hori ez da arazo, Damian. Konponduko naiz. Ederki, gainera.

Konponduko naiz. Kaka zaharra, konponduko naiz. Hiru urte ere ez osorik. Etxea gainera zetorkiola. Udan, igerilekuarekin eta familiartekoen bisitekin tira, baina neguan ezin zuela hainbeste ko isolamendua jasan, lagunak aspertzen hasi zitzaizkiola betiereko bisitan. Epea luzatzenago zela, bisita batetik bestera. Auzoko Katalinak ez zituela gauzak berak agindu bezala egiten. Handik hanka egin nahi zuela lehenbailehen. Erabaki okerra izan zela halako etxe handia eta urruna erosi izana. Bai, bazekiela berak eskatuta hartu zutela erabakia, baina, zer nahi duzu, Damian, gezurra esaten hastea. Hobe zutela hura saldu eta etxebizitza bat hartzea Donostiako zentro aldean. Itotzen ari zela horma handi haien artean. Kaka zaharra eta kaka zaharra.

Azkenean nire eulien bildumek edukiko dute kulpa, esan zion Damianek. Bai, horiek ere bai.

Horiek batez ere, erantzun zion Jaionek. Higuin-
tzen naute zure euli horiek guztiek. Zuk ezin
duzu besteak bezalakoak izan. Ezin dituzu pintura
edo altzari zaharren bildumak egin. Euli horiek
behar dituzu derrigorrez inguruan. Bost axola
niri Europako bilduma handiena bada ere. Eta ez
esan derrigorrezkoak dituzula zure lanean. Zure-
tzat baliteke, baina zertarako behar ditut nik eu-
liak. Nire etxean. Nigatik balitz, Arantzadiri eman
eta akabo. Horixe esan zion Jaione ederrak, Jaio-
ne betikoak. Arantzadi Zientzi Elkarteari eman
beharko lizkiokeela bere euli bilduma guztiak,
hildakoak eta biziak. Guzti-guztiak.

Ez sartu nire euliekin, erantzun zion Damia-
nek. Bazenekien lehendik horren berri. Nire bil-
duma ez da gaur goizeko kontua. Ezagutzen
nauzu aspalditik. Ez etorri orain eulien aitzakia
horrekin. Hitz eginda genuen hori aurretik.

Aitzakia baino gehiago dira, Damian. Etxe ho-
netan zu itzuli arte egun osoan bakarrik egon be-
harra eta euli horiek nonahi, hau ez dago erama-
terik. Auzoak beste modukoak balira, behintzat.
Gure antzeragokoak. Baina Moises eta Katalina,

baserritar horiek, ez dira niretzakoak. Oker begiratzen didate. Ez naute berdina ikusten.

Ez zarete berdinak eta. Zer dute, baina, txarrik Moisesek eta Katalinak. Begi okerrez hartu zenituen lehen egunetik. Ordea, jende jator askoa da hori. Eta euliak ez daude nonahi. Euren lekuan daude, beheko gela txikian eta garajearen ondoko sotoan. Ez aipatu niri Arantzadiren konturik. Ez esan niri halakorik, Jaione. Badakizu hori.

Dena izan zen alferrik, ordea. Azkar bihurtu zen hasierako pitzatua amildegi. Amaren Donostiako etxera itzuli zen Jaione eta bere euli bildumarekin geratu zen Damian, golfaren erdian bakar-bakarrik. Golf jokalarien pilota galduak soilik egiten zioten bisita. Eta Véroniquek.

Damianek egiaztatu egin zuen, orduan, ez zuela ezagutzen bere emaztea. Bere emazte izandakoa. Hurrik ere ez ziola eman bere besotan hainbeste bider edukitako hari. Ezen Donostiara itzultzearekin batera, kapulutik irtendako emakumearen bizimoduari heldu baitzion Jaionek. Lehenagoko guztiarekin fitsik zerikustekorik ez zeukan bizimoduari. Damianen ondoan ira-

gandako urte haiek Orfidal-aren lainoetan iragandakoak balira bezala. Kezkoak. Gezurrezkoak. Ametsetakoak. Benetan gertatu gabekoak izan zirelako, lehenbailehen ahortzi beharrekoak bailiran.

Zoriona jarri genion etxeari izena letra zuriz atarian, esan zuen Damianek. Zoriona. Kaka zaharra, zoriona.

Dutxa bero azkar bat eta etxean egoteko arropak. Aurki da Véronique atean. Galtzen ez bada bidean.

Ez zaitzaket maita Véronique. Maite zaitudan arren, ezin dizut esan maite zaitudanik. Ez da zuegatik Véronique. Nigatik da hori. Ez dezaket inor maita. Edo, bestenaz esanda, denak zaituztet maitatzen. Zu ere bai, Véronique. Nola ez, bada. Baina zer da jakin nahi duzuna. Denek nahi duzuen bera nahi duzu jakin zeuk ere. Maitea zarela. Ezin da, ordea. Nirekin ezin da. Ezin dut esan. Ezin dut ezpainetaraino ekarri. Eta esango banu ere, ez litzateke egia osoa. Ezin baitut maite nehor inoren gainetik. Zu ere ez Véronique biho-

tzekoa. Zu ere ez. Beldurra ematen dit. Maite ote zaitudan nahi duzu jakin. Jaione maite izan nuen beste maite ote zaitudan. Edo gehiago. Bai, maite zaitut. Badakizu. Hori al zen dena. Bada, badakizu. Maite zaitut. Ez besterik.

Maite ditut zure begiak eta maite ditut zure arnasa eta hortzak. Maite zaitut zu zeu, gogaitzen nauzun arte. Maite zaituztet denak. Eta zu bereziki. Bai horixe. Baina, Véronique, ezin da hau izan amodioa deitzen duten hori. Hori ez dakit zer den. Ezin dut jakin. Ez baitut nehoiz kausitu haren dardararik nire baitan, Véronique. Jaionerekin ere ez maitasunik, Véronique. Harekin ere ez. Beste guztiekin ere ez, Véronique. Amodiorik ez dute inoiz kausitu itsu honen begiek.

Neu izanen naiz ezindua, pentsatu du Damiane bakarrizketaren erdian, eta ez da batere harritu hainbestetan heldutako leku berera iristearrekin. Bera da ezindua eta ezgauza. Maite ditu emazteak, bai. Ezin haiek gabe. Baina gauza bat da gosea eta bestea janaria. Gauza bat da beharra eta beste bat asetzea. Zer gertatzen da, baina, asetakoan. Nola deitzen zaio bakarrik ge-

ratzeko gogo gotor horri. Hurkoa alboan gehiegizko gertatzeari. Bestearen altzoan ezin geratze horri. Bakar-bakarrik geratzeko behar ezinbestekoari. Existitzen al da desamodioa. Edo bestela esanda, desamodioa dagoenean ere, amodioa egiazko ote oraindik. Horri esaten al diote besteek amodio. Zeharo etorri gabe, alde egin duenari. Desamodioari.

Damianek ez daki.

Ama, bai, entzun dut zure mezua. Zer moduz zabilzate. Ni ongi, bai. Dena ongi. Ez, zaude lasai, ez daukazu etorri beharrik. Neu joango naiz zeuenera, halako batean. Astirik gabe nabil aspaldian, badakizu. Beti bada zerbait. Bai Ertzaintzarekin ere bai. Ertzaintzarekin batez ere, aspaldiko honetan. Ez, Guardia Zibilekin ez. Horiekin ez, zaude lasai. Besteekin ere ez. Polizia Judizialarekin ibiltzen naiz ni, ibiltzekotan. Baina gero eta gutxiago horiekin ere. Gehiena Ertzaintzarekin, bai. Esan dizut mila bider. Ez, ez nau inork hartuko kolaboratzailezat. Txibatotzat ere ez. Nire lana bestelakoa da. Hori ere esan dizut

mila aldiz. Nirea lankidetzan profesionala da, ez besterik. Ez du politikarekin zer ikusirik. Beste gauza bat da. Eulien kontuekin jarraitzen dut, bai. Forentseekin ibiltzen naiz batez ere. Bai, eta epaileekin ere bai. Ez, ez da hori. Ezetz. Bai, bada, dakit gehiago gustatuko litzaizukeela baina ez daukat fakultatera itzultzeko asmorik. Izorra dai-tezela ikasleak. Amaitu zen hori. Betiko. Noiz ohituko zarete. Beti berdin. Bai, kontuz ibiliko naiz. Agur, bai. Musu bat zuri eta beste bat aitari. Klik.

Mikrouhin-labean berotu ala ez berotu. That is the question. Omeleta hotza hobe, mikrouhi-nek alferrik galdutakoa baino. Ogirik ez inon. Gogorrik ere ez. Izoztutakorik ere ez. Bimbo zaharra soilik. Eta edateko zer. Erretzeari buruz ez bezala, Aldabak ez du deus agindu edatearen kontuaz. Bi lekutatik joango dira kea eta ardoa, alkohola eta nikotina. Bat hemendik eta bestea handik. Seguruenik.

Ardoa Bordelekoa. Bakailaoarekin Bordelekoa. Bai, gaur Bordelekoa. Hauxe bera, Château Lagarde, laurogeita hemezortzikoa. Zergatik ez, bada. Hilda hago Damian, hilda. Egin ezak apeta.

Zer ote du orain gure tenienteak. Zer ote du Urrutikoetxeak. Ez dit telefono higikorrrera deitu. Berak jakingo du. Ezer onik ez, oraingoan ere. Seguru. Herenegun ez zidan deus esan. Kontu berriren bat edukiko du. Gorpuren bat aurkituko zuten putzuren batean ustelduta. Beti bezala. Zi-kinkeriaren bat. Seguru-seguru.

Ez da makala Château Lagarde hau. Handietakoa ez baina lotsa gutxi dauka honek edozeinen ondoan agertzeko. Ireki eta denboratxoa egin ostean hobea, gainera. Hobea hirugarren basokada, lehenengoa baino. Eztarriko bidea garbitu eta gero. To hau ere, kartzinoma ezkataduna. Ardoa ere gustuko al duk. Mozkor hadi. Hordi hadi. Ito hadi. Akaba hadi, xabiroi halakoa.

Zergatik ez da iritsi Véronique. Harritzekoa da Ziburutik hona hainbeste denbora. Muga itxita egongo da igual, hainbeste kamioirekin. Baina gaur ez zebilen horrenbeste. Ostirala edo astelehena balitz, okerrago. Hor ere egin beharko lukete zerbait, muga alde horretan. Egunero hamar mila kamioi baino gehiago, atzera eta aurrera. Baina nola egingo dute ezer, bada, ezgauza baldin badira. Diputazioa dela, Gobernu dela,

Udala dela, hura Frantzia eta hau Espainia direla... beti berdin. Orain daudenek ez dute deus egingo eta gero etorriko direnek ere ez. Denak berdinak dira, izan bateko ala besteko. Guztiak makalaren ezpalekoak.

Mugarik gabeko Europa dute orain hitza. Europa. Kaka zaharra, Europa. Ate guztiak ixten nahikoa lan. Eta Afrikako zuloetatik etortzen bada baten bat, egurra. Besterik ez dakite horiek. Egurra ximinoari. Ikusi nahi nituzke eurak hanka hutsik eta banana bati helduta. Presidentek, lehendakariak eta politikariak denak. Banana bati helduta eta hiruzpalau mukitsu goseti zintzilik praketatik. Aita gose naiz. Begira, sabela puztu zait. Sukarra daukat. Beherakoa daukat. Mina daukat buruan. Gorputz osoan. Zer gertatzen zait, aita. Orduan emango nieke gustura Europa. Ipurtzulotik Europa. To Europa.

Baina ez. Ez da arriskurik. Beti gora eta gora horiek. Eta paretik kendu behar diren bakoitzean, to aulkitxo bat hemen eta to beste bat han. Hau ala beste hango hura nahiago. Nahi duzu Doctor Honoris Causa izan. Kaka putza Ho-

noris Causa. Kaka putza. Administrazio Kontseiluko presidente nahiago. Kaka putza hori ere.

Eta besteak. Gure heroiak. Konponduta gaude horiekin ere. Ia akabatu naute gaur bertan. Intxaurrondoko kuartelari baino neuri apuntatzen zidatela ematen zuen. Horretan ere baldarrak. Trakets hutsak. Apurtzen abilak, horixe dira horiek. Dinamiteroak. Eraiki dezatela besteek. Beti gaizki, jakina. Eurak agintzen hasten direnean, Jainkoak ez dezala nahi, ikusi nahi nuke nik Stalin ala Pushkin, zein duten jabe.

Anormalak gara gu. Totalekoak. Ganorabakoak. Merezi duguna baino ez daukagu. Zer nahi duzu, bada. Etsaiak disimulatu ezinda dabilta, sortzen diegun barregura. Kakanarro irrigarriak gara. Merezi duguna, horixe daukagu. Ez besterik. Izorrari Pello Mari.

Bozina hotsa. Hor da Véronique. Atea zabalduko diot eta Argos lotuko. Château Lagarde. Eskerrak neuk amaitu dudan botila. Hasi eta buka. Bestela Véroniquek bi minututan kito. Horrek ez daki egarririk asetzen. Leize bat da horren ezatarria. Château Lagarde. Kaka zaharra, Château Lagarde.

Bonsoire Véronique, commant vas toi, esan zuen Damianek. Ahaztu baino lehen, paper hau ekarri dut zuretzat eta Post-it hori bat luzatu zion Véroniquek eskura. Aurkitu zuela, azkenean. Lilleko entomologo bat zela. Floch jauna. Hortxe, paperean idatzita zeukala haren izena, helbidea eta telefonoa. Berak lortzen ahal zizkiola bildumarako falta zitzaizkion larbak eta euliak. Edo, behintzat, erakutsiko ziola horretarako bidea. Frantzia osoko euli bildumarik handiena ei dauka hark. FR3-an ikusitako erreportaje bati esker atera zuela haren aztarna.

Véronique, Véronique, mespretxua ordaintzen daki beti urrearekin. Besarkadaren beroarekin. Emearen zero lurrezkoarekin. Véronique, Véronique zatoz barrura nirekin. Véronique, Véronique, gu biok elkarrekin.

Edan egin duela nabaritu dio Véroniquek. Bordeleko mikatza duzu ahoan gora, erran dio. Eta tabakoaren usaina. Ez duzu sekula bakarrik edaten. Zer gertatzen zaizu, Damian.

Deus ez, Véronique, deus ez. Eguraldi honekin eta etxean bakarrik, ez zen giro. Horregatik deitu dizut. Zer moduz bidaia. Kamioi asko egongo zen mugan. Muga puta. Kendu zutela baina beti dago hor. Kaka zaharra, muga. Hara, zatoz. Sua piztu dut tximinian. Beste botila bat irekiko dut nahi baduzu. Château Lagarde.

Ezetz Véroniquek. Bihar goizean goiz ibili behar duela eta ezetz eta ezetz. Baionan egon behar duela zortzietarako, garraio tratu bat ixten. Ireki egin du, hala ere, botila Damianek. Château Lagarde. Kaka zaharra, Château Lagarde. Biek edan dute. Hustu dute. Ia ezer esan gabe. Begiak beheko sutan lo.

Zer duzu, Damian, galdetu dio berriro, tximinatik behakorik kendu gabe. Deus ez, Véronique, deus ez. Ardoak ez diola isilik geratzeko erabakirik aldaraziko, pentsatu du Damianek. Gordean behar duela bere gaitzaren albistek. Kartzinomaren berriak. Goazen ohera, gauerdia da-eta.

Besarkatu egin du Véroniquek izarapean eta besarkatu egin du Damianek ere emakumea. Ni ez naiz emagaldu bat, esan dio Véroniquek hala-

ko batean. Nire bakardadeaz profitatzen zara, Damian. Ezagutzen ditut zu bezalako beste gizonetako batzuk ere. Bakardadearen astindiak eragindakoan bakarrik oroitzen direnetakoak.

Ni ere bakarrik nago, erantzun dio Damianek. Bai, baina nik maite zaitut, Véroniquek. Maite zaitut, Damian. Nik ere bai zu, bukatu du Damianek. Ez gaitezen berriro kontu horrekin hasi.

Ez dute deus besterik esaten, ez dute deus egiten. Elkarri itsatsitako bi gorpu bero diruditen haragi erdi hilak baino ez dira. Bi gorputz lotaratu, elkarrenganatu. Besterik ez. Halaxe egon dira, denbora luzean, bata bestearen arnasa ardozkoaren kulunkan. Inon aurkitu ezin dena, bestearengan atzeman nahian.

Argia amatatzerakoan, begietara behatu dio Véroniquek eta berriro egin dio lehengo galdera bera. Zer daukazu, Damian. Zer daukazu gaur. Ez zara betikoa. Deus ez, erantzun dio Damianek, deus ez.

Bizkarra eman dio orduan emakumeak Damiani mantapean. Elkarren arteko kulunkatik ihesi. Besarkada etenda.

Damian sabaiari begira jarri da atetik sartzen den su dantzariaren argizko eragina ikusteko. Sokratesen edo Platonen gerizak ikusi ditu ballet betean. Zuzen ez daki norenak ziren itzalak, Platonenak ala Sokratesenak, ardoaren magalean.

Kartzinoma bat daukat eztarriaren erdian, esan dio orduan. Kartzinoma bat, kaka zaharra. Kartzinoma bat, Véronique. Ezkataduna. Ziburuko portuko korrokoiak bezalakoa.

Eta argia amatatu du, klik.

Frantsesa izateko, emakume ona duzu andre hori Damian, esan dio Katalinak, ohetik dutxara salto egin duenean. Baina Damianek ez dio deus entzun. Atea erdi itxita dauka eta uraren zaratarekin ohartu ere ez da egin Katalina han dabilenik. Urrutikoetxeari deitu behar diot, pentsatu du eta ondoren apalategiko botiken artean Dexedrina poto bati jarri dizkio begiak. Beharko dut bai, zerbait. Hil baino lehen bizirik segitzeko.

Kafeontzia sutan jarri duen istant berean sartu da Katalina sukaldeko atetik. Plastikozko pala bat dakar zakarrez beteta eta lehengo bera esan dio berriz, frantsesa izateko emakume ona duzu andre hori, Damian. Orain bai, orain entzun dio. Goiz ibili da gaur. Emakume fina duzu hori, Damian. Gauza bat zuri esateko agindu dit: atzo berak emandako papera ez galtzeko eta telefonoz deitzeko, lehenbailehen Floch edo Flach jaunari. Jaikitakoan, horixe zuri esateko eskatu dit.

Ez da frantsesa, Katalina. Véronique Ziburukoa da, erantzun eta alde egin du sukaldetik Da-

mianek, kafea eskutan daroala. Nahi duzuna esango duzu, erantzun dio Katalinak, baina Bidasoatik haranzkoak beti izan dira frantsesak. Lehen, orain eta gero. Zuk esango didazu niri nor den frantsesa eta nor ez, Katalinak.

Hori ere ezin entzun izan du Damianek dagoen tokitik, soto ondoko geletako batetik. Izozkailu handi bat ireki du eta arkume birika bi atera ditu bertatik. Izozturik. Torizue maiteok, esan eta mahai baten erdian jarri du barrukietako bat. Ez dut izan astirik desizozteko. Ahaztu egin zitzaion haragi pusketak bart ateratzea. Halaxe beharko duzue gaur. Hotza badago, itxaron epeldu arte, laster gertatuko da hori. Ni banoa. Eta gauza bera egin du ondoko gelan ere. Handik atera deanean, hormako erloju txiki bati behatu dio arretaz. Termostatoa da. Hogeita hamar gradu. Ez dago gaizki temperatura hau, maiteok. Ez dago batere gaizki zuentzat.

Arraro sentitzen du bere burua. Ez da atzo goizeko bera. Beste bat da. Munstro ipotxak bere baitan jarraitzen du. Eztarriaren erdian. Ez da bardako ametsa izan. Ez da kafearen usainarekin joan. Bertan jarraitzen du. Nola bizi behar da

minbiziarekin. Biziminez. Hitz joko polita, besterik ez. Biziminez, kaka zaharra, minbizia biziminez.

Bai, biziminez, pentsatu du jarraian. Nola, bada, bizi bestela. Eta ez daki segur Dexedrina-ren eraginagatik edo zergatik, indartsu sentitzen da. Bizitzeko gogoz. Bost axola argia behar baino lehen amatatzen bada. Bost axola finera behar baino hurbilago bada.

Zerk ematen dio, bada, balioa bizitzari. Luza-ro bizitzeak ez behintzat. Esan diezaietela hori Radiguet, Rimbaud edo Basquiati. Esan diezaietela eduki zuten bizitza labur hura ez zela izan besteena baino hobea. Besteenen adinakoa. Hiltzearekin amaitzen omen da bizitza. Nork esan zuen, baina, hiltzearekin heriotza ere amaitzen dela. Nork esan zuen egia borobil hori.

Bizi behar hutsaren bizipenaz bizi direnak ez dira benetan bizi. Esan diezaiotela egia hori Katalinari, ondo zahartuta gero ere lan makurra egiten segituko duenari. Edo nire amari, nire aitari, bizirik irauteak ematen duen lana besterik ezagutzen ez duten guztiei. Leihotik begira jarri, eta ezer ikusi gabe bizirik jarraitzea beste ezela-

ko xederik ez dutenei. Bizitza bera gordetzen aspertu baizik egiten ez diren gizon eta emakumei.

Denbora dute amets. Zer da, baina, denbora. Zein da denbora ona. Baliosa. Zein denbora gutzizatzen dugu bestea baino gehiago eta zergatik. Denbora luzea ote hobea, motza baino. Zergatik da hori horrela. Zergatik ez du epe laburrak gehiago balio, epe luzeak baino.

Epe laburrak hurbil du amaiera eta horrexek ematen dio distira geratzen zaigun apurrari. Beterakoa dirudienak, ostera, ez du ernetzen gizakia. Lotan dauka eduki. Egun bat bestearen atzean, denak berdinak, tarteko eguraldiaren aldaketak izan ezean.

Baina zer dihardut, nola liteke defendatzen ibiltzea laburra luzearen aurrean. Nola liteke hori Damian, zentzu ororen aurka aritzea. Adimena era horretan makurraraztea. Logika oro neure zerbitzura egokitu arte okertzea. Beti haiz mol-datuko orotara. Beti haiz egokituko. Gazi-gezetara. Inoiz ez duk joko behea. Ala aspaldi jo dualako habil horrela. Gora eta gora. Itolarrituta urpetik arnas bila irteten den balea bezala.

Dexedrinak bultzatzen duela ohartu da Damian. Kitzikatua dabil eta adimena erne. Pentsamenduak uholdean datozkio eta guztien gaine-tik, esaldi bat atera zaio ahotik. Pentsatu ez ezik, esan egin du. Ahoskatu. Eta harritu egin da, ez baitu sekula bere burua bakarrik hizketan sumatu gaur arte. Eta ez da ari euliekin. Bere burua-rekin dihardu. Ezagutzen ditudan pertsona guz-tiak, hiltzen ari dira. Bai, horixe esan du. Ezagu-tzen ditudan pertsona guztiak hiltzen ari dira. Eta apur bat geroago beste gauza bat ere esan du. Bizirik dagoena, hiltzen ari delako dago bizi-rik. Horixe esan du.

Eulitegitik etxera sartu da ostera eta telefo-noa hartu du. Urrutikoetxearen zenbakia markatu eta, beti bezala, Tere idazkariak jaso dio deia. Ez, Urrutikoetxea tenientea ez da etorri ondiño baina mesu bat daukat suretxat: egoteko hemen hamar eta erdietan sin falta eta esin badusu, esateko non egongo sara. Hor izango naiz hamar eta erdietan. Hutsik gabe, erantzun dio Damia-nek hotz, eta eseki egin du aparailua.

Hor izango naiz, kaka zaharra. Zer ote du Urrutik orain. Gorpuren bat. Kaka zaharren bat,

seguru. Hor izango naiz, bai, baina horretarako mugitu beharko dut ipurdia. Agur Katalina, egin du oihu, banoa. Ez dakit noiz itzuliko naizen. Ahal bezain lasterren. Arratsaldean.

Ez ahaztu frantsesak emandako agindua, esan dio ozen Katalinak. Vèronique ez dela frantsesa esateko gogoia sartu zaio berriro Damiani, baina eutsi egin dio arraposturik emateke. Nahikoa du berearekin. Bakarrizketan esandako guztiarekin.

Hori berria da, pentsatu du gero. Atzo goizean ez nion inola ere barkatuko, erantzun egingo nion Katalinari, eta Ziburukoak ez direla frantsesak adieraziko. Hondarribikoak espainolak ez diren era berean. Ala bai, Katalina espainola ote. Vèronique frantsesa ote. Inguruko guztiak atzerritarrak ote. Bera, Damian, ote anormal bakarra.

Baina ez dio ezer ihardetsi Katalinari. Ez du horretarako gogorik izan eta bat-batean gizon berria dela sumatu du. Lehenago ez bezala, alferreko lastoak albo batera uzteko gai dela sentitu du. Mamia soilik duela gose. Azalaren lekuan funtsa. Ez du astirik alferrik galtzeko. Epe labu-

rra dena urre, horixe helburu. Bizimina. Hiltzen ari naizelako nago bizirik, pentsatu du berriro. Ez naiz lehengo bera.

Autora bidean, Argos etorri zaio jostari eta buztanarin. Lainoturik baina ateri dago eguraldia. Ez da atzoko zaparradarik. Udaberriaren lehen eguna da gaur.

Zakurrari egiten dio galde. Dexedrina ala kartzinomaren albistea ote da, Argos, bizipozten nauen oldar honen jabea.

Donostiara bidean erruz dabilta autoak autopistan. Gehiegi, beti bezala. Ugariegi.

Polloeko tunelera iristen denean, kuartelaren parean, urrutitxo geratzen zaio atzoko bazoka tiroek jotako belardia. Beste noranzkoan doa eta tartean bada eremu zabal bat, hamar metrokoa edo, eta bertan Ertzaintzaren radarra gidarien abiadura handiegia zigortzen. Flash bat egin diote atzetik Nafarroako matrikula daukan auto bati. To oparia, pentsatu du, Damianek, ez zaik doakoa irtengo Donostiarako bidiaia, nafar kai-

kua. Ederki akordatuko haiz gaurko bisitaz. Ven y cuéntalo.

Astia eman dio, hala ere, belardian, urkiek eta eukaliptoek babesten duten maldaren erdian, eztrandetako baten arrastoa ikusteko. Belar berdean, lurrezko tarte ezegoki bat ageri da. Metro inguruko zabalerakoa. Ez da hainbestera-koa, pentsatu du. Zarata bai handia, zarata ga-lanta egin zuten eztrandek. Ezertarako ere ez, ordea. Horixe dute horiek. Zarata besterik ez.

Autoaren barnean argazkiak ateratzen ari diren ertzainak datozkio burura. Bada hori ofi-zioa. Egun osoa auto barnean kizkurturik, gida-riak nola izorratuko. Edo alkoholemiako frogak egiten. Egin putz hemen. Gogorrago. Egin putz berriro. Mozkortuta zaude. Bada hori lanbide nazkagarria.

Hamarrak dira. Irratia piztu du. Ez dute deus esan atzoko granadei buruz. Gertatu zen, bada. Neuk ikusi dut oraintxe arrastoa. Ederra albiste-gia.

Zorte ona eduki du. Ertzaintzaren polizia-etxetik hurbil egokitu zaio lekua. Aparkalekua. Ez da beti horrela izaten. Hamarrak eta hogeit.

Okindegi batean erosi du *Egunkaria*. *Euskaldunon Egunkaria*. Bera bezalako anormalen periodikoa. Beste kazeta guztien pisuak zimurtu dio lehen orria baina argi dator, belardiaren argazki eta guzti. Atzo atentatu saiakera izan zen Intxaurrondoko kuartelaren aurka. Eta beherago, granada-jaurtitzaille baten bidez sei tiro bota zituztela dio. Granada hutsak omen. Metrailarik bate-re gabekoak.

Eskerrak, pentsatu du Damianek. Bestenaz ez nintzen hemen izango notizia hau irakurtzen. Ez nintzen kezkatuta ibiliko, eztarriko arrabioarekin. Korrokoi ezkatadunarekin.

Poltsikoak hustu behar izan ditu. Plastikozko kaxa zuri batean jarri ditu denak. Giltzak, telefono-kilkerra eta zigarro puruak gordetzen dituen metalezko kaxa dirdaitsu bat. Ondoren segurtasun uztai baten azpitik iragan da, baina, hala ere, txistua jo du aparailuak. Piit, piit. Gorputzean goitik behera pasatu dizkio eskuak ertzain atezainetako batek. Será el cinto, esan du. Pase, pase. Gerriko uhalaren burdinazko belarria, antza.

Egunon Arruti jauna, esan dio Terek. Sure sain daude. Ekarriko disut kafetxo bat, galdetu dio azkenez eta baietz Damianek. Behin abiadura hartuta, bere motorrak ez duela zertan gasolarik gabe gelditu, erabaki du. Dexedrina kafearekin batera hartuta bezalako pizgarririk ez dago, bera bezain hilda dagoenarentzat.

Ezagutzen duzue elkar, dio Urrutikoetxea tenienteak. Javier Larrañaga forentsea, Damian Arruti entomologoa edo halako zerbait, esan du. Halako zerbait, soberan esan arren. Bai, ezagutzen dugu elkar esan du Damianek, noiz edo noiz egin izan dugu lan elkarrekin, eta eseri egin dira mahai borobil baten inguruan.

Tenienteak hautsontzia beterik duela ikustean, Damianek zigarro puru bat atera du metalzko kaxatxotik. Nahi duzue. Ezetz buruarekin. Hobe horrela, pentsatu du. Merkeago.

Urrutikoetxeak hartu du hitza. Izarraizko osin batean, laurogeita sei metroko sakoneran, gorpu baten zatiak aurkitu zituzten joan zen astean Mondragoeko espeleologo batzuek, dio. Zortzi zati. Emakume batenak dira. Zati guztiak zeuden

ederki paketaturik. Bakoitza bere aldetik. Eskuak eta burua falta dira, ordea. Bila gabiltza oraindik.

Larrañagak jarraitu du. Aztertu egin ditugu zati guztiak eta hiru eta sei aste bitarte zeramatzatela leizean, iritzi diogu. Azterketek hala diote, behintzat. Hogeita hamabost urte inguruko emakume batenak dira eta gorpua zatitzeko egin dituzten ebaketak, motozerra elektriko txiki horietako batekin eginak dira.

Damianek harridura aurpegia jarri du. Nola jakin dezake inork erabilitako motozerra elektrikoa zela eta ez bestelakoa. Azkar etorri zaio erantzuna. Motozerraren kateko olioaren aztarnak bai, ikusi ditugu, baina ez dugu aurkitu gasolinarenik, esan dio forentseak. Elektrikoa behar zuen izan derrigorrez, motozerrak.

Berriro Urrutikoetxeak du hitza. Sexu krimen bat dela uste dugu. Aluan ezer ere ez, baina emakumearen gorputzeko azalean, gizonezko hazia aurkitu baitugu. Hiru gizon ezberdinen hazia.

Eta Damiani bortitzegia gertatu zaio entzundakoa. Jasanezinezkoa egin zaio buruan gauzatu zaion irudia. Jakin nahi luke, hala ere, hiru gizo-

nezkoen hazia gorputza zatitu baino lehenagokoa ala gerokoa ote den. Gorputza zatitzeak eragindakoa ote den, ala lehenagokoa. Baina ez da ausartu halako gauza bat galdetzera. Nahiago izan du isilik.

Urrutikoetxeak ez du eten mintzaldia. Hala ere, beste gauza bat ezagutzea ezinbestekoa zaigu ikerketan aurrera egin ahal izateko, eta horrexegatik egin dizugu dei, Arruti. Zati guztiak egun berean jaurti ote zituzten jakin behar dugu derrigorrez. Erabakigarria da. Nahitaezkoa dugu hori jakitea. Zati denak aldi berean bota ote zituzten zuloan behera, ala une eta egun ezberdinetan.

Zergatik behar duzu jakin hori, galdetu du orduan Damianek. Ezin dizut oraingoaz erantzun. Etorriko da garaia, dio Urrutikoetxeak. Baina ezinbestekoa da guretzat hori jakitea: zati guztiak aldi berean botatakoak ote diren. Horixe duzu oraingoan lana, Arruti. Eta noiz izan zen zehaztea ere bai, jakina.

Tenientea telefonoa hartu eta Tereri ari zaio. Esan horiei sartzeko azkar. Zain gaudela.

Non daude orain zatiak, galdetu du Damianek eta Larrañagak erantzun dio. Polloeko gorputegian, hozkailuan sartuta.

Beti Polloe, marmarkatu du Damianek ahopeka. Zer diozu, galdetu dio tenienteak. Ezer ere ez, nire kontuak. Aurki naiz neu ere hor, pentsatu du azkenez. Badaukat kakalardo bat eztarrian ausiki. Laster irentsiko nau osorik.

Atetik barrura hiru gazte sartu dira. Bat emakumezkoa da eta lehenengo begiratuan, kazetari baten antza daukala erabaki du Damianek. Ederra da. *Musca aurea* iruditu zaio *Musca argentea* baino gehiago. Ez da maila kaxkarra Damianen mailaketan. Une batez, Jaione emazte ohia ekarri dio gogora. Jaione. Non ote dabil orain Jaione. Eta nola. Ez daki zergatik baina parea daukan emakumea kazetaria dela esango luke. Gaztea da. Gaztea oso. Hogeita hamarretik oso gora ez oraindik.

Baina ez, ez da kazetaria. Ertzaina da. Urrutikoetxeak dioenez, brigada zientifikoko partaide. Lupe Latasa du izena. Bera arduratu da leizeko arrastoak biltzeaz. Beste biei, ordea, urrutitik ikusten zaie ertzainak direla eta bai, halaxe

dira. Mangas deitzen dabata, eta Leniz bestea. Urrutikoetxearen agindupean, euren esku ei dago ikerketa.

Osinean ez genuen ezer apartekorik aurkitu, dio Lupe Latasak. Zati guztiak irmoki zeuden paketatuetan eta ez ziren asko apurtu hainbeste metrotan erori arren. Tarratada txikiren bat baino ez. Harritzekoa da, baina halaxe da. Plastikogorreetan ederki bildurik zeuden denak. Ordenagailuak estaltzeko erabiltzen diren horietakoak ziren poltsak, nylonezko sokaz bilduak. Hatz markarik batere ez dugu aurkitu paketeetan eta leizearen barrenean bestelakorik ere ez, paketeek eurek erortzean egindako seinaleak izan ezean.

Lenizek jarraitu du hizketan. Paketeetarako erabili duten plastikoa, edozein informatika dendetan aurki daitekeela. Geuk ere halakoxeak erabiltzen ditugu Ertzaintzan. Guztiz arruntak dira. Ordenagailuak hezedura eta argitik babes-teko erosi ohi direnetakoak. Sokak ere erabat arruntak dira, arropak zintzilikatzeko erabiltzen diren horietakoak. Egia esan, galduta gaude, ez daukagu bestelako aztarnarik. Eskuak eta burua

aurkituko bagenu, kontua beste bat litzateke, baina bitartean alferrik gabiltza. Ez dakigu nor den ez eta nor izan daitekeen ere. Ez dakigu bere gorputzeko zatiak nola iritsi diren haraino. Ez dakigu zer gertatu den. Ez dakigu ezer.

Nolako zen andrea, galdetu du Damianek eta forentseak ematen dio erantzuna. Esan dizudan bezala, hogeita hamabost urte ingurukoa, hirurogeita bost eta hirurogeita zortzi kilo bitartekoa, odola A motakoa. Bularrean eta sabelean egindako zazpi labankadaz hildakoa. Bortxaketaren arrastorik ez, baina hiru gizon ezberdinen hazia azalean. Seguru asko osasun onekoa. Ez du behintzat odolean ezer apartekorik erakutsi. Bitxia dirudi, baina bere azkeneko janaldian ostrak eta ardo zuriren bat hartu zituen. Seguru asko, Riesling ardo bat. Ez dakigu ziur, baina bai, Riesling bat izan daiteke edo bestenaz, Jurançon bat. Nolanahi ere ardo zuria, fruta-gustukoa eta gozo horietakoa.

Hori nola jakin litekeen pentsatu du Damianek eta instant batez, forentseak irudikatu ditu emakumearen sabeletik ateratako ardo zuria dastatzen. Irudikatutakoak ernarazi dion goraga-

leak kafea eta Dexedrinaren zapore mikatza ekarri dizkio eztarrian gora, baina ez du egin eztul txiki bat baino. Hala ere.

Jaitsi egin beharko dut neuk ere, esan du Damianek azkenean. Jaitsi nora, galdetu dio Urruti-koetxeak. Leizean behera, erantzun du. Lupe Latacak orduan, berak lagunduko duela leizean behera esan du. Elkarrekin jaitsiko direla leize zulo-
ra.

Osinean behera. Laurogeita sei metro ilunpetan. Lurraren erraietan behera. Kaka zaharra, pentsatu du Damianek. Kaka zahar zaharra. Ezerk beldurtzen badu mundu honetan, horrexek izutzen du. Tuneletan, kobazuloetan edo leku itxi eta ilunetan baino nahiago du zerraldoan hilda. Zinemara ere beti joaten da garaiz, argiak itzali aurretik. Bestela ez da sartzen. Ezta pentsatu ere.

Izarraizko osinean behera. Laurogeita sei metro. Ilunpean. Mendiaren sabelean, sokatik zintzilik. Kaka zaharra. Badaki zer gertatuko zaion baina beste irtenbiderik ez dauka. Joan egin behar du. Lekua ikusi egin behar du. Ingu-
rua aztertu egin behar du. Fauna ikusi behar du.

Landaredia behatu behar du. Ito egingo da. Izerdi hotzak harrapatuko du, ikusmena eta zentzuak oro galduko. Zorabiatu egingo da eta bi egun beharko ditu, gutxienez, bere onera etortzeko. Hori guztia badaki aurretik.

Klaustrofobikoa naiz, esan du guztien aurrean. Lasai, neuk lagunduko zaitut leizean behera, errepikatu dio Lupe Latasak, beste inori ezer esateko aukerarik utzi baino lehen. Ez da ezer txarrik gertatuko. Zaude lasai.

Zaude lasai. Kaka zaharra, pentsatu du Damian Arrutik.

Autoa hartu duenean hasi dira lehenengo sintomak. Pentsatze hutsarekin hasi da itolarritzen. Eskuak txindurritu zaizkio eta entzumena ahuldu. Azala lehortu. Pentsatze hutsarekin. Halakoxea da klaustrofobia, esan zion behin bere lagun Barandiaran psikologoak. Egoera ustekabeen etortzen bazaizu, ito egingo zarela iruditzen zaizu. Eta ito egingo zara inork ateratzen ez bazaizu bertatik. Ilunpetik. Itxialditik. Egiazki ito. Baina egoera gainera etorriko zaizula aurrez eta

denbora askorekin jakiten baduzu, are da okerrago. Poliki-poliki hasten zara itotzen, egoera irudikatze hutsarekin. Amuarraina belar gainean bezala. Azala lehortzen zaizu, eskuak txindurritu eta entzumena lausotzen. Gorputza gaiztotzen zaizu ezdeusa bihurtzeraino.

Amuarrainei ezin dakiekeela eskurik txindurritu, horixe erantzun zion Damianek, zerbait esate aldera.

Orain kontua egiazkoa da, ordea. Damianek ez daki nola irten atakatik. Barandiaranek ez zion adierazi zer egin behar izaten den halakoe-tan. Klaustrofobiaren sintomak egoera baino lehen etortzen direnean, zer egin behar da. Ba ote pilularik. Edo bestelakorik. Arnasa bere lekura itzultzen lagunduko didanik.

Izerditan dago eta ozta-ozta asmatzen du errepideko bidegurutzeetan. Polloeko gorputegira bidean trafikoa handi dabil, hiriaren ertzetan. Biribilgune eta semaforoek irteera guztiak dituzte mendean udaberriaren hasiera egunean ere. Alboan darama Lupe Latasa eta ondoren doaz, Ertzaintzaren auto zuri batean, Mangas eta Leniz. Horiek ere radarreko argazkiak egingo zi-

tuzten orain baino lehen. Eta alkoholemia frogak. Putz hemen. Putz gehiago. Mozkortuta zaude. Geldi hemen pasatu arte. Zure datuak behar ditugu.

Larrañaga forentsea eta Urrutikoetxea tenientea ere bazetozen ondoren, baina galdu egin dituzte. Aieteko semaforo batean. Edo beste nonbait.

Damianen itolarriari beste zerbait ere gehitu zaio. Ez du Lupe Latasaren aurrean ahul agertu nahi eta horrexek erakutsi dio alboan daukan emakumea gogoko duela. Ezinegona areago-tzeak horixe du seinale. Ez du zergatik ezer ez-kutatzen ibili, baina barneko ohitura zahar batek erakutsia dio emazteen aurrean ahuleriarik ez agertzen. Gogoko emakume ezezagunen parean delarik, gizonak ez du azaleratu behar pitzaturik. Ez du ehizari traba eginen dion deus erakutsi behar. Matxurak norberak behar ditu gorde ez-kutuan, ehizakia harrapatu artean bederen. Bestenaz, pitzatu horrexetatik eginen luke ihes ehi-zagaiak, basurdeek aukerako lekutik egiten duten legez.

Lupe Latasa *Musca aurea* izateko moduko emakumea iruditu zaio Urrutikoetxearen bulegoan estreinakoz ikusi duenean. Ez da gutxiagorakoa. *Musca argentea* eta *Musca albinaren* artekoa. Dotoreago jantzita, hori baino gehiago ere mereziko zuen, baina bulegoko arropak distira kendu ohi diote gehienetan emakumeari. Lupe Latasari ere bai. Neutroegia da daroan jantzia. Estaltzekoa da gehiago, erakusteko baino. Hala ere, lehenengo begiratutik, ez du errazki eman ohi halako nota alturik Damianek. Harritzekoa da hori. Halako nota altua, lehenengo begiratutik.

Zilegi ote begien aurrean ikusten dudan emakume oro zazpi euli motetako batekin alderatzen ibiltzea. Etengabeko sailkatu behar hau, pentsatzen du. Baliteke.

Ederrena, ia existitzen ere ez den emakumea, *Musca albina* izaten da. Hortik behera beste guztiak: *Musca aurea*, *Musca argentea*, *Musca domestica*, *Musca erratica* eta *Musca alighieri*. Zilegi ote hala ibiltzea denak sailkatzen. Lehenengo begiratutik. Ahoa ireki baino lehena-gotik. Ez dakit. Halaxe da baina. Beti egin izan

dut hori horrela. Automatikoki. Zazpi euli horietako baten multzoan dago emakumea beti.

Jaione *Musca aurea* izan zen hasiera batean. Geroago *Musca argentea* eta *Musca domestica*-ren mailara jaitsi zen. Badira emakumeak lehen begiratuan euli multzo batekoa izatea merezi eta gerora ezagututakoan, beheragoko mota batera erortzen direnak. Horietakoa zen Jaione.

Aldaketa horiek gertatzen direnean, infernuko ahoa ezagutzen du gizonezkoak. Zerutik infernurako marra baitago *Musca erraticat*ik behera. Orduan alferrik izaten da. Zerurik gabeko lekuan egon daiteke gizona bolada luzean, handik edo hemendik eta akaso beste zeruren bat agertuko zaiolakoan.

Infernuan ez, ordea. Behin infernuko marra iragan delarik, gizonak ez dio eutsiko lehengoari. Ezin izaten dio eutsi. Alferrik da. Horrelaxe izaten da hori. Horrelaxe izan zen golfeko bizimodu isolatuak Jaioneren irudia goitik behera mailagabetu zuenean ere. Bere etxeak Zoriona baino, Infernuko Marra behar lukeela pentsatu du Damian Arrutik. Infernuko Marra, horrelaxe, letra

Iarriz. Kaka zaharra. Infernuko Marra. Kaka zaharra, Zoriona.

Ezin dut gehiago, esan du azkenean. Eraman ezazu zeuk autoa esan dio Lupe Latasari. Zer gertatzen zaizu. Ezer ere ez. Ez dut ondo egin lorik. Eta autobus geltoki batean egin du bazterrerera. Ertzainen bigarren autoa dutela atzetik.

Gaixotu egiten naiz zuloan behera joan behar dudala pentsatze hutsarekin esan, eta leioa zabaldu du Damianek, arnas bila. Erraza izango da, zaude lasai. Neu joango naiz zeurekin. Non dago intermitentea, galdetu du Lupe Latasak, erantzunik espero gabe. Zaude lasai, ez da egongo arrisurik leizean behera joateko tenorean.

Damianek erakutsi dio lehenengo pitzatua. Ezkutuan behar zuen horrek. Eman dio emakumeari ahuleriaren berri. Hasi da, harrapatu baino lehen, ehizari iheserako aukerak ematen. Baina egiazki ehizatu nahi al du, bada, Lupe Latasa. Ez ote betiereko jarrera soil bat. Ez ote du hori gizonak beti berezko. Tximuen artekoaren antzeko.

Zergatik ote du gizonezkoak horrelako gauza bat beti berarekin. Emakumea ehizatu beharra. Emakume ederra harrapatu ahal balu bezala jo-

katu beharra. Izango bada. Gizonezko izango bada.

Zein maila ote dauka berak Lupe Latasaren begientzat. Ezberdina ote da merezitako sailkapena pitzatua hain argi erakutsi baino lehen eta ondoren. Ala, emakumeek ez dute gizonek bezala funtzionatzen. Ez du oraindik ikasi nola egiten duten. Lehenago errazagoa zen hori, pentsatu du. Gizona ona eta langilea izatearekin aski zen bere gurasoen garaian. Hala esana zion amak, aita zintzoa eta ona zela. Gizon ona zela. Horregatik esposatu zela berarekin. Ez zion sekula esan bere aita ederra zenik. Gizon ederra zenik ez zion sekula esan, bere aita.

Aldatu egin dira gauzak, ordea. Nola egiten dute, baina, gizona aukeratzeko. Zeri ematen diote gaurko emazteek baliorik. Begiei. Bularrari. Ipurdiari. Ahoari. Ikasten ahal da hori sekula, ehun urte bizi izanda ere. Jakiten ahal du gizonak inoiz emakumeek nola duten arra ikusten.

Damianek kafea eta Dexedrinaren nahasketari egotzi dio, azkenean, hainbeste pentsamendu ganoragabekoren aztoramena.

Polloeko gorputegian hotz egiten du. Hotz egin behar du gorputz ia izoztuak erabiltzen dituzten lekuan. Damian, Lupe eta ondoren zetozkien er-tzainak iritsi direnerako, han ziren Urrutikoetxea tenientea eta Larrañaga forentsea. Damianek ar-nasa apur bat hartu du autotik gorputegiko ata-rirainoko bidean. Baina gero berriro itolarritu da, korridoreetan barrena hartu dutenean. Mukiza-pia atera du, bekokiko izerdi hotza xukatzeke eta zintz egin du ondoren. Alferrik. Ez dira mukiak. Beste zerbait da itotzen duena eta urdaila eta bi-riken arteko tartean dago bizitzen jarrita. Berez hutsik eta ezer gabe behar lukeen lekuan. Ala, buruan dago gorputz osora zabaldu eta erabat indargabetzen nauen odol gaiztotu honen iturria. Egin dio galde bere buruari.

Larrañagak hozkailu baten tiradera handia erakarri du. Mahai gurgildun antzeko zerbait da. Gorpukiak daude agerian, emakume baten gor-pua osatu ezinik, piezak falta zaizkion puzzle ha-ragizko baten antzera. Ala okela esan behar zaio hildako haragiari. Hala balitz, puzzle okelazkoa behar litzaiokeela esan, deliberatu du Damianek.

Ez esku eta ez bururik. Gainerako atalak, elkar-tze ezinezko batean hurbildurik. Ezer ez du ikusi Damianek batasuna eta osotasunaren hain kontrakoagorik sekula.

Mangas eta Leniz ertzainek, handik erretiratu egin dituzte begiak, gorpua ikusi eta gero. Ezin izan diote aurrez behatu ikuskizunari. Hormeta-ko afixa handi batzuetan dituzte begiradak ezarriak. Eta goregi dauden leiho txikietan ere bai. Ez dute gogoko eskaintzen zaien agerikoa. Bista-koa da hori. Urrutikoetxeak ere apartatu egin du begirada, horixe da Izarraizko leizean aurkitu genuen guztia, esan eta gero. Zer iruditzen zaizue.

Lupe Latasa, Larrañaga eta Damian Arruti, ostera, hurbildu egin dira zatietara. Larrañagak latexezko eskularruak luzatu dizkie beste guztiei. Polizia-etxean esan dizuedanaz gain, ez dugu aurkitu ezer apartekorik.

Damian Arrutik hiru gizonezkoen haziaren arrastoa non ote den begiratu du, baina ez du aztarnarik kausitu. Non duzue mikroskopioa. Laginak behar ditut zati bakoitzetik, esan du gero.

Lenizek eta Mangasek, kanpoan itxaron ote dezaketen galdetu diote Urrutikoetxeari belarri-

ra eta atetik kanpora joan dira, zurbil, nagusiak baiezko keinua egin dienean.

Damianek pena dela esan du. Lehenago deitu behar ziotela, gorputzaren zatiak hozkailuan hoztu eta intsektuak betiko aldendu aurretik. Gorpuaren berezko bilakaera eten aurretik. Orain zailagoa daukala egin beharreko lana. Polikiago begiratu beharko duela. Denbora beharko duela hildakoaren heriotza eguna zehazteko. Edo behintzat, zati guztiak egun berean bota zituzten ala ez erabakitzeko. Lehenengo egin beharrekoa, leizeko baldintzak aztertzea izanen dela eta, ondoren, mikroskopiora itzultzea.

Larrañaga puzzlea beste era batera osatzen hasi da mahai gainean. Orain zati guztiak azpiko z gora jarri nahi ditu, atzealdetik ere ikusi ahal izan dezaten emakumearen gorpua. Lehenago bularrak eta sabelaldea ageri bezala, emakumezkoaren ipurdi masailak eta bizkarra dira ikusten. Izter eta zangoak, atzeko aldetik.

Besoetako baten azaleko aztarna bati erreparatu dio Damian Arrutik orduan. Ezkerreko besoari atzeko aldean, ukondotik hurbilago, galtzarbetik baino. Lupa hurbildu eta, baina nola liteke,

esan du. Ez da posible. Ezin liteke, behin eta berri-
z. Aztoraturik. Itzulinguru bat egin dio gorpu-
kiak biltzen dituen mahaiari, presaturik. Berriro
behatu dio ezker besoko azalari. Ezin liteke, esan
du ehungarrenez. Ezin liteke. Hau ez da egia,
egin du oihu. Eta biraoa bota du. Kaka putza
esan du ozen. Bai. Kaka putza. Horixe.

Zer gertatzen da, galdetu du Urrutikoetxeak
eta zer gertatzen zaizu galdetu dute beste biek.
Zer gertatzen da. Zer ikusi duzu.

Begiratu honi, erantzun du Arrutik. Begiratu
honi arretaz. Eta luparen beiratik harantzago be-
giratu dute guztiek.

Ez dugu ezer ikusten. Hor ez dago ezer na-
barmenik.

Begiratu ondo, agindu die Arrutik, begiratu
ondo.

Baina alferrik. Inork ez du deus ikusi.

Horko marka hori oso bitxia da, esan du azke-
nean Damian Arrutik. Harrigarria. Behatu adi.
Phophyla bahii izeneko eltxo txiki-txiki batek
eragiten du. Orbainak beti hartzen du itxura
bera, sukaldean erabiltzen den iltze-kanelarena.
Pospolo buru baten neurrikoa. Ez da inoiz ezaba-

tzen. Ezin da. Kirurgia erabili gabe ezin da sekula ezabatu azalaren gainetik. Behin eltxoak heldu duelarik, zauria gaiztotu egiten da. Zornatu. Arrasto horixe uzten du intsektuak. Betiko.

Nik ez dut ezer ikusten, gehitu du Urrutikoetxeak.

Bai, ikusten dut esan dute Lupe Latasak eta Larrañagak. Txiki-txikia da. Lore edo arrosa nano bat dirudi.

Ez, ez du arrosaren itxurarik. Espeziarena bai. Iltzearena. Entomologian ezaguna da hori.

Eta zer, galdetu du Urrutikoetxeak.

Eta zer, eta zer diozu, esan du Damian Arrutik. Harrigarria da horrelako seinalea gure artean aurkitzea. Intsektua Itaparika irlan bakarrik bizi da, Brasilen, Salvador de Bahiatik hurbil. Han bakarrik sortzen den onddo txiki baten bizkarroi izanez bizi da *Phophyla bahii* eltxoa. Ez da beste inongo lekutan aurkitu sekula halakorik.

Eta zer, galdetu du berriz Urrutikoetxeak.

Damian Arruti erantzun gabe geratu da, biraoka eta purrustaka.

Zer duzu gizona, zer duzu horrela jartzeko, esan dio Lupe Latasak.

Zer dudan, kaka zaharra dut, kaka zaharra. Horixe. Burua eta eskuak aurkitu behar dira lehenbailehen. Goazen leizera.

Baina zerk aztoratzen zaitu horrela, berriro Latasak. Leizera ez gara joaten ahal bizpahiru egun barrura arte. Dena antolatu beharra dago, hara joan aurretik.

Zer du apartekorik honek, galdetu dio orduan Urrutikoetxeak, Arrutiren aztoramendua endelegatu ezinik.

Ezagutzen al duzue besagainean halako orbaina daukan emakumerik, galdetu du Damianek. Ikusi al duzue sekula halako marka daroan emakumerik. Eta ezetz erantzun diote guztiek. Entzuterik ere ez zutela halako orbaina uzten zuen intsektuarenik.

Bada, nik bai. Nik ezagutzen dut halako lekuan halakoxe orbain bitxia daukan emakumea. Edo zeukana, ez dakit nola esan behar den. Nik ezagutzen dut mahai gainean datzan emakume hori. Kaka zaharra.

Eta eskularruak kenduz, aterantz hartu du Damian Arrutik, beste hiruren aurretik. Arnasa apur baten bila.

Endo

3

Argosek esnatu du katean zaunka. Golf jokalariren baten pilota etorriko zen hegaka, urki eta haritzen artetik. Eta zakurra izutu. Nor ez da, bada, izututa biziko balak bezala etortzen diren pilota horiekin, pentsatu du Damian Arrutik. Aukeran hobeak dira balak pilota gogor horiek baino, gainera. Txikiagoak dira behintzat.

Alboan eder eta luze daukan Lupe Latasari, zer egiten duzu nire ohean galdetzeko gogoia etorri zaio Damiani, baina isilik geratu da. Gaztea zara nire aldean esateko gogoz ere geratu da. Ederragoa ere bai. Eta seguru asko garbiagoa ere bai. Baina ez du fitsik esan. Horren lekuan, jaikitzea erabaki du eta kafeontzia jarri du sutan.

Zer esan. Zer usteko du. Nondik abiatu. Zein hitz hautatu ahotik lehena jaurtitzeko. Nola gertatu da. Nola esaten zaio emakume bati bakar-dadearen harresietara gozo ohituta dagoela gi-

zona. Babesturik. Golfeko pilotengatik izan ezean, erabatekoa izaten dela bakea Zorionan. Nola esaten zaio, emakumea zauritu gabe, lilurak agortu zirela betiko. Nola adierazten ahal da egia, gezurrik esan gabe. Nola jakinarazi dena hitzak hautatzeko nekean aspertu gabe.

Hitz egidazu euliez Damian, esan dio Lupe Latasak mahaira eseri denean. Egunonik ere gabe, nola izaten da hori. Besterik ez dio esan.

Ederra dago Damianen pijama urdinarekin. Ederra dago orraztu gabetan ere. Ederra dago sukaldearen leihoko argitan. Ederregi, aukeran.

Zortzi eskuadra. Zortzi izaten dira desagertu artean gorpuak ezagutzen dituen intsektu eskuadrak. Zortzi gudaroste bata bestearen atzean. Erantzun dio Damianek, eta poztu egin da euren bien kanpoko gai ezagun bat jarri diolako aukeran. Aukera infinitua, gainera, Damianek beste dakienarentzat.

Heriotza gertatzen den instant berean hasten da usteldura. Hesteetan eta gorputz osoan bizi diren bakterio eta onddoek, abian jartzen dute prozesu kimikoa. Ugaldtu egiten dira sustantziok, neurrigabeki. Bide linfatikoetan eta odolean ger-

tatzen da hori. Lehenik mikrobio aerobioak abiatzen dira bertara jateko bila. Mintzetako oxigenoa agortzen denean, ordea, anaerobioak hasten dira lanean, albuminetatik osagai kimiko soilak sortzen eta sortzen. Hortxe hasten dira usainak: azido karbonikoa, hidrogenoa, amoniakoa eta hidrogeno sulfuratua. Pentsatuko duzunez, usainaren gozora fauna ugaria hurbiltzen da. Gertariako arranparrillen usaina guretzat bezain ederra da haientzat.

Denak haraxe: euli eta bestelako, baina batez ere, euliak, bakoitza bere egokierako tenorean. Hala ere, usainak hasi baino lehenago agertzen dira beti lehenengo eskuadrako euliak.

Ikusi al duzu noizbait naturari eskaintzen zaion dokumental horietakoren bat telebistan, galdetu du Damianek eta buruarekin baietz egin dio Lupe Latasak, beste ezer ihardetsi gabe. Adidi dago, gizonaren hitzetan kulunkaturik. Eta jabetzen da. Bai, jabetzen da ez zaizkiola sekula jakingarri egin zomorroen kontuak. Bizitza osoa pasatuko zukeela haien albiste txikienik gabe ere. Berdin zatekeela gizon haren ahotik perretxiko edo nabigantza hitzak irtengo balira, zomo-

rrero kontuen ordez. Futitzen dela eulien gaiaz, baina ez horrela eulizaleaz. Ez dakiela zergatik, baina ikusten dizkion bi begien atzean, badela lurralde bat, kez betetakoa. Erakargarria. Ezkutukoa. Parean daukan gizonaren barneko geografian gordeta.

Damianek jarraitu egin du bere gaiarekin. Ohartuko zinen orduan, esaterako, gepardo batek oreinen bat harrapatzen duen instant berean, nola ageri diren euliak eta bestelako zomorroak haren odoletara hurbilduak. Saiak baino askozaz ere lehenago. Pentsatu al duzu sekula nola gerta litekeen halakorik. Pentsatu al duzu inoiz zergatik eta nola agertzen diren intsektuak gorputza gorpu bihurtzen den une berean.

Eta ezetz egin dio Lupe Latasak buruarekin.

Orduan jaiki egin da Damian kafeontzia amatatzera eta kafea nolakoa nahi duen galdegin dio emakumeari. Esnerik edo azukrerik nahi ote duen. Zuk hartzen duzun bezalakoxea hartu nahi nuke, izan da arrapostua. Ez dakizu, ordea, kafea nola gustatzen zaidan niri, erantzun dio Damianek. Arrisku apur bat beti da on, bukatu du Lupe Latasak irribarrez, eta azukre eta esne

gabeko kafe beltz katilu bi jarri ditu Damianek mahaiaren gainean. Batere azpilik gabe. Ondotan, plastikozko zorroetan gordetako madalena batzuk.

Nola gertatzen da hori, heldu dio gaiari berriro emakumezkoak. Nola liteke hildako instant berean zomorroak gorpuaren gainera etortzea. Nola jakiten dute. Nola iristen dira hain azkar. Ezinezkoa dirudi. Eta bi madalena zorroetatik aterata, kafe mikatzetan busti ditu ahora eroan aitzinetik.

Beti ez da horrela izaten, Damianek. Heriotza berezkoa eta bat-batekoa izaten denean, denbora gehiago behar izaten dute euliek gorpura hurbiltzeko. Lehen esan dizkizudan usainak irteten direnean jasotzen dute horretarako informazioa euli gehienek. Baina heriotza espantuz gertatzen bada, izuaren adrenalina bost kilometro t'erdira nabari dezaketen zomorroak ere badira. Oreina hil baino lehen jakiten dute oreina hil egingo dela gepardoarekiko lehian. Animaliak lurra jo orduko, hantxe dira. Instant berean. Bazkarako prest.

Ikaragarria da. Ez nuen sekula pentsatuko.

Lehenengo eskuadrako euliak usainak hasi baino lehen agertzen dira, beraz. Batzuetan hilzorian dagoenarengana ere joaten dira, albistea eman bezala, baina normalean intsektu guztiak ez dira horiek bezain azkarrak izaten eta heriotzaren usaina sentitu behar dute inora abiatzeko.

Zeintzuk izaten dira lehenengo eskuadra horretakoak. Zeintzuek dute halako trebezia nazkagarria.

Musca domestica, *Curtonevra stabulans*, *Calliphora vomitoria* eta *Anthomya vicina*. Eurak hasiko dira lehenbizi gorpua jaten. Izen horiekin ez dituzu ezagutuko agian, baina ederki asko dakizu zeintzuk diren. Eulirik arruntenak dira. Denen artean ezagunena etxeko eulia da, *Musca domestica* hori. Likido organikoak jatetik bizi da. Simaurretan pausatzen da, edo zaurietan, ezpain, sudur eta betazal ertzetan, beti janari busti bila. Izerdia ere gogoko du.

Higuingarriak dira.

Niri ez zait hala iruditzen. Niretzat animalia ikusgarriak dira eta arretaz begiratzuz gero, eder-
ederrak.

Gorpuen barnean jartzen ditu etxeko euliaren emeak arrautzak eta hamabi ordu baino lehen, bi mila euli berri jaiotzen dira. Bikote bakar batek, udan zehar lau mila trilioi euli sor litzake, teoriaran.

Hala ere oso baldintzatuta egoten da hori. Gorpua eguraldi berotan edo leku hezean aurkitzen bada, prozesu guztia azkartu egiten dute bakterioek. Hotz egiten badu ostera, gorpua elur gainean baldin badago adibidez, prozesu guztia geldotu egiten da. Erabat gelditu ere egin liteke, zenbaitetan.

Eta leize zulo batean aurkitzen denean, galdetu dio Lupe Latasak, zer gertatzen da orduan. Zer gertatzen da gorpu bat lur azpiko zulo batean laurogeita sei metrora dagoenean.

Ez dakit. Liburuetan ez du jartzen horrelakorik. Sekula ez dut antzerako baldintzetan egon den gorpurik aztertu. Dena dela, asko dira kontuan hartu behariko ditugun gauzak. Iluntasuna, esaterako. Edo kobazuloko hozbero konstantea. Eta hango hezetasunik eza. Lehengo egunean jaitsi ginenean harriturik geratu nintzen halako leku lehorra topatu izanaz. Ez nuen uste. Kontra-

koa izango zelakoan nengoen. Hezea izango zela. Baina ez.

Hamalau gradu egiten du han, hori badakizu. Uda eta negu.

Bai, uda eta negu. Baina hezetasuna ez da beti bera izango, hala ere. Leizearen hondoraino jaitsi ziren espeleologoek esan zutenek, erreka bat dago azpian, hogeit metro beherago. Udan eta neguan ez da urez berdina etorriko, segurua, eta horrek eragingo dio hango hezetasunari.

Zer esan nahi duzu.

Badirela aurkitutako gorpuaren antzintasuna zehatz erabakitzekeo zailtasunak. Gainera, autopsiaren ondorioei begiratu beharke diegu berri. Koipe, albumina eta amoniakoaren egoera aztertzea behar dugu. Batzuk edo besteak gehiago izanda, usainak ezberdinak baitira, eta intsektuak ere halaxe. Gorpu zatiak jaso zenituztenean zein eskuadratakoak zebiltzan ikustea baizik ezin dugu egin. Plastikotan gogor bilduta egoiteak ere, bidea itxiko zien lehenengo eskuadrakoei. Dena atzeratuta etorriko zen. Ez da erraza izan denbora zehatza erabakitzea.

Plastikoen urratuetatik sartuko ziren zomorroak.

Hala da. Baina ez nago segur data zehatza ateratu dezakegunik. Egin dezakegun gauza bakarra, giharrak eta mintzak aztertu eta Polloeko hozkailuaren hotzak akabatu dituen intsektuak zein eskuadratakoak diren ikustea da. Edo zein intsektuk jarri dituen arrautzak bertan begiratzeari. Ezin dugu besterik.

Gutxi gorabeherako bat bederen emango digu horrek.

Zeuk esan duzu: gutxi gorabeherako hurbilketa bat. Ez besterik, Lupe.

Orain emakumezkoa da bigarren kafeontzia sutan jarri duena. Dutzatu berria dago eta bere arropak jantzirik, sukaldeko bazter guztietara behatzen du. Ez dago zikinik edo desordena handirik, baina nabaria da gizon baten habia dela etxea. Gauza txikiek erakusten dute hori, zabor-ki tolestutako ezpain-zapieak eta gorderik behar luketen aizto eta tresna dirdaitu guztiak agerian eta zintzilik egoteak, bereziki. Bai, etxe ho-

rretan emakumerik gabeko gizona bizi dela erabaki du Lupe Latasak eta irriño batek argitu dizkio begiak. Gaur larunbata da, pentsatu du gero.

Emakumeak gizona entzun du komunean. Entzun du dutxan. Ura nola doan entzun du. Gizona uraren azpian irudikatu du. Ura irudikatu du gizonaren gainean. Ura adatsetan behera. Ura azalean behera. Ura zangoetako biloak etzana-raziz. Ura behatzenartetik ihesi. Eta ez dakiela zergatik, leihoko argiari behatu dio. Argi garbia, zuri-zuria, Larrun aldeko eguzki ederrak goizean goizetik ekarria. Hasperen batek egin dio ihes golfeko zelaietako bakea ikusi duenean. Larre zainduetako berdeak belar garbizko itsasoa dalkarkionean.

Golf jokalaria ageri dira urrunean. Kolorezko txindurri dotoreak. Entzun ere egiten dira kolpe lehorrak. Tak. Burdinak jotzen du harria. Tak han eta tak hemen. Baina ez da entzuten pilotek lur-raren kontra jotzen dutenekorik. Balirudike mundura itzultzen ez diren pilotak bakarrik jaurtitzen dituztela airera golf jokalariek. Indar guztiez. Tak eta tak.

Lupe Latasak harrigarri eroso sumatzen du bere burua etxe hartan. Zorionan. Hangoxea baiditzen. Dena dago isilik. Dena da argi. Dena da eroso.

Gelara doa sukaldetik. Hantxe ditu bere gauzak: poltsa bat eta kapusaidun jertsea. Hori da guztia. Ez dauka besterik han. Bigarren irriño batek egiten dio ihes begietatik, bardako galdera etortzen zaionean gogora. Non gordetzen duzu zera hori, galdegin zion Damianek. Zera hori deitu zion Damianek pistolari. Ertzainek gainean derrigorrez eraman beharreko iskiluari. Poltsan, erantzun zion berak eta orduan Damianek emakumeen poltsak beti izan direla misterio-tsua gizonezkoentzat esan zion. Misterioz besteak direla emakumeen poltsak, horixe esan zion zehazki.

Ohea estali du izaraz Lupek. Ohea estali du edredoiez. Ondo gorderik gera dadin gaueko arrastoa. Armairu eder bateko ispiluan islatu zaio bere burua eta, ustekabean, eder du ikusi. Atzo baino ederrago. Aurpegian du seinale. Aspaldian zen egin gabe. Ez da erraza polizia den emakumezkoarentzat. Ez da erraza izango ino-

rentzat, pentsatu du gero. Adin batetik aurrera. Eta ileak eskuz taxutu ditu ispiluaren aurrean, batere presarik gabe, keinu bakoitzerako behar besteko denbora hartuz.

Kafea. Kafea ahaztu zait sutan, eta pauso azkarrez itzuli da ostera sukaldera. Katiluak harraskan utzita, kikara bi atera ditu mahaiaren erdira. Azpiko platertxo eta guzti. Azukre ontzia haien alboan. Gizona entzun du komunetik itzultzen. Atetik sartu baino lehen iritsi zaio Balenziagaren lurrina. Bizarra kendu ostekoarena.

Irakin egin du, esan dio gizonari. Ez naiz konaturatu. Kafe irakindua, kafe galdua, edo halako zerbait. Irriz baina hitzik esan gabe, Damianek harraskako katiluetako bat garbitu du txorrotaren azpian eta zapi batez zukatu ondoren, mahaiaren gainean jartzen du. Mutil zaharraren ohi-turak dira Lupe, nik beti hartzen dut etxeoko kafea katilu handi hauetan eta hutsik. Beste ezer gabe.

Lehenengoa, pentsatu du Lupek, lehenengo hanka sartzea. Inoren etxean agindu nahi izatea. Inoren etxean, ez dagokion aurrea hartzea. Era-kutsiko didazu zure bilduma esan dio gorriturik.

Esan dio ihesi. Entzun dudanez Espainiako handienetakoa da.

Ez dakit Espainiako berri erantzun dio Damianek, hori haiek jakinen dute. Baina hala nahi baduzu, erakutsiko dizut. Euskal Herriko bildumarik handiena da, hori bai, baina ez zaizu, hala ere, batere gustatuko. Biologoa edo antzeko zerbait ez den ia inori ez zaio atsegin gertatzen nire euli bilduma.

Bigarren hanka sartzea, pentsatu du Lupek. Hori ere esana zioten. Abisatuta zegoen. Damian Arruti oso euskalduna zela esana zioten. Neurri bakarreko gizona zela. Baina, zergatik ez zait gustatuko, galdetuz erantzun dio. Zomorroak ez zaizkio mundu guztiari atsegin. Euliak are gutxiago, Damianek.

Ikusiko dugu hori, erantzun eta musu bat pausatu dio bekokian Lupek mahaitik jaiki ahala. Ikusiko dugu hori. Nola gordetzen dituzu hainbeste euli.

Bizirik gorde ahal direnak bizirik. Beheko getetan dauzkadan alanbrezko kaiola handi batzuetan. Gainerakoak alkoholetan, formoletan eta lehorturik. Azken hauetatik hiru mila eta berrehun

eta hogeita zazpi mota. Denak sailkaturik. Bizirik, oster, gure baldintzetan bizi daitezkeen espezieak baino ez.

Zer jaten dute.

Zuk zer uste duzu.

Ez diezu, bada, ekarriko giza-gorpu usteldurik, dio Lupek irribarrez.

Damianek algara egin du eskaileretan behe-
ra doazela. Bai, egunero gorpu bat lapurtzen dut
gorputegitik, ertzain anderea. Aitor dut. Eta ahal
dudanean bi edo hiru ekartzen dizkiet, aukera-
ren arabera. Aseezinak dira euliok. Eta, hartu,
jantzi hau, esanez, burutik behera janzteko erle-
zainaren kaskoa luzatu dio deblauki.

Ez dute kosk egiten baina bat baino gehiago
ikusia dut hemendik erotu beharrean tximista
baino azkarrago irteten. Burrunbatsuak izaten
dira oso euli hauek. Ohiturarik ez daukana izu-
tzeko modukoak. Eta beheko geletan sartu dira,
eulien bizilekuetan barrena.

Azkenean bakarrik. Beti bezala bakar-bakarrik.
Batzuetan zaila du gizonak aberri hoberik. Bildu-

ma ikusi ostean, Lupe Latasa joan egin da. Polizia-etxera agertzera behartuta zegoela, larunbata izanagatik ere. Hobe horrela, pentsatu du Damianek, baina damu da gauean afaltzeko adostu duten hitzorduarekin. Zeharka eta nahi gabe etorri zaio eskaera. Zer duzu gaur egiteko, galdegin dio Lupek. Gaur larunbata da. Ezin izan dio ihes egin emakumeak botatako sareari. Harrapatu geratu da, sardina bezala. Etxalarko usoa bezala.

Etxean nahi zuen egin afaria Lupek. Damianen etxean. Zorionan bertan. Berak paratuko zuela afari goxoa gauza guztiak ekarrita. Ertzaina izan ezean, sukaldari nahiko zukeela. Eta iji. Eta aja.

Hori bai ezetz erantzun dio Damianek. Nahi baduzu kanpoan afalduko dugu, baina nire etxean inola ere ez. Ezagutzen dut Hondarribian ostatua zabaldu duen sukaldari frantses gazte bat. Eta baietz Lupek. Bederatzietan etorriko zaiola bila eta egoteko prest. Berak gidatuko duela autoa. Alkoholemia kontroletan arazorik ez edukitzeko. Eta iji. Eta aja. Eta mua eta mua. Eta agurrik ez. Gero arte. Kaka zaharra gero arte.

Kaka zaharra eta kaka zaharra. Zer egiten dut nik berriro inorekin katramilatzen, galdetu dio bere buruari Damianek. Zer egiten dut Jaionerekin ibilitako bide beretan ostera abiatzen.

Ez naiz lehengoa. Nekatuta nago. Hiltzen ari naiz. Zaharra nago. Zer esango dute halako gazte batekin ikusten nautenean. Ertzaina, gainera. Ondo nago bakarrik. Bardakoak ez du garrantzirik. Egiteko gogoia sartu zitzaigun. Egin eta kito. Hor ez dago besterik. Ezin da egon besterik.

Larriuneetarako hortxe dago Véronique. Ziburuko zoroa, Véronique. Lagun bakarra Véronique. Surik batere gabeko beroa. Itotzetik ateratzen nauena. Batere arriskurik gabea. Véronique. Maite maitea Véronique. Ni bezain galdua Véronique.

Damianek Argos askatu du katetik eta Olamendiraino hurbildu da erosketen zerrendarekin. Ez du etxetik inora irten nahi. Are gutxiago dendara. Etxean nahi du geratu, bakar-bakarrik. Egun osoan. Larunbat osoan. Ez du deus egingo. Etzan egingo da. Etzanda egongo da egun osoan. Besterik gabe. Ez du telebistarik piztuko.

Ez du libururik irakurriko. Kendu egingo du telefonoa. Ez du begirik ireki ere egingo. Ez du ezer pentsatuko. Hilda egoten hasiko da ikasten. Ez besterik. Garaia iristen denerako.

Katalina eta Moises arduratuko dira. Berak ez dauka inorako gogorik. Egunon Moises. Egingo al didazue mesede, esan dio. Hauxe da zerrenda. Katalina agertu da orduan atetik eta frantsesak emandako telefonora deitu al duen galdetu dio. Emakume ona dela frantses hori-eta. Baietz, Damianek. Ez duela deitu baina deituko duela, Damianek. Lore dozena bat ere ekartzeko, Damianek. Ahal baldin bada, gerberak izan daitezela, Damianek.

Itzuleran, Argos eutsi behar izan du lepokotik, golfeko belarra zaintzeko botatzen dituzten untxi horietako baten ondoren joan ez zedin. Gero eulitegian sartu da eta hango hozkailutik txahal birika batzuk atera ondoren, urki batetik zintzilikatu ditu eguzkitan desizoztu daitezen.

Argos, ez utzi inguruko katuei arrimatzen agindu dio zakurrari, baina honek ez dio deus ulertu eta lorategirantz hartu du, bere egin beharrekoak egitera, seguru asko.

Etxean nahi zuen afaldu, gainera, Lupek. Jaione eta bion etxean. Gu biontzat eraikitako habiaren erdian. Zorionan. Jaione. Jaione. Zer egiten duzu Polloeko mahai gainean zatiturik. Nork egin dizu hori. Zergatik, Jaione. Zerk eraman zaitu gorputegiko helmugaraino. Nola iritsi zara horraino.

Eta hiru gizon irudikatu ditu biluzik haren inguruan. Ez daki. Ez daki haren inguruan ala haren zatien inguruan. Ez daki xuxen. Inork ere ez daki. Jakin nahi luke. Baina gehiegi da hori. Gehiegi da bera bezalako gizon batentzat. Gehiegizkoa da emazte ohiaren irudi zatikatua. Gehiegizkoa da dena. Gehiegizkoa da Jaionek Donostiara itzuli zenean hartu zuen hastapeneko bidea, eta gehiegizkoa da bukaera. Amaiera zatikatua. Irakurri dituen eleberri guztietan ere ez du kausitu halakorik, antzeko izugarrikeriarik. Hainbesteko jasan ezinezkorik. Ez dago irudimen nahikorik. Ez dago ulertzerik, inola.

Astebete lehenago, Damian Arrutik emakume haren gorpua ezagutzen zuela esan zutenean, Urrutikoetxea tenientea izan zen lehenen-

goa halako gauza bat guztiz burugabea zela erantzuten. Ezinezkoa zela halako seinale txiki batetik gorpua nori zegokion ezagutzea. Deuse-tarako ez zuela balio horrek. Nola ezagutuko duzu aurpegirik gabeko gorpu bat, esan zion.

Bide beretik erantzun zioten Larrañaga foren-tseak eta Lupe Latasak ere, gorputegiko sala na-gusian: hatzik ere ez dauka, hatz markarik ere ez, beraz. Zure hitzek ez lukete fitsik balioko ino-ren aurrean. Horixe esan zuten.

Zati horiek guztiak Jaionerenak dira, erantzun zien Damianek aztoraturik, eta instant batez pen-tsatu zuen giza haragia ezer ez dela arnasarik gabetan. Eulien bazka soila, ez besterik. Giza gorputza era hartan zatituta ikustea izan zite-keela modu bat edonor betirako umiltzeko. Han-tuste irmoenak birrintzeko. Bai, horixe pentsatu zuen Damianek eta, ADN froga, esan zuen ondo-ren ilunpean argia topatu izan balu bezala. ADN froga egin dakioke eta horrek erakutsiko dizue emakume hori, zati horiek guztiak, Jaione Lizar-tza deitzen zen emakume batenak direla. Nire emazte ohiarenak, alegia.

Hori film amerikarretan, erantzun zion Urruti-koetxeak hotzegi. Hemen ez da aukera handiegirik izaten halako frogak egiteko. Garestiak dira eta epaileen agindua behar da horretarako. Inongo epailek ez du hori aginduko zure uste soila sinesteagatik. Kea baizik ez dira zure hitzak, legegizon batentzat.

Damian Arrutik ez zuen sala hartatik berriro itzuli nahi gorpuren ondora, baina ziur zegoen hango gorpuki haiek guztiak Jaionerenak zirenetz. Seinale gaiztotu eta txiki hura, *Phopyla bahii* baten helduak egina zela eta juxtu Jaionek zeukan leku berean zegoela kokaturik. Heldu haren errua, berea, Damianena, izan baitzen eta ederki gogoratzen baitzuen noiz eta nola gertatu zen.

Emakume hori nire emaztea izan da hiru urtez, esan zien. Horren azaleko lerro denak ditut ezagutzen. Gizonak badaki ederki nor ibili zaion petik biluzgorririk. Emakume hori Jaione da eta horretaz zalantzarik baldin baduzue, aurki ezazue Jaione behingoz. Hilabeteak dira ez daukadala haren berririk. Jo beraren amarengana, hark ni ez nau hartuko eta. Harekin bizi zen az-

kenekoz Jaione, berarekin mintzatu nintzenez. Handik hona izango dira sei hilabete, gutxienez.

Horixe egingo dugu lehendabizi, erantzun zion Urrutikoetxeak eta irten egin ziren denak Polloeko gorputegitik.

Kanpoan ziren Leniz eta Mangas ertzainak zain. Ezer berririk bai tenientea, galdegin zuten eta ezetz erantzun zuen Urrutikoetxeak, hari mutur hauskor bat baino ez zutela esku artean. Horixe erantzun zien, hari mutur hauskor bat. Eta ikaragarria begitandu zitzaion Damiani bere aztoramen guztia hari mehe eta hauskor batean biltzea.

Hala ere, hortixe egin beharko dugu tira, ezertarako balioko ez badu ere. Jaione Lizartza izeneko baten bila hasi behar duzue oraintxe bertan. Bere ama Prim kaleko 23.ean bizi ei da, Arruti jaunak esan digunez. Zoazte lehenbailehen.

Damianek bere Wranglerraren motorra isiotu zuenean, Lupe Latasak esan zion leihatilatik: etzi joango gara leizean behera, dena edukiko dugu prest ordurako. Zaude lasai, dena konponduko da eta.

Zaude lasai, zaude lasai, kaka zaharra, zaude lasai, pentsatu zuen Damian Arrutik eta inori adiorik egin gabe hartu zuen maldan behera zihoan bidea, hiri aldera. Nahikoa zeukan egun hartan bizi izandakoarekin eta nahikoa zeukan une batetik bestera gainera etorriko zitzaion ito-larriarekin. Hala ere, ez zegoen kexatzeko moduan. Jaionerekin alderatuta ez, behintzat.

Etxeko bakardadean etzanda eta begiak edonon galduta zituela, hildako emakumeak estaltzen zion gauean bere alboan eduki zuen bestearen pentsamendua. Hildakoak ezkututzen biziduna. Gorpuak, gorputza. Hotzak, beroa. Emakume zatituak, emakume osoa.

Luperen aurpegia ederra da oso, pentsatu zuen, baina Jaioneren aurpegia ikusi ezina bortitza goa. Present dagoenak baino agintzenago du ez dagoenak. Beteak baino, hutsak.

Lepo motozerratu hori. Eskutur zerratu horiek agerian. Gorpuki zatitu horiek denak. Nork egin dizu hori Jaione. Nor izan da urdekumea.

Mangas eta Leniz joan ziren, bai, Jaioneren amaren etxera haren galdean. Eta fitsik ez. Halaxe esan zion telefonotik Urrutikoetxeak, fitsik ere ez. Hilabeteak zirela Jaioneren albisterik ez zeukala. Ama-alabak haserre ibiliak zirela eta orain damutu egiten zela Jaione hain estu hartu izanaz. Ez zekiela non zegoen, ez zekiela non egon zitekeen. Noizik eta behin bere senar ohia- rekin, Damian Arruti izeneko alproja batekin, afaltzeko ohitura zeukala, hori baietz, baina ez zuela uste kalamitate haren etxera itzuliko zenik ostera bizitzera. Euliz inguratuta bizi da, esan ei zien Mangas eta Lenizi. Zomorroz inguratuta. Nor bizi liteke horrelako gizon baten ondoan. Zer gertatzen, da, zergatik zabilzate Jaioneren bila, galdegin omen zien ertzainei eta hauek, ez da ezer, ez da ezer, erantzun omen zioten. Ez da ezer, kaka zaharra, ez da ezer.

Telefonoa tirrinka. Ahaztu egin zaio desko- nektatzea. Ez jasotzea deliberatzen du, hala ere, eta erantzungailuan hasi da Jose Ramon Izpizua bere lagunaren lehenengo hitzak entzuten. Zer moduz, aspaldiko, esaten dio, bizi haiz. Non arraio habil. Aspaldi ez haiz agertu ostiraletako

gure afarira. Eta une horretan, Damianek telefonoa jasotzea erabaki du. Jose Ramon Izpizua du lagun handienetakoa, lagun maiteenetakoa, eta ikasia du honezkero, lagunak ere noizbehinka elikatu beharrekoak direla, sotoko euliak bezala, besterik ez bada ere.

Baietz esan dio, bihar igandez elkarrekin joango direla arrantzara. Goiz pasan. Eskertzen diola gomita. Baietz, goizeko zazpi eta erdietan hantxe egongo dela Hendaiaiko portuan prest, eta izango dutela astia nahikoa eta gehiago elkarren berri trukatzeko, aparexuak bota bitartean. Berdin diola ezer ez harrapatuta ere, kontua itsasora irtetea dela eta, aspaldiko partez, bi lagunak elkarrekin egotea. Horixe dela garrantzikoena eta, itxura batean bederen, ez duela euria egiteko asmorik. Egun ederra dagoela iragarrita. Klik.

Orduan bai. Orduan telefonoaren haria atera du bere lekutik. Ez dio beste inork deituko horrela.

Jose Ramon Izpizua, gutxi halakorik, pentsatu du Damianek. Gazte garaietatik gordetzen duen lagun apurretakoa. Pitokeria batengatik haserre-

tu eta elkarren berri jakin gabe ibili ziren urte batzuetan. Horregatik ez zen izan haren ezkontza eguneko ospakizunean. Ondoren, ordea, ez da damutzen bere adiskidantza berreskuratu izanaz. Gizon zintzoa eta hitza hitz duen horietakoa. Hondarribian jarri zen bizitzen, gainera, Izpizua. Guadaluperako bidean dagoen baserri zaharberritu batean. Eskutik eskura, beraz.

Izpizua lagun bihotzekoa. Lagun arkitektoa, Zoriona merke antzean jasotzeko erabakigarria izan zena. Lagun isila. Lagun umila. Ondo etorriko zaiola erabaki du Damianek Jaioneren gorabehera haiek guztiak baten baten belarrietan hustea. Baten baten belarrietan uztea. Izpizuari egoituko zaiola, kasualitatez bada ere, bere erraieran sartzen ez zaizkion kontuak jakitea. Izpizuak ere ezagutu baitzuen Jaione, bi bikoteek elkarrekin, hilean behin edo, antzina egiten zituzten afari haiek zirela medio.

Lupe Latasaren gorabeherarik, ostera, ez dio batere kontatuko. Lotsa emango lioke halako ezer aipatzeak. Oraindik ere nerabe baten antze-
ra dabilela erakusteak. Bazekien, hala ere, Izpizuak ez liokeela deus esango horretaz. Adi bai,

baina mutu entzungo lizkiokeela kontu horiek guztiak, begiak itsasoko uretan galduta. Beti izaten baitzen horrela: Izpizuak deus ez zuen jakin nahi izaten besteen bizitzetako gorabeheretz. Bereak ere ez zituen nehoiz partekatzen. Zernahitaz mintza zitekeen harekin, baina emazte edo emakume kontuak zirenean, deus esan gabe egoten zen entzuten, eta ondoren, aukera ikusitakoan, solasaren beste muturren bati helduko zion, kontatutakoa entzun ere egin izan ez balu bezala. Gertatu ere izan ez balitz bezala. Horrelaxe izaten zen hori Izpizuearekin.

Bihar ez dio deusik esango ez, Luperenaz. Jaioneri gertatutakoarekin aski izango da pentsatu du Damianek eta oharkabean, lo geratu da sofa gainean. Bakean behingoz.

Ate hotsak esnatu du. Zer den ikustera jaiki denean, mahai gainean ikusi ditu erosketak. Katalina izango zen, pentsatu du, atean entzun dudana.

Gerberak ere bai, dozena bat, loreontzian jarrita. Lore horiek atsegin zaizkio Damiani. Egitu-

ra perfektuak. Berdin zaio kolorea, izan gorri, hori edo urdin. Berak formak ditu atsegin: hanka eta lepo luzearen gainean, egitura borobila osatzen duen hosto sorta, elkarren gainean eta elkarren ondoan geometria egokian haziak. Eta erdian, eguzkia dirudien txanpon iletsua.

Paperezko zorro batean aurkitu duen oilasko txiki bat jan du hoztu baino lehen. Zabarki: egunkaria irakurriz eta zer jaten diharduen erreparatu ere egin gabe. Berdin dio horrek, berdin dio oilaskoa edo pauma izan, erbia, zerria edo balea. Berdin dio guztiak, kontua zerbait irenstea da. Gehiegi pentsatu gabe, gainera.

Leihotik egin du txistu ondoren eta Argos agertu da hezurak jatera. Zakur alferra, zakur alferrikakoa, hori bai, Ulisesena bezain fidela, pentsatu du Damianek, eta telebistaren parera joan da ondoren kafe katilukada bat eskuetan hartuta. Berdin dio horrek ere, berdin dio telebistak eskaintzen dion dena. Berdin dio publizitatea edo dokumentala izan, filma, lehiaketa edo elkarriaketa. Berdin dio, kontua zerbait irenstea da. Gehiegi pentsatu gabe, gainera.

Arratsaldeko argia umiltzen hastearekin batera, golf jokalaria zelairekin aldentzen diren tenorean, piztuko da apur bat Damian eta gaue-rako prestatzen hasiko. Poliki-poliki. Aurki Lupe etorriko da nire bila. Zer esango diot, pentsatu du. Nola sartu naiz joko honetan. Zer usteko du. Nola nago berriz ere leku berean harrapatua.

Telefonoz deitu nahi nizun banatorrela esateko baina ezin izan dut, ez dakit zer gertatzen den gaur telefonoekin, esan dio Lupek Damiani, atarian artatzera joan zaionean. Berdin dio, erantzun dio Damianek, eta ondoren aperitifa etxean hartu nahi ote duen egin dio galde. Baietz emakumeak.

Beste bat ematen du Lupe Latasak. Ederraren ederrez itsustua. Ilea apaindegian aldatuta ekarri du, begiak eta ezpainak margotuta. Pistatxo koloreko soineko luze bat azpian eta gainean ile artifizialez eginiko larruzko beroki motza. Oinetan, takoi luzedun zapata ubelak. Ezkontza batera datorrela iruditu zaio Damiani, eta Lupe Latasak ez duela oraindik ikasi, bera bezalako gizonek gizonaren neurria soilik edukitzen dutela antolatuta gustua, eta ez ile apaindegietako al-

dizkarien arabera. Ez duela ikasi prestatze gehiegizkoak kalte egiten diela zentzumenei. Apur bat nahikoa izaten duela emakumeak, berezkoa estali gabe, gizonaren aukeran jartzen dela adierazteko. Eta gehiegiak kalte egiten diola arraren oldarrari. Oreka zail hori ez duela oraindik Lupek menperatzen, deliberatu du azkenik Damianek.

Hala ere, bere buruari aitortu behar izan dio, behin etxe barruan eta berokia kendutakoan, gorputza edertu egiten diola soineko luze eta estuak. Ez dakar ezer azpian, pentsatu du, eta dena dago bere neurrian. Haragi tinko borobilak, bakoitza bere lekuan, gerria estua, bernak luze-luzeak eta soinekoaren azpiko titi-muturrak arinki iradokirik, ageriko erretenak gomitatzen duen beherako bidean. Niri gustatzen zaidan bezala, pentsatu du eta, ertzaina denez, kirola egingo duela, eta horregatik izango dela hori horrela, eta abar, eta abar. Eta Oportoko ardo zuri bat zerbitzatu dio, gerberen alboan pausatu duen edalontzi fin batean.

Gogoko al duzu Oportoa, galdegin dio Damianek, pastiza gazitu txiki batzuk eskaini bitartean.

Gogoko dut zerorrek nahi duzun guztia, erantzun dio emakumeak, irria ezpainetan. Eta makillajea baino haratagoko bi begi beltzetan, erabat kiskal dezakeen su baten albiste jaso du Damianek, uste gabean.

Afaria ez da izan beste mundukoa. Damianek uste zuen, sukaldaria frantsesa izaki, sukalde frantsesa eskainiko zutela jatetxean. Lyongo eran paratutako txerri hankak jateko aukera edukiko zuela aspaldiko partez, edo *hortelan* izeneko txoritxoak euren gantzetan konfitatuta. Ez da, baina, halakorik izan. Soilik foie bat eta entsaladak frantsesen eran. Landesetako eran. Gainerakoa, kostako herrietan bezala: zapoa erreta edo legatza saltsa berdetan. Edo txuleta, auskalo nongo idirena.

Karta irakurtzen aritu direnekoa profitatu du Damianek, beti berdina jateaz nazkatuta dagoe-la Luperi esateko. Euskal sukaldaritzza oso ona baina oso motza dela aukeran. Jatea maite duen euskaldunak ere ez duela nahi izaten irteterik betiko hiruzpalau gauzetatik kanpora. Eta pena

handia dela hori, gauza berbera eskaintzen baitute jatetxe guztietan. Donostian eta Bilbon, Gasteizen eta Baionan. Horrexek ekarriko duela, bere ustez, euskal sukaldaritzaren galera. Bere loriatan itoko dela, tipula, berakatz eta perrexilez baizik egiten ez dakien saltsatan.

Barre egin du Lupe Latasak hori entzundakotan baina Damian berehala konturatu da berdin ziola berak zer esan. Zernahi aipatuta ere, barre egingo ziola Lupek. Edota serio eta adi entzun, hitz guztiak eta bakoitza, oso garrantzizkoak balira bezala. Gizonak esandako hitz ahulenetik ere zintzilikaturik baleuka bezala bere bizia. Bai, Damianek ezagutzen ditu lehenagotik sare hori eta beste batzuk, emakume-ehiztariak erabili ohi dituenak. Kontua da ezin erabakirik dabilela ehizakia izan nahi ote duenetz. Ez dakiela parean daukan emakumeak ba ote dakien, gizonari gustatzen zaiola beti bera izatea ehiztaria. Edo hori hala dela antzeztea. Ez daki Lupek badakien horrelakorik. Ez daki ba ote dakien, ehiza errazegiari ez diola tiro egiten azkenean, gizonezkoak.

Ardoa bai. Ardoa bikaina atera dute, 97ko Saint Emilion bat, aran-pasen ukitua zeukana zu-

rrutadaren amaieran. Nabardura hori zehazteko gauza ez dela aitortu badu ere, Luperi ere gustatu zaio eta arian-arian, bigarren bat eskatu behar izan dute mahaitik jaiki baino lehenago.

Damianek ez daki berez atera zaion ala Lupe Latasak eraman duen horretara. Ez daki nola amaitu duten berriro bere etxean. Zorionan. Eta amorrua ematen dio horrek, aldea baitago, edo egon behar luke, gaztaroko ibileren eta oraingoen artean. Senari segika ibiltzen da gizakia gaztetan, baina behin adin batetik aurrera, sen hori menpean behar lukeela, pentsatu du. Alferrik, zeren eta aldi berean ari baitzaio hazten Lupe-renganako beste asmo bat. Zergatik ez, pentsatu du, zergatik ez erotu behingoz eta eten edo askatu bakar bizitza honetara makurtzen nauen oldarretik.

Ederra dago Lupe bere ondoan, ohean etzanda. Gora begira, izara gerriraino soilik. Bular perfektua. Begi perfektuak. Lepo perfektua. Adats perfektua. Ahots perfektua. Hitz perfektuak haren ahotik.

Ez zen hainbesterakoa izan leizean beherakoa, esan dio. Ez zinen ito, behintzat, eta irri egin

dio Damiani. Irri zabal eta garbia, ezpainekin baino gehiago begiez egiten den horietakoa. Alferrik jaitsi ginen hara, erantzun dio Damianek, alfer-alferrik. Han ez zegoen ezer, ez buru eta ez eskurik. Inguruetako lur apur bat, besterik ez genuen atera handik. Aho beltz hartatik.

Ahuspez jarri zaio gainean Lupe, nolaz eta haurra gurasoaren bular gainean. Baina Lupe ez da haurra eta ipurmasailetan jarri dizkio Damianek eskuak, haragi tinko ugaria ahurka, eta handik gora, sorbaldetaraino egin dio igurtzia. Igurtzi arina, doi-doia, kilikagarria. Adatsetan egin dute gero egonaldia eskuek eta azkenean, amul-tsuki jaso dute gizonarenek emakumearen ezpainetako eskaintza haragizkoa. Eskaintza hezea.

Nola ez zaitut ikusi lehenago, galdetu dio Lupek orduan. Non ibili zara orain artean ezkutatuta nik zu ez ikusteko. Zomorro artean, erantzun dio Damianek eta barre egin dute biek bigarrenez katramilatu baino lehenago.

Amaitu dutenean, lo egin beharko nuke, esan du Damianek, bihar goizean lagun batekin joan behar dut eta itsasora. Zoaz lasai erantzun dio

emakumeak, hementxe aurkituko nauzu, itzul-
tzen zarenean. Bihar igandea da bihotza. Bai,
bihotza deitu dio. Bi-ho-tza. Ustekabean. Us-te-
ka-be-an.

Lotaratzerakoan Damianek ezin izan du
kendu burutik kezka moduko bat. Lupe bakarrik
geratuko da goiz osoan bere etxean. Lupek bere
gauza denak begiratuko ditu, zintzilik hormetan,
gordeta armairuetan, bilduta tiraderetan. Lupek
bere liburu guztiak ikusiko ditu, bere argazkiak,
bere paperak, bere euli-kaxa guztiak. Lupek bere
hozkailua irekiko du eta handik aterako bazkaria
paratzeko beharrezko guztia. Lupek bere lurral-
de guztia menperatuko du, eguerdi aldean itsa-
sotik itzuli bitartean.

Eta harritu egin da, horrek ardura handiegirik
ez diola sortzen konturatu denean. Orduantxe
jakin du, berak ezer erabaki baino lehen, eraba-
kiak berari hartu diola aurea.

Garbi dago ortzia baina haize fin batek kristalezkoak bihurtzen ditu belarri muturrak eta sudurraren punta. Garaia ez delako, bestenez pentsa zitekeen gaur goizeko izotza jaitsi egin dela menditik itsasertzeraino. Hendaiaiko hondartza bertaraino. K 7. Non ote dago hori. Zein ingurutan, zein gatewaytan, zein katabidetan. Ez dut ezagutzen Izpizuaren txalupa. Nolakoa ote. Portu hau ere ez dut ezagutzen. Zergatik nagusitzen da kolore zuria ontzien artean. Denek berdintsuak dirudite hemen. Ez dit deus esan. K 7 deitzen den lekura joateko ez besterik.

Jose Ramon Izpizuak motorrak martxan dituen ontzi baten txopatik egin dio diosal urrutitik, besoak airean. Damian, egin dio deiadar eta Damian lotsatu egin da insomnioak egurastera bota dituen agure guztien begiak berari so jarri zaizkionean. Izpizuak lagundu egin dio ondoren, eskutik helduta, karelaz gaindi, txalupara txopa aldetik igotzen. Kabinaduna da, zazpi edo zortzi metrokoa, eta atzeko aldean bi helize handi

dauzka burrunbaka. «Mentura» jartzen du letra handitan.

Txalupa baino gehiago, yatea duk hau esan dio Damian Arrutik bere lagunari eta irribarrez onartu dio honek iruzkina. Baliteke, bai, erantzun dio. Horixe izan da erantzun diona eta ondoren, heldu gogor hor karelean. Erori gabe. Bagoaz eta.

Izpizuak gozo eraman du ontzia portutik atera bitartean, baina behin Bidasoako uretan sartu direlarik, bizkortu egin du abiada eta Damian harritu egin da bi motorrek erakutsi duten indarrarekin. Gorputzari aurrera tiratu behar izan dio bertikaltasunari eusteko. Zertarako behar duk hik halako ontzia, galdegin dio Izpizuari eta honek, ezertarako ere ez, erantzun dio, noizean behin dena atzean laga eta zuzen-zuzen itsasoan galtzeko.

Damianek bere lagunaren itxurari erreparatu dio eta lehengo bera dela iritzi dion arren, ez da nehoiz ohituko Izpizua bizarrik gabe ikustera. Ezin da ohitu lehenagoko iraultzaile irmo hura, aurrezki kutxentzat etxeak eraikitzen ikustera.

Ezin da ohitu, marxista hura, ontzi azkarraren leman adi ikustera.

Ez dituk gauzak gutxi aldatu handik hona, Damian, esan dio Izpizuak, Damianen pentsamenduak entzun izan balitu bezala. Heu ere ez haiz lehengo bera. Orduan estudiante finaren itxura huen eta orain, azkarregi zahartuko den zientzialariarena. Urdintzen hasita hago heu ere. Eta barrara iritsitakoan, norantz nahi duk, galde-tu dio, eki ala mendebal. Heu haiz patroia, izan da Damianen erantzun guztia.

Izpizua betidanik ezagutzen duela iruditzen zaion arren, Damianek zehatz du oroitzen noiz egin ziren betirako lagun. Garai nahasiak ziren, eta bera, Damian, bidali zuten Irlandara detonagailuen bila. Hogeita hiru detonagailu, IRAkoei erositakoak, Espainiako Mediterraneo aldeko turismoa eragozteko. Horiexek ekarri behar zituen erakundearentzat. Leherketa bat hemen eta leherketa bat han. Ingalaterrako erreginak baino hobeto hitz egiten duk hik ingelesez eta heu joango haiz Belfastera detonagailu horien bila, agindu zion buruzagietako batek. Hau ere hirekin joango duk, esan zion eta Jose Ramon Izpizua

jarri zioten alboan. Beraizango duk bion arteko buru, operazioan.

Bidaia hartan elkarrekin ezagutu zuten izuak egin zituen adiskide. Diru-maleta eskuetan, geltokietan aurkitu zituzten polizia britainiarrekin sentitu zuten beldurra, hutsa izan zen IRAkoen aurrean ezagutu zutenarekin alderatuta. Une batez hantxe bertan akabatuko zituztela ere esan baitzuen irlandarren buru egiten zuen be-turrekodun batek. Biak bereizi egin zituzten, eta zulo banatan sartuta eduki hiru egunez, ez jan eta ez lo, egiazko ekintzaile euskaldunak zirela egiaztatu behar zutela eta. Kokoteraino zue-dela britainiarrek igortzen zizkieten kolore guz-tietako infiltratuez.

Damianek eta Izpizuak ez dute hartaz sekula hitz egin baina Damianek badaki, berak bezala besteak ere, ezin izango duela inoiz hiru egun haietako espantuaren zantzua garbitu. Memoria-ko oroitzapenen artean egonen dela helduta beti, kaparra bezala, bakardade eta zurztasun erabateko hartan gertatu zitzaiena. Une batetik bestera noiz tiro bat jasoko egon ziren berrogei-ta bi ordutan. Bakar-bakarrik eta eurak ekintzai-

le euskaldunak zirela egiaztatzeko biderik ez zegoela jakinaren gainean egonik. Biok bakarrik gaituk hemen, esan zion Izpizuak haranzko bidean. Erortzen bagaituk, zerbait gertatzen baduk, biok izango gaituk bakar-bakarrik munduan eta zuzendaritzak ukatu egingo dik gu inora bidali gaituenik. Ez ditek nahi IRArekin daukagun bidea inola ere erretzerik.

Hainbeste orduren ostean IRAko lau kankailu haiek zuloan sartzen ikusi zituenean, Damianek iraulka sentitu zituen bihotza eta hesteak. Dardara handi bat nagusitu zitzaion eta zurbildura, errautsarena bestekoa. I'm sorry, esan zioten, i'm sorry. Kaka zaharra i'm sorry, kaka zaharra. Ordurako zikinduta zeuzkan galtzak, beldurraren beldurrez. Kakaztuta.

Detonagailuak hartuta Paristik beherako trenean zetozela, nik ez gehiago, esan zion Damianek Izpizuari, nik ez gehiago halakorik. Utzi eginen diat erakundea. Betiko.

Oraintxe zagok, bada, gure beharra erantzun zion Izpizuak. Garai txarrak dituk zatiketaz geroztik.

Besteekin henbilela uste nian nik, gehitu zion ondoren Izpizuak, besteekin. Harrituta gelditu ninduan Belfasterakoa hi hintzela jakin nuenean. Nola segitu duk gurekin besteekin uste hindugunean.

Damianek bazekien horrexetarako bidali zutela Izpizua berarekin. Ez zirela fio berarekin. Zer ardura dio horrek, itzuli zion orduan erantzuna Izpizuari, zer ardura dio batzuekin edo besteekin ibili. Zer ardura dio horrek.

Nola esan dezakek hori. Ez al hintzen asanbladako gertaerak ikusitakoan mindu. Han entzundakoak entzunda, nola pentsa dezakek horrela. Nola esan dezakek traidore horiekin edo gurekin ibiltzea gauza bera denik.

Nik ez diat esan horrelakorik. Heuk esan duk hori. Eta egia duk, gainera. Zergatik nabilen zuekin eta ez besteekin galdegin didak. Nahi al duk benetan jakin. Nahi al duk egia ezagutu: batzuekin ala besteekin ibili, beti izango duk guretzat berdin-berdin. Halaxe pentsatzen diat nik. Bi erakundeak, biak ala biak saiatzen dituk geure mesedetan, nor bere bidetik. Horixe pentsatuta sartu ninduan ni zuekin, baina berdin-berdin ibil

nintekoen haiekin ere. Gaur arte, ordea. Amaitu duk. Ez diat gehiago ezer jakin nahi. Nik ez diat honela ibiltzeko balio. Akituta nagok.

Inork ez diagu balio honetarako, baina ibili beharra zagok.

Bada, ibil hadi herori.

Horixe izan zen tarte luze batean elkarri esan zioten azkena: bada, ibil hadi herori. Gero treneko ganbera hartan ez zen gehiago hitzik entzun. Bordeleko geltokia zuten helmuga, han beste norbaitek hartuko zituen detonagailuak errepi-dez jarraitzeko, seguru asko. Hantxe bukatuko zen bete beharreko lana. Geltokitik irten gabe, hurrengo trena hartu eta akabo.

Trena geltokian sartzeko balaztak sakatzen hasi zenean, bat-batean bota zuen Izpizuak berea: nik ere ezin diat gehiago, Damian. Hauxe duk azkena niretzat ere. Eta Damianek jakin zuen aitortza txiki haren lekuko izateak, kate handi batez lotzen zituela bi gizonezkoak. Handik aurrerako pausoa, erakundea atzean lagatzeko ahalegina, elkarrekin egin beharko zutela Izpizuak eta berak. Elkarrekin eman beharko zutela pausoa aurrera. Elkarrekin eraman beharko

zutela bentzutuaren zama. Egindakoak egin, deus erran ezin duen akituaren mututasuna.

Zer nahi duk, lupiatan ala bestela, galdetu zion Izpizuak Hendaiako hondartzaren parean zihoazenean eta, heu haiz patroia, erantzun zion Damianek berriro. Heu haiz patroia. Horixe baka- rrik erantzun zion, lupia eztarrian zaukaat nik, la- gunari aitortzeko aukera profitatu gabe. Korro- koia. Ezkataduna. Bizi-bizirik. Eztarriaren erdian.

Izpizuak zeruari behatu eta, garbiegi zagok eguna lupiatarako, esan zuen, egun beltzak ho- beak dituk horretarako, batez ere euri pixarra baldin bada. Baina krabatarako ere ez zagok gozo, trapaila apur bat harrotu duk eta. Ez diagu deus harrapatuko baina, izanak izan, sasian ariko gaituk, lupiatan. Eta zuntzezko bi kanabera zuri atera zituen ontziaren kabinatik, bakoitzak amu handi bat eta gomazko arraintxo bat zera- mala aparexuaren amaieran. Hik hau zainduko duk ababorretik, esan zion Damiani kanabereta- ko bat luzatuz, lau kilokoa harrapatu nian duela hilabete berarekin. Zaindu ondo.

Damian poztu egin zen lupiatan ariko zirela entzun zuenean. Batetik, kostatik urrundu gabe

ibiliko zirela esan nahi zuelako horrek, beti lehorra agerian, eta bestetik, ordura arte deusik esan ez bazuen ere, beldur baitzen motorrak gelditu eta krabatan edo txibiatan geratuz gero, urdailak laster emango ote zion abisu. Horixe zuen susmoa, aspaldian itsasoratu gabe, goragalea etorriko zitzaiola. Hobe, beraz, motorrak geratu gabe, tor-tor-tor, sasian ibiltzea. Poliki baina hai-zea aurpegian, behintzat. Eta begiak ostertzean. Ez mareatzeko.

Isilik egon ziren luzaro, alabaina bi gizonak bazekiten asko zutela elkarri esateko. Aspaldiko partez. Txalupa hondoratzeko adina pisu edukiko zutela elkarri esateko zituzten guztiek. Jakin ere bazekiten esan ere egingo zizkiotela elkarri, goiz edo berant, esan beharreko guztiak. Behin hasiz gero, etengabea izanen zela jarioa. Hasi egin behar, ordea. Lehenengo atea zabaltzeko balioko zuen giltza aurkitu egin behar zutela nonbaitetik. Beti izaten zela horrela euren artekoa, sinatu gabeko liturgia aspaldiko bati segika bezala.

Tonbarriak, esan zuen Izpizua Hendaiako bi harri handiak seinalatuz, bi horiek Tonbarriak dituk edo Tonbak. Aiako Harrian bizi ziren jentilek bota omen zitiztean. Baionako katedralaren kontra baina ez hituen iritsi haraino. Hortxe geratu hituen hondartzaren muga eginez. Jendeak Bizkiak deitzen ditik, izen jatorra ahantzi eta erdaretatik itzulita: Les Jumeaux, Las Gemelas. Alferrik izango duk izen hori berreskuratzen saiatzea. Gerra galdua diagu hori ere. Has hadi turistentzat egiten diren postal denetan egiazko izena erreklamatzeko eta ikusiko duk. Horretan ere bagaituk gu baldarrak, urrutiko intxaurra beti duk hobea geurea baino, antza.

Bai gizona, erantzun zion Damianek, honezkeror hori ez diagu aldatuko, eta ondoren, Jaione hilda aurkitu diat esan zion. Bai, halaxe, tupustean: Jaione hilda aurkitu diat.

Damianek gertatutakoa kontatu ahala, Polloeko gorputegiko emakume zatitua deskribatu ahala, Izpizua gero eta zen isiltzenago, gero eta zen zurbiltzenago, gero eta zen izutzenago. Ezin litekek, esateraino. Hori ezin litekek egia izan,

esateraino. Nork egingo zion hori Jaioneri. Nork halako izugarrikeria.

Damian isilik geratu da bere barrua arinduta sentitu duenean. Berak bakarrik zeraman pisu larri bat lagunaren bizkar gainean jarri balu bezala, nahiz eta jakin, ez dagoela Jaioneri gertatutakotik libratzerik. Lapa bezala geratu zaiola itsatsirik gogoan Polloeko mahai gainean aurkitutako ikuskizun ikaragarria.

Jaionek beste bizimodu bat egiten zian nirekin bukatu ostetik. Eman al zian horren berri inoiz, galdegin dio Izpizuari eta honek buruarekin ezetz adierazitakoan, emakumeak oso desberdinak dituk gugandik, esan dio Damianek. Ez ditek gurekin zerikusirik ezertan. Gu arrainak bagara, haiek karramarroak. Edo alderantziz. Ez gaituk ezpal berekoak.

Ondoren adierazi dio noizean behin elkarrekin afaltzen zutela Jaionek eta berak. Hiru hilabetean behin edo. Banandu zirenetik, eta lehenengo urtean ia elkar ikusi gabe egon ostean, lagunarte handia lortu zutela eta lehenago ez bezala, laket izaten zutela, biak batera ibiltzea, noizik behin. Kontuak esateko besterik ez, jakina. Eta

emakume ezezaguna aurkitu zuela Jaioneren-
gan, sekula pentsatu ere egingo ez zukeen beza-
lakoa.

Damianek Izpizuari esan zion lotsatu ere egi-
ten zela Jaionerekin ezkontuta zegoen garaian
edukitako harremanaz. Bigarren urtetik aurrera,
estatistikak betetzeko soilik egiten genian, Jose
Ramon, batere surik gabe. Ulertzen didak, ezta.
Ez nian ikusten jakin emakumearen barruan.
Berak ere ez, ordea. Berak ere ez zian ezagutzen
orduan, barnean gordeta zian andrazkoa. Horre-
taz beranduago konturatu huen, banandu eta
handik denbora batera Donostian amaren
etxean bizitzen jarri zenean. Lagun berriak egin
zitian garai hartan. Esan zidanez, haiexekin hasi
huen kanporatzen bere barneko piztia.

Zein lagun mota hituen haiek.

Ez zakiat, baina gizonezkoak eta goi mailako-
ak, aurrezki kutxako zuzendariak, dendari han-
diak, diputatuak eta horrelakoak. Donostia alde-
ko ahaltsu talde bat, berak esan zidanez. Izenik
ez zidaan sekula aipatu, bat izan ezean: «Oxford
Kluba». Antza, lagunarte hertsiki moduko bat osa-
tzen zitean bere lagunak, isilpekoa eta sexu jo-

koetara emana. Jaionek esan zidanez, zirkulu haren baitan ezagutu zian egiazki bere burua. Gogoko omen zitian gizon talde hark egiten zizkion proposamenak.

Ez diat gehiago entzun nahi.

Entzun beharko duk, bada, horrexetara etorri nauk eta. Neu ere harritu egin ninduan Jaione lehenengo aldiz halako gauzak esaten hasi zitzaidanean, baina aitortzen diat zain egoten nintzela gero harekin noiz elkartuko. Hark zer berri kontatuko. Beste bat huen egiazki, Jose Ramon. Ni utziz geroztik.

Ederki ezagutzen zitian gizonak. Bazekian gure berri. Egiazki, ordea, barne-barnetik ezagutzen gintian, geure ametsik isilpekoenen albiste ere bazian Jaionek. Puta bat nauk, esan zidaan behin, eta ez dakik nola pozten naizen horretaz. Halaxe esan zidaan, poztu egiten zela gizon haien menera jartzeaz, gizon guztiz garbi haien jostailu huts izateaz, gizon haien gutizien gordeleku izateaz. Nirekin dituk asetzen, esan zidaan, eta ez euren emazte betikoekin. Nirekin dituk asetzen Damian eta orain zatorrek gogorrena, neu ere halaxe bakarrik nauk asetzen, gizon ho-

riek guztiek mendean hartzen nautenean, hik irudika ere ez ditzakean gauzak egiten dizkidatenean, haientzat haragizko jostailu soil bihurtzen naizenean, desira huts eta gordinaren oldarra nireganatzen dudanean. Orduantxe izaten nauk egiazko emakumea, Damian, esan zidaan.

Ezin diat sinetsi.

Sinets ezak, bada. Egia duk eta. Kontakizun haietan harrapaturik geratzen ninduan. Hasierako lotsak gaindituta, neronek galdetzen nioan zertzuk egiten zizkioten gizon haiek eta, egia, Jose Ramon, nahiago diat hiri esan gabe geratuta. Jakin ezak soilik, Jaioneren plazerik handiena, gizon haiek aitortzera ere ausartzen ez ziren desioak zeintzuk ziren asmatzea eta burutzea zela. Mugarik gabe. Inolako zedarririk gabe. Hortik atera kontuak.

Jaionek esaten zian kamustuta bizi garela gaur egunean. Egiazko zoriona non zegoen baze kiela berak eta kontatzeko eskatu zidaan, nire sexu-ametssetako bat.

Ez hion kontatuko.

Bai, esan egin nioan. Lotsa irentsi eta esan egin nioan, halako batean.

Eta Jaionek.

Barre egin zian nirea entzundakoan. Algaraka hasi huen eta ai Damian gaixoa, esan zidaan, oraindik bide handia daukak ibiltzeko. Horixe esan zidaan, bide handia daukadala oraindik nire egiazko desiretara iristeko. Eta sekula ez iristeko arrisku handia ere baneukala, espabilatzen ez banintzen.

Eta hik.

Nik ederki ulertzen nian berak esan nahi zidana. Gizonon neurria hartuta zeukala. Ulertzen nian berak bazekiela usteak bizi gaituela egiaren lekuan.

Berriro isiltasuna nagusitu zen bi gizonen artean. Kanaberak alferrik botata. Ez lupiarik eta ez bestelakorik, kuliska eta kaio zaratatsu zenbait izan ezean. Txalupa gainean hegaka. Berdel triste bat ere ez goiz osoan. Sokoako altueran erabaki zuten mendebalerantz itzultzea, Pasaia aldera. Heu haiz patroia.

Eta zer uste duk, Oxford Klubeko gizon horietakoren batekin edukiko duela zerikusia Jaioneri gertatutakoak. Urrutitxo joan eta itzulerarik gabeko lekuan gertatu zitzaiola hori.

Ederki ulertu didak, erantzun zion Damianek. Hori ez baduk, halako zerbait behar dik derrigorrez. Jaione ez zebilean diru beharretan, aitzitik, hori ere aitortu zidaan, gizon haiek nahi beste ematen ziotela. Ez zeukala ezeren premiarik. Berak menpekoaren itxurak egiten zituen arren, ahurrean zituela haiek denak.

Kontua duk, ordea, ez dakidala nortzuk ziren gizon haiek. Bat beraren izenik ere ez zidala esan. Eta horretan hik lagun dezakek, Jose Ramon: joan hadi Jaioneren amarengana eta galde iezaioak aztarnarik ba ote duen bere alabaren lagunez. Galde iezaioak sekula entzun al izan dion izenen bat, ikusi ote duen norbaitekin edo jakin al duen zerbait. Joan hadi hi Jose Ramon, ni ez naik ikusi ere egin nahi eta. Hi bai, hi gogoko izan hau beti, arkitekto jauna izaki eta ez zomorro artean ibiltzen den ni bezalako ganorabako bat.

Bai egingo diat hori, edo saiatuko nauk behintzat, erantzun zion Izpizuak. Haren amak dakizkienak bederen, jakingo ditiagu geuk ere. Eta ondoren, baina hik ere egin behar didak niri mesede bat, gehitu zion. Galanta, gainera.

Hori eginda zagok erantzun dio Damianek, baina, et, et, et, esan zuen orduan Izpizuak. Kontua ez duk hain erraza eta bere arriskua zaukak.

Ondoren txalupara zergatik ekarri zuen ondo baino hobeto ulertu ahal izan zuen Damianek. Bidaia ez zela doakoa izan, alegia. Izpizuak bere loba Leire eta beste mutil gazte bat egun bazuetan etxean ezkuta zitzan nahi zuen. Muga pasatu bitartean. Ihesi zatozak eta gauzak apur bat baretu artean, gordean behar ditek egon. Azken egunetan ugaltu dituzten mugako zainketak baretu artean. Zer egin eta nora alde egin erabaki artean. Instrukzioak jaso artean. Gauzak ez baitira gure garaian bezala Frantzian.

Iparraldea ez duk Frantzia, moztu zion lehor Damianek.

Inork ez ditu bilatuko Hondarribiko golfean, Zoriona bezalako etxe dotore eta burges batean. Hogei urte ingurukoak dira bi gazteak, eta Izpizuak ez zekien zer egin zuten, baina ihesi zetozen eta loba propioa du Leire. Bere arreba Lorearen alaba. Berak ezin ditu etxean gorde. Gurean begiratuko ditek lehenik, esan zion Damiani, mesede hau egin beharko didak, laguna.

Kaka zaharra, esan zuen Damianek, kaka zaharra. Horiek guztiak aspaldi utzi genitian atzean Jose Ramon. Ez hadi etorri orain eskaera horrekin. Gainera, edozer gertatuz gero, sei urtetik gora egin beharko ditiat barruan. Laguntzeagatik. Kaka zaharra. Ez iezadak eska horrelakorik.

Eskatzen diat, bada. Ez diat-eta beste irtenbiderik ikusten.

Kaka zaharra esan zuen berriro Damianek eta, nire etxean ertzain bat utzi diat ohean, esateko gogoia etorri zitzaion arren, isilik geratu zen berriro kaka zaharra eta kaka zaharra esan eta buruarekin baietz egin arte. Egun batzuetan, gordeko zituela bi iheslariak. Bere etxean. Zorionan. Kaka zaharra, Zorionan.

Bidasoako barrara itzuli direino, hitz erdirik ere ez diote gehiago esan elkarri bi gizonak. Badakite alferrik izaten dela hori bizitzak berak hartzen duenean aurrea. Erabaki eta pentsamendu guztiak gertatzen direla mehe, uhin handi batek bezala, bizitzak azpian harrapatzen dituenean. Arnasa hartu eta ahal den guztia gorde biriketean,

ezin da egin besterik. Zuup. Gainean jarri den ur guztia urrundu arte.

Noiz etorriko dituk, galdegin dio, azkenean, Izpizuari eta, gaur iluntzean bertan erantzun dio honek. Hire etxean agertuko dituk ate joka gaur arratsean. Benetan eskertzen diat hau, Damian, esan dio gero eta salto egin dute biek ontzitik portuko lehorrera.

Agur ere esan gabe joan da Damian bere autorantz, kaka zaharra eskertuko dizut, kaka zaharra, pentsatuz batera.

Santiagoko zubia igarotzerakoan, Polizia Nazionalea ikusi du bere bidean kontrola ezarrita. Beste noranzkoan, CRSak berdintsu. Ez da giro mugan. Mugarik gabeko mugan. Iragaiten utzi diote eta Damianek eskertu egin du gaurkoa bezalako egun batean bada ere, zahartu izanak zerbaiterako balio izateak.

Etxera iritsitakoan usain berri batek egin dio diosal sukaldetik. Arroza ikusi du perrexila eta txirlekin mahai gainean plantatuta, eta neskazar har egosi bat olio errez lagunduta. Arrainari laguntzeko moduko ardorik ba ote duen pentsatzen hasi denean, albariñoren bat edo, Lupek

salto egin dio lepora kata-muxarra balitz bezala. Beti hantxe egon bailitzan portatu da emakumea. Etxekoa balitz bezala. Damianen beste gauzetako bat balitz bezala. Argos, sotoko ardo botilak, euliak, edo bularraren erdian sentitzen duen nahasmena bezain berea balu bezala.

Euliez gehiago jakin nahi duela esan dio emakumeak. Konta iezadazu zergatik gustatzen zaizkizun hainbeste. Esan Damian, zer dute euliek besteok ez daukagunik hainbeste gustatzeko, jarraitu du jostari, Damianek aldartea pozteko egin behar izan duen ahalegin eskergari erreparatu ere egin gabe eta, batez ere, gaur arratsaldean biologiako bi ikasle etorriko dira etxera, dardararik gabe esan ahal izateko aurkitu behar izan duen adorearen handiaz ohartu ere egin gabe.

Ez dakit zenbat denbora geratuko diren. Nire bildumaren inguruan egin nahi omen dute euren tesia, amaitu du Damian Arrutik, mahaira eseri baino lehen. Nire euliak behar dituzte ezagutu.

Exo 5

Eguna harrigarria egin zaio Damian Arrutiri. Uste gabekoa erabat. Goizean Izpizurekin ibili da ontzian, arrainik gabeko arrantzan; eguerdian Luperekin bazkaria, eta bazkalondoan, ai bazkalondoan, jangelan bertan hasi dira Lupe eta bera, bera eta Lupe, sukarrari bide ematen. Ohean amaitu dute eta aitor du orain Damianek, etxean bakarrik geratu den honetan, emakume horrek baduela zerbait beretzakoa, ez dela hain arrotz nabaritzen harekin azalez azal jartzen denean.

Beldur dio, ordea, haren begietan ikusten duen nahiari, haragiaz haratagoko eskeari. Izutu egiten du horrek. Izutu egiten du alferretik irten beharrak eta betiko itzalita zeudela uste zuen txingarretatik, su berri bat pizten hasteak. Ez du nahi. Zaharregi dago. Bakardadera ohituegi.

Laborria eragiten dio Luperengan aurkitu duen senitartekotasunak, beti hangoxea baili-

tzan jokatzeko horrek. Eta pentsatzen du, berak ez duela balio inoren etxean berean bezala sentitzeko. Arrotzak egingo litzaizkiokeela beste edonongo usainak eta neurriak. Bere lekua hortxe duela, Zorionan. Ez beste inon.

Ez du Luperen bizimodua ezagutu nahi. Ez du haren etxea ikusi nahi. Ez du jakin nahi non bizi den. Ez ditu haren lagunak, haren familiakoak, nortzuk diren ezagutu nahi. Ez du Luperen iraganaren berririk jakin nahi. Haren amodio galduen albiste jakin nahi. Ez du Luperen ñabarduren albiste jaso nahi. Ez du inoren historian sartu nahi. Ez du bere buruaz harantzagoko pauso bakar bat ere eman nahi. Eta, batez ere, ez du bere buruaren inguruko kontuez inorekin jardun nahi. Ez du erantzten hasteko gogorik. Barru-barruko kontuak hobeto daude ezkutaturik. Mila tona hondarren azpian estalirik. Ez al zen izan Paul Valéry idazle hotz eta zurrun bezain handi hura, nigan ezagutzen ez dudana horrek guztiak osatzen du nire nitasuna, edo antzeko zerbait, esan zuena. Ez. Ez du gogorik. Ezkutukoa agerian jartzeko alferkeria dauka. Ezkutukoak ezkutuan behar du honezkero. Ez du nahi. Ez dago prest. Hobe da

horrela. Zaharregi dago. Bakardadera ohituegi. Ohiturara ohituegi.

Birigarroek bakarrik pitzatzen dute arratsaldeko isiltasuna. Dzi, dzi, dzi. Golf jokalarien takatekorik ere ez du entzuten eta horrek ekialdekoa dabilela erakusten dio Damiani. Ohetik bertatik daki haizearen berri, igarlea bailitzan. Makalak irudikatu ditu orduan, mendebalderantz okertuak, mendebalderantz hostaila ernatu berria erakusten, lotsagabe.

Ez du alde egiten sumatu, hala ere. Emakumearen usaina baino ez da geratu korapilaturik izaretan, itsatsita burkoan, itsatsita bere azaleko biloetan. Gezurra. Haren usaina ez ezik, irudia ere geratu da gelaren barruan harrapaturik, ohe gainean biluzgorririk. Haren berna luzeak eta gerri estua. Haren bular eztizkoak eta, batez ere, haren begiak ere geratu dira Damianen adimean, itsatsirik. Bi lapa eder bezala. Eta haren pare bat esaldi ere bai, behin eta berriz errepikatzearen poderioz, burrunba etengabe bezala geratu zaiona. Etengabeko kilkerra: non egon zara Damian, non egon zara orain artean ezkutaturik.

Non ibili zara sartuta nik orain arte zu ez ikusteko.

Damianek ez du deus jakin nahi eta tapakien azpian gorde du burua, ihesi. Egindako jolasaren izerdizko usaina datorkio, ordea, lurrin lodi baten itxuraz. Eta irudikatu egin du usain hori. Gorpuztu egin du. Kanpoko makalak irudikatzen dituen bezain egiazko ikusi du, kolore zehatzik gabeko ke zurizta bat bezala, bere sudur zuloetatik barnera sartzen. Biriketara zuzen. Eta han, mikrobioak irudikatu ditu, mikrobio txikiak ikusi ditu, birika barneko biztanle sekretuak, berotasun berria profitatu eta ugaltzen eta ugaltzen. Etengabe ugaltzen. Milaka milioi mikrobio, mikrobio kume berriak egiten. Milaka eta milioika, bazter guztiak betetzen. Usainaren iritsierak eman dien pozarekin, ehunka milioi mikrobio bere haragitan bizitzen. Gustura eta eroso, bero bufada berriaren gozotasunarekin.

Eta Damianek atera egin du supituan burua mantapetik, gehiago ezin eta. Haragizko usainetan ito baino lehen. Orduan entzun du baten bat beheko atean dela, turrina jo eta jo, Argosen zaunka artean. Eta berriro ere sartu zaio izua.

Sekulakoa. Kartzelara joateko aukeraren izua. Ohiturak aldatu behar izateko izua. Zaharregi baitago horretarako ere. Ohituretara ohituegi.

Ni Leire naiz eta beste hau Gorka. Osabak esan dit zure etxera etortzeko. Fidatzekoa zarela. Horixe esan dio Damiani ia bere alaba izateko moduko adina daukan neska gazteak. *Musca argentea* bat izan daitekeela erabaki du supituan, ederra, beraz. Gaztea, batez ere, pentsatu du ondoren. Eta Damianek, beste ezer esan gabe, zaunka diharduen zakurra heldu du lepokotik eta apur bat harantzago eraman du katean lotzeko. Sartu barrura, esan du gero, eta nora sartuko dira barrura ez bada, pentsatu du jarraian, esaldia aipatu bezain azkar. Zozoa haiz zeharo, Damian, haserretu da bere buruarekin.

Etxe barneko eskaileretan gora hartu du bi gazteen aurretik, bide erakusle, baina dagoeneko antzeman die usaina. Egunetan garbitu ez direnen usaina, geltokietako ke guztiak bildu dituztenen usaina, babesik gabekoek edukitzen zuten usain hotza. Berak Irlandan eduki zuen

usain hura bera. Izututa dabilenarena. Hori izango da zuen gela, esan die orduan, bainugela bat ere badauka hor ezkerretara. Ezer behar baduzue, eskatu niri.

Eskerrik asko esan diote eta, ondoren, zuek biok biologiako ikasleak zarete, Leioakoak, nire euli bilduma aztertzerako etorritakoak, esan die. Tesi bat idazten ari zarete eulien bizitzaz. Normal jokatu behar dugu eta horixe da normalena, zuek biologiako ikasleak izatea. Adinean zaude, gainera.

Ez didazu sinetsiko, baina ni biologiako ikaslea naiz egiazki, esan dio mutilak. Hobeto orduan, erantzun du lehor Damianek eta afaltzeko ezer ba ote den begiratzera noa, esan die gelako atea itxi baino lehen.

Zeuen etxean zaude esateko gogoia irentsi egin du, ez baitaude egiazki euren etxean. Damianen etxean daude. Zorionan. Kaka zaharra. Eta gutxi dira Zorionan euren etxean bezala sentitzeko baimena dutenak: Véroniquek, Argosek, Katalinak eta Moisesek. Beste inork ere ez. Aski dira horiek. Ezta Lupek ere, oraingoz, zimenta-

rriak bezain bertakoa izan dela iruditu bazaio ere.

Damianek ura jarri du irakiten eta bertara bota ditu aurkitu dituen porru eta azenario baka-
rrak, zati eginda. Starlux pastilla erdi bat ere bai.
Ondoren patata batzuk zuritu, borobilean moztu,
oliotan igurtzi, gatzpipertu eta labeko azpil ba-
tean jarri ditu. Gainean hozkailutik ateratako oi-
lasko bat jarri du, gatzpipertuta hau ere, Starlux
erdia izter-hegaletan igurtzita eta limoi erdi bat
saturik ipurditik. Baratxuri bi atal ere bai. Ipur-
ditik.

Labean sartu du guztia jarraian eta zalantza
bat etorri zaio segidan: ordubete gehiegi da pa-
tatentzat eta gutxiegi oilaskoarentzat. Baina
berdin dio, bera ez da Bocuse. Nahi ez duenean
ez, behintzat. Eta gaur ez du nahi. Ez dago otu-
runtzetarako. Eta sukaldaritzak ustekabeko me-
taforak ematen dituela pentsatzen aritu da.
Azken finean, mahaira eseriko direnetatik bi, oi-
laskoa bezain gordinak baitaude eta hirugarre-
na, bera, alegia, eginegi. Erreegi, pataten antze-
ra.

Eltzeko urak irakin duenean fideo batzuk gehitu ditu saldatan eta orduan pentsatu du, azkarregi egiten ari dela zopa. Oilaskoa egin orduko, fideoak gehiegi beratuko direla saldatan. Bigunegi egongo direla, puztuegi. Baina, berdindio horrek ere. Gaurko gazteek ez dakite jaten pentsatuz amaitu du gogoeta gastronomikoa eta bi gazteak irudikatu ditu, gelako bazterretan armak non ezkutatu erabakitzen, pistolak non gorde deliberatzen. Bere etxean, Zorionan. Horixe ondoan. Bere etxeko gela batean, gonbidatuen gelan, behin Madrildik Donostiara etorrirako epaile batek ostatu hartu zueneko gela berean. Te agradezco mucho la confianza, esan zion, tienes tu casa en Madrid para lo que necesitas. Horixe esan zion Gutiérrez jujeak. Sería un placer poder recibirte en mi casa de Madrid. Si es que bajas algún día.

Istant batez, Gutiérrez epailea irudikatu du Damianek, toga beltz eta guzti, film amerikarretako egurrezko mailu eta guzti, berari sei urteko kartzela zigorra ematen. ETArekin komando iheslari bati laguntzeagatik sei urteko espetxea merezi duzu, esaten, kolaboratzeagatik edo, okerra-

go, partaide izateagatik, eta, nahi gabe, irri bat atera zaio ezpainetatik: sei urte baino lehen izango naiz lurpean, Gutiérrez maitea. Kartzinoma bat daukat eztarriaren erdian. Kartzinoma ezkatadun bat. Xabiroi bat. Karramarro bat. Zuk ba al dakizu zer den hori. Alferrik zabilta nirekin sei urteko eskaeretan. Eta jaitsi egin da, euliak nola dauden ikustera.

Batzuetan hil beharrak grazia ematen dio bizitzari, horixe esan dio Argosi, katetik libratu duenean. Zeinek esan behar zidan niri.

Patatak erreta irten dira labetik, erreegi, eta oï-laskoa gordin, gordinegi, baina ez diote muzin egin bi gazteek eskainitakoari. Ezta zopari ere. Dena utzi dute garbi. Barkatu, baina etxe honetan ez dugu postrearen ohiturarik, gehitu du Damianek, eta, berdin dio, esan diote bi gazteek. Nahikoa ari zara egiten.

Hezurak leihotik bota dizkio Damianek Argosi afal ostean eta hark ere ez dio izkin egin ezeri. Areago, ugazaba ikusi duenean leihotik txistuka, isatsa alde batera eta bestera hasi zaio, aspaldi-

ko ohitura galduen oroimenetan. Antzik ere ez dio eman nagusiaren pentsamenduari, nahikoa baino, gehiegi ari dela egiten. Gehiegi.

Zu ere gutarra izandakoa zarela esan dit osabak, bota du tupustean neska gazteak eta, gutarra izatea zer den esaten badidazu, akaso baietz esan beharko dizut, erantzun dio Damianek zut. Ez nago oso segur zuek eta ni zaku berekoak ote garen.

Zergatik hartzen gaituzu, orduan, zeure etxean, galdegin du Gorkak, zergatik hartzen duzu hainbesteko arriskua. Neuk ere ez dakit, erantzun du Damianek, neuk ere ez dakit xuxen. Agian hegaberak atsegin ditudalako izanen da.

Zer dira hegaberak, galdegin dio orduan neskek, eta elurretan galduta ibiltzen diren hegazti mota batekoak direla hegaberak, erantzun die.

Gu ez gabilitza galduta, ederki dakigu zertan gabilitzan, erantzun du irmo mutilak. Gu herriaren eskubideak zapaltzen dituztenen aurka gabilitza. Herri honi egiten zaion eraso bakoitzari erantzuten.

Ederki, asko pozten naiz, moztu du Damianek ironiaz, eta harrikoa egitera joan da, baina, ez

mesedez, esan dio Leirek, neronek egingo dut hori. Nahikoa egin duzu afaria ematearekin.

Nahikoa ez, gehiegi, etorri zaio berriz burura Damiani, baina ez du ezer esan. Hegaberak zer diren ez dakitenekin ezin daitekeela fidatu ere erabaki du. Txorien izenak, arbolen izenak, denak ahazten dituzte. Ahaztu baino, sekula ikasi ez. Horixe. Tresnak, gauzak, ez dakite nola izendatu behar diren. Aurki gara denok silaba bakarreko monosilabiko, pentsatu du. Ur. Su. Mu. Edo bestenaz, proparoxitono. Superrondo. Hipergaizki.

Hiztegia baino nahiago dute hauek bonba eta pistola, historia ezagutzea baino, ekintza. Nor zen Chaho, galdegingo nieke. Nortzuk ziren Agirre, Galindez edo Monzon. Nor zen Argala. Hori ere ez baitakite. Ez dute ikasi. Adanen jenerokak dira: eurak baino lehen, ezer ere ez.

Zigarro puru kaxa hartu du esku artean eta, nahi al duzue txokorrik, galdegin du. Ezetz gazteek. Oraintxe eginen dut kafe apur bat. Zaudete lasai, hona ez da inor etortzen sekula, eta etxetik kanpora irteten ez bazarete, ez zaituzte

inork ikusiko. Hau aparte dago mundutik. Erabat aparte.

Eta ahaztu baino lehen, telefonorantz joan da. Mutilak jarraitu egin dio atzetik orduan. Zela-tari. Katalina eta Moisesen zenbakia markatu du. Katalina, ez zaitezte nire etxera agertu neuk esan arte, ezta garbiketa egitera ere, bi ikasle daude hemen nirekin eta ez genuke nahi inork molestaterik. Eskegi egin du ondoren telefonoa eta, zer uste zenuen, poliziari deituko niola, ala, esan dio mutil gazteari bekozkoz. Badaukat zer egiteko hoberik.

Kafea hutsik hartu dute hirurek. Azukrerik gabe eta basoan. Inork ez du bestelakorik eskatu, ez azukre eta ez esnerik. Isilik egon dira Damianek eten duen arte. Etxe honetako ohituretara makurtu beharko duzue, esan die Damianek, txakurrak Argos du izena eta zaunka egiten bai-zik ez daki. Beheko geletara sartzea debekatuta dago.

Zergatik, galdetu dio mutilak, eta bere agintea indartzeko profitatu du aukera Damianek: neuk hala agintzen dudalako.

Ez zaitez horrela jarri, esan dio jarraian Leirek, ulertzen dugu egoera ez dela batere erraza zuretzat.

Bada, ulertzen baduzue, ongi ulertu eta kito. Ohera noa, ondoko egongela horretan duzue edaria eta telebista. Nahi duzuen egin, ni bihar goizean goiz lanera joango naiz eta bakarrik geratu beharko duzue.

Osabak euliak ondo ezagutzen dituzula esan dit. Forentseei laguntzen ibiltzen zarela ere bai. Zertan zabilta orain.

Gorpu zatitu baten adina zehazten, horrextan ari naiz, eta hura hil zuen urdekumea topatu nahian ere bai.

Nor da hildakoa, galdetu dio mutilak.

Horrek berdin dizu zuri, erantzun du lehor Damianek eta bere gelarako bidea hartu du. Egongelatik pasatzean, kanpoan gaua garbi datorrela ikusi du parapaneko makalen gaineko izarren argitan. Ilargia, ostera, mehe, argizko hari zurbil bat baino ez. Ilberria, ia.

Ez du argirik piztu behin gelara sartu denean. Mekanikoki errepika ditzake-eta erantzeko lan guztiak, mekanikoki aurkitzen daki goizeko zazpi

eta erdietan jarrita dagoen iratzargailuaren kakoa, eta mekanikoki daki lo egiteko ez dagoela ezer burua hutsartez betetzea bezalakorik.

Horregatik lotaratu da mahaitxo gainean zegoen ohar bati erreparatu ere egin gabe. Eskuz izkribatutako paper hori bat: Telefonoz deitzen didazunean, egia izango naiz. Bestenaz, ez naiz sekula existitu. Lupe.

Urrutikoetxearen bulegoan gauzak beti bezalakoak dira, alferrikakoak. Ez dago ezer egiterik, esan du, ez dago ezer egiterik zure amaginarrebarekin. Ez daki ezer bere alabari buruz. Ez daki non dagoen. Ez daki non dabilen. Ez daki zertan egiten duen lan. Ez daki ezer. Duela hiru hilabete, Eguberri egunez, haserretu egin omen ziren biak ala biak -ez digu esan zergatik-, eta alde egin zuen alabak amaren etxetik. Zure emazte ohiak. Inork ez daki nora. Ez dakigu nori galdetu. Ez dakigu zer egin. Hori guztia esan du Urrutikoetxeak eta baietz egin dute buruarekin Mangas eta Lenizek bazter batetik. Baietz. Halaxe dau dela gauzak.

Gorpuaz aztertzen segi behar dut, esan du Damianek. Besterik ezean finka dezagun, behingoz, zein egunetan bota zuten Izarraizko leizean behera. Dena den, amaitu du, komeniko litzateke galdetzen hasia ba ote den nonbait Oxford Kluba izeneko zerbaitekin. Oker ez banaiz, Jaioneren lagunak Oxford Klubean biltzen zirenak. Edo Oxford Kluba deitzen zioten euren elkarteari. Ez dakit segur.

Berria da hori, esan du orduan Urrutikoetxea tenientek eta, baliteke, erantzun dio lehor Damianek. Gero irten egin da, agur ere esan gabe, autoa hartu eta Polloeko gorputegira bidean. Han, hiriko beste muturrean, Larrañaga aurkitu du gorpu iritsi berri baten erraiak aztertzen. Ijito bat da, esan du, bere lehengusuek hil omen zuten atzo arratsean Irunen. Droga-zorrak, antza, gehitu du.

Damianek emakumearen zatiak gordetzen dituen tiradera erakarri du eta are gogorragoa egin zaio bigarrenez zati haiek guztiak ikustea. Kasik ez dio beste ezer pentsatzen utzi: nor egin dizu hau Jaione, nor izan da putakumea. Nonrena da hazia. Non daude arrastoak. Eta bisturi

txiki batez, gibelaren zati bat eta gorpuki bakoitzetik laginak ebaki ditu mikroskopiaren azpian jartzeko.

Müller-en eskema ekarri du burura lenteetatik begira hasi baino lehen. Egia esan, Müllerrek erakutsitako apurra baino ez da erabiltzen forensikan, ez dago besterik edo, behinik behin, Damianek hori baino ez daki:

Lurrean ehortzitako gorpuetan urdindura gertatzen da heriotzatik bi eta lau urte bitartean.

Zati bigunak desagertu egiten dira (hau ere bi eta lau urte bitartean).

Kartilagoak eta lotailuak desagertzen hasten dira behin bost urte pasatu direla.

Gantza desagertu egiten da hezurretatik, bost eta hamabost urtera bitartean.

Hezurak apurtu egiten dira hamar eta hamabost urte bitartean, baina, beti ere, lurraren bezitasunek baldintzaturik. Alabaina, hezur batzuek milaka urte egiten dituzte apurtu gabe.

Hauskorrak eta porotsuak izaten dira hezurak behin berrogeita hamar urte igaro direla. Hala ere, lurraren konposizioa aztertu behar izaten da halakoetan.

Hezurrek ez dute hezurmuinik izaten behin sei urte igarotakoan.

Hamar urte baino gehiago iragandakoan, ez da batere materia organikorik geratzen bizkarre-zurraren inguruan.

Deus ere ez beretzakorik Müllerrek esandako denen artean. Deus ere ez aste gutxi batzuk baino ez dituen gorpuaren adin zehatza erabakitzeko. Urrutik egun zehatza jakin nahi du, pentsatu du Damianek, eta orduan, orduan zehazki, hasi da lenteetatik behatzen. Haragi artean arakatzen. Okela begiratzen. Jaione zehazki zein egunetan bota zuten zuloan behera erabakitzeko.

Ez du intsektu osorik kausitu. Bat ere ez. Ez euli eta ez bestelakorik. Denek alde egingo zuten gorpukiak mugitzen hasitakoan. Larbak bai, ordea, edo zehazkiago, ninfak. Batzuk hamar milimetro ingurukoak eta beste batzuk hamahirukoak. Lagin guztietan berdin-berdin. Badauka erantzuna Urrutikoetxearentzat. Gutxi gorabehera. Damianek badaki. Argi ikusi du ninfak ireki dituenean, batzuk *Musca domestica* generokoak dira eta besteak *Calliphora vomitoria*

deitzen direnetakoak. Arruntak oso. Biak ala biak.

Non dago hemen telefonoa, galdegin dio Larrañagari eta honek, hatz bat ijitoaren gorputik altzata, ate bat erakutsi dio. Handik bi ate eskumara. Zer, ba al dago ezer berririk, galdegin dio gero.

Baietz uste dut, esan dio Damianek eta gorpuari kendutako zatitxoak beren lekuetan jartzan saiatu da. Haragia haragiari bildu dio. Okela okelarekin jarri du. Puzzlea gehiago ez desegite aldera. Ondoren tiradera bere lekuan jarri, latezezko eskularruak kendu eta alde egin du autopisia gelatik, arnasa eta telefonoaren bila.

Ez du Urrutikoetxea tenientea aurkitu hariaren beste aldean. Bere idazkaria baizik ez du kausitu: esango diot lenbailen suri deitxeko. Badaukagu sure mobila. Horixe esan dio poxpolinak.

Damianek gorputegitik beherako bidea hartu du, autopistan zehar, eta tunela pasatu eta gero ezin izan du ekidin lepoaren keinu automatiko bat eskuinerantz. Begiak eta burua joan zaizkio bazoka tiroak erori ziren lekuerantz. Zelai berde

zulaturantz. Oraindik hortxe daude, pentsatu du, ia niri gainera erori zitzaizkidanen arrastoak. Nik bakarrik ikusten ditut horiek.

Doi-doi dagoela bizirik pentsatu du orduan, doi-doi dagoela bizirik, hiltzen jarraitzeko.

Eta irratia piztu du, klik, esan eta izan.

Ehunka kamioi, denak bere bidean. Pölskatrans eta Veiculo Longo. Transporte Internacional. International Transport. TIR. Nahi beste. Kolore eta zama guztietakoak. Europarantz denak, meloiz beteta, marrubiz beteta, autoz beteta, irinez beteta, batek jakin zerez beteta. Beste hainbeste handik honantz, makinaz beteta, gurpilez beteta, ordenagailuz beteta, batek jakin zerez beteta. Eskuineko ilara osatzen dute Iruna bidean eta ertzainek poliki segitzeko keinua egiten dute bide bazterrean. Katastrofea ezin dutela konpondu, baina kasu egiteko eta abiadura moteltzeko. Aurpegi etsietan ikusten zaie hori. Edo bestela, autopista utzi eta errepide nazionala hartzeko. Baina hor ere berdin. Ez dago ihesbiderik. Eta orduan oroitu da Damian Véroniquek behin konta-

tu zionaz. Ai Véronique. Non zaude Véronique. Nigandik urrun Véronique. Urrunegi Véronique. Ala, hobe dinagu horrela, zztada gehiagorik egin gabe batak besteari. Zauriak beste baterako utzita, Véronique. Véronique bihotzekoa. Aspaldiko lagun bakarra.

Bai, Véroniquek galdegin zion ea ez zen sekula ohartu nola ibiltzen diren trenak eta kamioiak auto berriz leporaino kargaturik, atzera eta aurrera, inorako helbururik gabe. Ezetz esan zion berak orduan. Autoak garraiatzen maiz ikusten zituela, egunero nahi beste, baina beti pentsatu izan zuela helburu batekin zebiltzala auto berri haiek kamioi gaintan, tren gaintan.

Ezetz esan zion Véroniquek. Hori ez zela horrela. Ederki zekiela berak. Eta, ez naiz harritzen, erantzun zion Damianek, horixe duzu lanbidea, trenak eta kamioiak zamatzen ibiltzea, Irungo zuen enpresa pirata horretan.

Horregatik esaten dizut, Damian. Askotan, al-mazenean gordeta edukitzea baino merkeago ateratzen zaie saltzaileei auto horiek guztiak atzera eta aurrera ibiltzea, noraezean. Errepi-deetan eta trenbideetan. Irundik Cadizera eta

handik honako bueltan. Edo Paristik Hamburgera. Edo Moskura. Non deskargatu erabaki arte, gora eta behera ibiltzen dituzte, kamioiez eta trenez, trenez eta kamioiez, eta Pasaiara ailegatzaren diren ontzietan ere bai, sarritan.

Ezin dut sinetsi, izan zen Damiani burura etorri zitzaion guztia, ezin dut sinetsi merkeago denik etengabe garraiatzen ibiltzea, leku batean gordeta edukitzea baino. Bada, bai, ihardetsizion Véroniquek, geuk ere egiten dugu hori askotan, deskargatzen eta kargatzen ibili ordez, gidariak ibiltzen ditugu hemendik hara etengabe. Prezioen arabera erabakitzen dugu helmuga. Prezioak dantzan dabiltzanean, kamioiak eta trenak ere dantzan. Horixe da gaur eguneko garraioaren giltza: kamioiak, ontziak eta trenak lepo kargatu eta prezioak itxitakoan soilik deskargatzea. Bitartean errepidean eta trenbidean behar dute ibili garraioek.

Damianek lau kamioi luze aurreratu ditu. Batek kartolak itxita zeramatzan eta ezin izan du ikusi zama, baina beste hirurak Renault markako autoz beteta zihoazen iparralderantz. Nola liteke, pentsatu du, Frantzia aldera doaz. Ez al dira,

bada, han egiten, marka horretako autoak. Zer egiten dute auto horiek sortu dituzten leku bere-rantz itzultzen. Véroniquek arrazoia, beti bezala.

Eta gehiago erotu baino lehen, saihesbidea hartu du merkatalgunerantz. Arkume txuletak erosiko ditu, eta potoetan jarrita dauden barazki eta babarrunak. Eta ogia. Eta letxuga eta toma-tea. Eta beste oilasko bat. Eta olioia. Eta ospina. Eta garagardoak. Etxean zain dauzkanentzat.

Mila demoniok eramango ahal ditu handik lehenbailehenetan lehenbailehen.

Ohi legez, Argosek egin dio harrera, buztan jostari. Gutunontzian ere ohiko gutunek egin diote diosal. Hileroko *Noticiero Entomológico Internacional* aldizkariak, aurrezki kutxako bi gutunazalek, eta beste batek -harrigarria hau-, kartazal zuri batek. Ez izenik, ez zigilurik, ez arrastorik, ez ezer. Alde batetik eta bestetik, enbelopa guztiz zuria. Postariak edo besteren batek, zuzen-zuzen hantxe jarritakoa.

Zabaldu egin du eta barnean, besterik gabe, argazki bat kausitu du. Ez gutunik eta ez idatzi-

tako beste lerrorik ere. Argazkian Jaione ageri da, mahai ondo batean. Ederra dago. Alderik aldera erakusten ditu hortz zuri-zuriak. Festarako soineko beltz eta tiranteduna daroa soinean. Alboan gizon heldu bat dauka, hirurogei urterako bidean doana, gorbataz jantzirik. Duintasuna hondoratzen dion irribarre mozkor bat erakusten du begi erdi erorietan. Sekula barre egiten ez, eta argazkirako barrezka hasi dela dirudi. Damianek ezagutzen duela uste du, baina ez du egiazki ezagutzen. Baietz esango luke, aurpegi hori ikusia duela, baina ez. Ez daki nor den. Ilekera guztiz harrigarria du: ilea alde batera orraztuz burusoila dela ezkutatu nahi duten horietakoa, baina, gainerako ile beltzak ez bezala, aurreko aldekoak zuri-zuriak ditu. Bikotearen atzean jende multzoa ageri da dantzan. Jai batean ateratako argazkia da. Gabon Zahar eguneko dirudi, edo beste festaren batekoa, ezen ia denek baitute pailazo kapelua edo sudur gorria gainean. Batzuek, plastikozko betaurrekoak ere bai, Groucho Marxenak bezalakoak. Atzeko aldean erdizka ageri denetako baten soslaia eza-guna egin zaio Damiani. Baina ez da ondo ikus-

ten mozorroaren azpian eta ez dio gehiago erreparatu argazkiari. Gizon eta emakumeak dira pozarren dantzan. Juerga bat. Geroko utzi du argazkia. Nor ote da Jaionerekin dagoen tximazuri hori, pentsatuz. Atetik barrura sartu da eta, ea gazteak, lagundu erosketa hauek sartzen esan du ondoren, ozen. Zahar hau akituta dator eta. Horixe esan du. Zahar hau akituta datorrela.

Zure liburutegian behatzen ibili gara. Asko irakurtzen duzula dirudi. Hizkuntza ezberdinetan, gainera. Liburu hau ez dagoela iruditu zaigu. Tori, zeuretzat. Eskerrik asko esan dio neska gazteari eta liburuari erreparatu dio Damianek: *El mal de Montano* deitzen da, Enrique Vila-Matas izeneko Bartzelonako idazle batena. Moxilan ekarri dut, irakurtzen hasi naiz baina gehiegi da niretzat, esan dio neskak, agian zuri gustatuko zaizu. Morroi arraro bati buruzkoa da. Hainbeste literatura irakurtzeaz gaixotu egin den batena. Montanoren gaitza deitzen omen zaio gaixotasun horri.

Zuek euskaraz bakarrik irakurtzen zenutela uste nuen, esan du gero Damianek, hizkuntza-imperialismoari aurre egiteko edo.

Txantxarik ez, esan dio mutilak, txantxarik ez. Dena ondo badoa, bi edo hiru egunetan bakan utziko zaitugu. Hori izango da dena.

Osabak deitu du, esan du neskak ondoren. Ez zenuten telefonoa hartuko, galdegin die Damianek. Ez, horrelakorik ez. Erantzungailuan utzi dizuna entzun ahal izan dugu, besterik ez, berari deitzeko etxera iritsi bezain azkar.

Sukaldean utzi dituzte dendatik ekarritako plastikozko zorroak. Ikurrina dute estanpaturik eta, gainean, K handi bat, Euskal Kalitatea, dioen ikurra. Damianek txantxarekin jarraitu du: ez dakit zuek bezalako gazte batzuek hemendik ezer jan edo edango duzuen, ikurrinak ikurrin, dena produktu frantsesa da eta. Auchan.

Inork ez dio ezer erantzun oraingoan eta telefonora alde egin du, gazteak eurak hasi direla lanean ikusi duenean. Zeregin apur bat ez zaie gaizki etorriko, pentsatu du bidean, bestenez zoratu egingo dira hemendik irten gabetan.

Izpizuak ez du berehalakoan hartu telefonoa. Haren emaztea jarri da lehenbizi eta ea zer moduz dabilen erantzun behar izan dio Damianek. Ederki dabilela. Sekula baino hobeto. Etxe-

ra noiz egingo dien bisita ere galdetu dio eta, halako batean, erantzun du Damianek, halako batean joango dela eurekin afaltzera. Nahi duzunean esan dio besteak.

Izpizuak ez dio gauza handiegirik esan: Jaioneren amak ezer ez dakiela bere alabari buruz; haren gauza apurren artean ere arakatu duela, baina ez duela deus arrarorik aurkitu. Haserretu zirenetik -ez dio esan zer dela-eta- ez dutela harremanik izan. Kosta egin zaiola Izpizuari zer gertatzen den amari ez esaten. Behin eta berriz galdegin diola zer gertatzen den jakin nahi duela. Lehengoan ertzain batzuk ere egon zirela Jaionegatik galdezka, eta badela zerbait mundu guztiak ezkutatu nahi diona. Esateko mesedez, zer gertatzen ari den.

Hari zerbait esan behar zioke norbaitek Damian, gehitu du Izpizuak. Andrea ez zagok lasai egoteko. Bazterrak nahasten hasiko duk baten batek ez badio ezer argitzen.

Konprenituko duk, Jose Ramon, ezin diogula Polloeko ikuskizuna erakutsi. Ulertuko duk beste edozer hobea dela alabaren zati horiek guztiak ama batek ikustea baino. Damianek bazekien

berak zer sentitu zuen zati haiek guztiak ikusi zituenean, eta hortik ateratzen zituen kontuak. Biderkaturik. Amatasunak biderkatu egiten baitu beste edonoren mina. Mila bider. Mila milioi bider. Berez. Eta berak bazekien, begien aurrean eduki beharrik gabe ere, zati haiek, han, Polloeko mahai gain hartan sakabanatuta zeudela jakite hutsak, aldatu egin zuela bera. Aldatu egin ziola bera bezalako hildakoari, bizitza. Izugarrikeriak ohituta gauzkala distantziara, telebista eta hedabideetako galbahera. Baina batere geruzarik gabe agertzen denean, aurrez aurre, ez dagoela zer eginik. Izugarrikeriak agintzen duela gauza guztien gaintetik eta norberaren samina ere irensten duela. Gehiago baita izugarrikeria samina baino. Irudi bat da. Pertsonak eraman ez dezakeen irudi bat. Ahalik eta lasterren ahaztu behar izaten den horietakoa.

Ama batek, ordea, ezin du. Ezin du gaintetik kendu izugarrikeria bere seme edo alabetako batekin egina denean. Ezin du gaintetik uxatu, eta une horretatik aurrerako denbora guztian, haren erregetzak, irudiaren erregetzak, aginduko du.

Lehenago minez erotzen ez bada, ama hiltzen den artean.

Bai, bazakiat, baina zerbait egin beharra zagok. Hark ez dik geldirik eutsiko. Zernahitarako prest ikusi diat nik.

Urrutikoetxeak erabaki dezala, bera duk profesionala. Eta ondoren, gutunontzian argazki bat jaso duela esan dio Damianek. Han Jaione eta gizon tximazuri bat daudela elkarren ondoan eta mahai batean eserita. Atzeko aldean, jendea ageri dela mozorroturik eta dantzan.

Erakutsi behar didak argazki hori, esan dio orduan Izpizuak, eta bai, baina bihar, erantzun dio Damian Arrutik. Bihar izan beharko dik, gaur arratsaldean, aspaldiko partez, nire euliak begiratu behar ditiat eta.

Esadak nolakoa den argazkian ageri den gizona. Esadak nor den Jaioneren ondoan ageri dena.

Eta Damianek ilekera bereziarena kontatu dio, kaskasoila estali nahi duen orrazkera duela, baina, harrigarrietan harrigarri, aurreko ilaretako adats guztiak nabarmen zuriak dituela, ilea bi

kolore kontrajarriz osatua duela, batere tarteko grisik gabe.

Ondoren agur esan diote elkarri, bi gazteei buruz hitz erdirik ere esan gabe. Ez aipatze hutsaren kariaz, kontu batzuk dauden lekutik desagertu ahal balira bezala.

Dutxan sartzea erabaki du Damianek, eta sukaldeko gazteak, apur batean bederen bakean uztea. Hala ere, hegaberen gogoeta egin du berriz. Gazteen hiztegi murrizarena, eta saiatuko dela Gorkak eta Leirek arbolaren baten izena ezagutzen ote duten jakiten, Gernikako haritzarenaz kanpo, prefosta.

Lepoa egingo luke ez dakitela bereizten hal-tza edo hagina. Izeia edo artea.

Bazkalondoan lo kuluxka bat egitea erabaki du Damianek eta euliei geroago begiratzea. Normalean egongelako sofa handian egiten du sies-ta, baina gaur nahiago du bere logelara erretira-tu eta ohe gainean etzanda, batere arroparik kendu gabe, manta koxkor bat gainean hartuta, lotaratzea. Gazteek espazioa behar dute ez ito-

tzeko, pentsatu du. Ihesi eta inoren etxean gordeta, ez dela pertsonarentzat egoerarik goziena. Eurentzat, beraz, egongela.

Eta orduan, argazkia mahaitxo gainean utzi duen unean ikusi du Lupek idatzitako oharra, ordura artean erreparatu gabe geratutakoa: Telefonoz deitzen didazunean, egia izango naiz. Bestenaz, ez naiz sekula existitu. Lupe.

Eta baietz, deituko diola erabaki du, baina gero. Urruti dagoela orain Lupe. Pentsatuko duela zerbait beranduago. Erabakiko duela zerbait. Asmatuko duela zer esan. Geroago. Lo egin eta gero. Arratsaldean edo ilunabarrean. Euliei begiratu eta gero, agian.

Ohe gainean etzanda, esku artean bi liburu ditu, bata Leirek emandako *El mal de Montano* da. Begiratua eman dio eta nobela bat dela ikusi duenean, kokoteraino dagoela pentsatu du. Kokoteraino dagoela hainbeste nobelarekin. Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, hiru hizkuntzetan irakurritako eleberri guztiez dagoela kokoteraino. Denak direla berdin-berdinak. Soilik gertailekuak izaten direla ezberdinak. Batean Moskun eta bestean Erroman. Edo hagitz txarragoa, as-

matutako lurraldeetan: Comalan edo Macondon. Gainerakoan, denek kontatzen dutela gauza bera: idazleak zenbat eta zein ondo dakien idazten. Ez besterik. Zer da nobela on bat. Ba al da inon halakorik. Jakin nahiko nuke bere izena.

Kokoteraino dago irakurketa antzuetan hainbeste denbora galdu izanaz eta oroit ditu nobela berri baten azalak kitzikaturik irekitzen zitueneko garai haiek. Inozoa halakoa. Irekitzen zituen orrialdeak eta bertan kontatzen zirenak asmatutako gezurrak zirela aurrez jakin arren, hitz korapilatu haietan aurkitu uste zuen bere bizitza antolatzekeo balioko zuten ereduak. Madame Bovary halakoak. Errealitatea aurkitu nahi zuen errealismoan. Asmakizun hutsa estaltzeko modu baizik ez den errealismoan.

Kokoteraino, bai. Orain kokoteraino dago. Bete-bete eginda. Nobela batek, kasurik hobereanean, denbora alferrik galtzeko baino ez du balio, erabaki du. Inoren hitz malabaretan begiak galtzeko baizik ez direla izaten, eta apur batean bederen ez duela fikziozko lan gehiago irakurriko. Ahal badu, inoiz ere ez.

Beste liburuari heldu dio orduan. Ez da ez handi eta ez txiki, baina paper finezko orrialde asko ditu. Lodi-lodia da. Liburu hotza dela esan daiteke, azaletik inor liluratuko ez duena. Hobe-to esanda, azalik ere ez diote egin inor liluratze-ko modukorik. Jakintza liburua dela dirudi eta, bai, *Entomología Forense* jartzen du erdi-erdian, eta apur beherago, bi egileen izenak: María Soledad Rodríguez Albarrán eta Juan de Dios Casas Sánchez. Aurkibidera jo du, eta han, Cronotana-todiagnóstico deitzen den atala aurkitu du, 407. orrialdean. Eulien marrazki batzuen artean aurkitu du behar zuena. Banekien, esan du, bane-kien ninfak hamar milimetro ingurukoak izateko, sei eta zortzi egun bitartean beharko zutela.

Erraza dago kontua: euliak gorpura heldu eta arrautzak jartzen hasiko ziren berehala, hainbeste janari ikusitakoan. Zortzi eta hamabi ordu bitartean behar izaten dute eguraldi epela de-nean, baina hango hozberoarekin hamasei edo hogeit beharko zituzten arrautzek. Egun bat ia. Gero, larba moduan, sei edo zazpi egun ninfa bihurtu aurretik eta, ondoren, hamar-hamahiru milimetroko ninfa bilakatu artean, beste zortzi

egun, gutxienez. Guztira hamabost edo hamasei egun, beraz. Bai, Jaioneren gorpua Arrasateko espeleologoek aurkitu zutenean, euliek gorpu-kietatik alde egin zuten, baina hantxe geratu ziren ninfarik zaharrenak eta larba gazteagoak. Ezin joanik inora. Hamabost edo hamasei egun zeramatzaten zati haiek leizean behera botata. Bai, hamabost edo hamasei egun, gehienera.

Ez diot oraindik Urrutiri esango, erabaki du gero. Bila nazala berak, ezer nahi baldin badu. Ez da komeni gauzak hain azkar argitzea, egun batetik bestera.

Eta lotaratu baino lehen, nobelaren gogoeta etorri zaio berriro burura. Hilda dagoen generoa dela esaten dute denek. Eta arrazoi handiz esaten dute hori. Neu ere horrexetan nago. Zertarako behar da hainbeste asmakeria beti gauza bera kontatzen jarduteko. Zertarako hainbeste hitz alferrikako, errealitatea hortxe dagoenean. Hatzen muturrarekin ukitzeko moduan. Polloeko mahai baten gainean. Horrelakoetan zertarako behar dira nobelak, baldin eta ez bada egiaren lekuan gezurra jartzeko.

Hilda dago nobela, bai. Zeharo hilda, Jaione eta ni bezain hilda.

LO, ordea, hilda ez balego bezala egin du: alde batera eta bestera jiraka izerditan, manta koxkorrean korapilaturik. Urduri. Bere burua aurkitu du atsedetik hartu ezinean eta estu. Larri. Ez dute etxean dauden bi gazteek kezkatzen, ez. Gutierrezek emango liokeen sei urteko kartzelaldiak ere ez. Mahaitxo gainean dauden bi paperek kezkatzen dute: Luperen oharrak eta argazkiak. Deitzen badidazu existituko naiz, horrek. Baina hori ere ez. Bigarrenak kezkatzen du, batez ere, izenik gabeko norbaitek bere postontzian sartu duen argazki horrek. Ezen eta erabaki baitu, argazki horrexetan egon behar duela, derrigorrez, Jaioneren hilketa ulertzeko giltza. Nork hartuko zuen, bestela, argazki hori bere etxeraino ekartzeko lana. Nork egin du hori, pentsatu du gero, nor izan daiteke, baina ez zaio erantzunik etorri.

Nor da argazkiko gizon tximazuri hori. Norzuk dira Jaione eta gizonaren atzeko aldean algaraka eta dantzan ageri diren horiek guztiak.

Zergatik daude mozorroturik. Eta hobeto erreparatu dio orduan argazkiari: Jaionek eta bere ondoko gizonak ere, paparrean zintzilik dituzte gomazko sudurrak, plastikozko betaurrekoak. Hasieran ez ditu horiek ikusi, baina, bistan da, argazkia egiteko kendu egin dituzte instant batez mozorroak. Atzeko aldean ikusten den dantzalditik erretiratu eta mahaian eseri dira, argazkilariak fotoa egin diezaien.

Non daude, zein lekutan daude, jarraitu du galdezka. Non ari dira egiten jai hori. Jatetxe batean. Taberna batean. Dantzaleku batean. Klub batean. Oxford Klubean, esanez, amaitu du azkenean korapiloa, eta bi eskuen gainean indartuta, eseri egin da supituan ohearen bazter batean. Badaki ez duela egingo gehiago lorik. Gaur arratsaldean ez, behintzat.

Ordenagailura joan da bizi-bizi, bidean aurkitu dituen bi gazteei apenas arratsaldean azkar bat esanda, eta eskanerrean jarri du buruz behe-ra argazkia. Scanwise. JPEG. Photoshop. Outlook express. Argazkiaren kopia bat zuzenean bidali dio Urrutikoetxeari ohar batekin: ezagutzen al duzu norbait. Bai horixe galdegin dio Damianek

Urrutikoetxeari, ea argazkian agertzen den nor-bait ezagutzen ote duen.

Ondoren egindakoa gorde nahi ote duen galdegin dio ordenagailuak, eta baietz, gorde nahi duela. Zein izenekin. Oxford Kluba, jarri dio izena argazkiari eta bere dokumentuen karpeta elektronikoan gorde du.

Gazteengana joan da gero eta, etorri nirekin esan die, oraintxe ikusiko duzue zer den biologia egiazkoa. Eskailerak jaisterakoan, erlezainek erabiltzen dutena bezalako bururako babes bana eman die Leire eta Gorkari: ez dute koska egingen, baina ezagutzen dut zoratzeko zorian jarri denik, eta abar, eta abar.

Eulien artera sartu dira hirurak sotoko geletako batean, eta Leirek, halako batez, gehiago ezin duela leku hartan egon esan du. Zoratu egingo dela burrunbarekin. Higuingarriak direla. Gorkak irribarre egin dio, begiak zabal-zabalik. Bistan da bera atsegin handiz dabilela zomorro haien guztien artean. Eulien zaparradak eskaintzen duen ikuskizunarekin harriturik.

Zertarako dituzu hainbeste euli bizirik, galdegin diote ikustaldia amaitutakoan. Zenbat daude, ehun mila, milioi bat, lau milioi.

Xuxen ez dakit, egun batetik bestera ugaltzen dira, eta zer jana emanaz gero, milioika jartzen dituzte arrautzak janariaren gainean. Ikaragarriak dira horretan. Arrautza horietatik larbak sortzen dira, gero ninfa bihurtzeko, eta azkenean euli. Hogeita hamazazpi mota ezberdinetakoak daude, baina denek badute gauza bera elkarrekin: hanken azpian aurkitzen duten elikagaia jaten dute. Hanken bitartez jakiten dute zer jan eta zer ez. Ez dira zozoak, janaririk ez badute ikusten, ez dute arrautzarik jartzen. Baina emaezue aukera eta ikusiko duzue miraria zein den handia. Hil eta jaio, hil eta jaio, halaxe dabil-tza beti. Egunero jasotzen ditut erratzaz hildakoa milaka, eta beste hainbestek, edo gehiagok, hartzen dute haien lekua. Ikaragarriak dira horretan, errepikatu du.

Baina zertarako dituzu hainbeste, eromenezkoa dirudi, galdegin diote berriz.

Ezertarako ere ez. Atsegin ditudalako.

Hegaberak bezala, esan diote orduan.

Bai, baliteke, erantzun du. Hegaberak bezala.

Luperi telefonoz hots egin baino lehen, zer esango dion ondo erabakitzen aritu da. Gauzak ez ditu arrapataka egin nahi. Emakume bat tartean denean alferrik dela iruditzen zaio, hala ere. Eginahalak eginda ere, gauzak beti joango direla berak uste ez duen lekutik. Emakumea beti izaten dela aldagai askea, aurrez neurtu ezinezkoa. Gizonarentzat.

Aurrez aurre egon nahi duela berarekin, horixe esango dio. Ez, bere etxean ezetz, jatetxe batean edo. Inorena ez den leku batean. Azkarregi dela esango dio bestelako hitzik bere ahotik oraingoz entzuteko. Bera ez dela horrelakoa. Bera lasai bizi dela eta beldur diola bestelako harremanetan sartzeari. Baietz, ulertzen duela bere ikuspegia eta nahia, baina, zer nahi duzu esatea, halakoxea naiz ni. Ez dut estropezurik nahi. Kosta egiten zait. Ez dut beste atsekaberik nahi. Bai, horixe esango dio: egia. Ez daukala ur handitan ibiltzeko asmorik. Ez dakiela igeri. Uler-tuko al du metafora, galdetuz amaitu du gogoe-

ta komuneko ispiluaren aurrean eta, hala, aurpegi alderantziz ikusten ari dela jakinda, hitz guztiak eta bakoitza egin zaizkio faltsu. Benetan esan izan ez balitu bezala. Bera ez den baten batenak balira bezala eta, bide batez, bere aurpegiari ere erreparatu dio aspaldiko partez: betiko lukainka traza daukak, Damian, esan dio bere buruari. Horretan ere ez haiz batere aldatu. Baina, bai, bere begiak ez direla betikoak, hori ikusi du. Heriotzaren zantzua, behar baino lehen hasia dela arrastoa uzten.

Telefonoan, ordea, ez dira gauzak berak uste bezala joan. Lupe jarri denean, egun osoan bere zain egon dela esan dio arrapaladan, hitz bat, batere tarterik gabe, besteari josiz. Ez dela telefonoaren aparailutik metro bat ere urrundu egun osoan eta asko pozten dela, berandu bada ere, deitu izanaz. Existitzen dela eta sekulako poza ematen diola horrek. Maitea. Damian maitea. Oraintxe joango dela, oraintxe etorriko dela, alegia, Zorionara, eta, klik, Damiani beste ezertarako astirik eman gabe, estreinako maite zaitut batez, eseki egin du telefonoa.

Damiani dardara sartu zaio, eta izua: polizia bat eta bi ekintzaile. Etxe berean. Teilatu beraren azpian. Ez da konbinazio makala, pentsatu du. Zakurra eta katua bezalakoak dira horiek, eta berriro markatu du Luperen telefonoa, ez etortzeko eskatzeko asmoz, baina ordurako hegan egin zen txoria habiatik. Zorionara bidean kantari, bihotza dantzari. Damianek horrelako zerbait sentitzea zer izan daitekeen bada-kiela pentsatu du, baina egiazki ez daki. Ez du jakin nahi. Ezin duela jakin begitandu zaio. Hala-ko gauzak ezagutzea eragotzia zaiola berari. Batez ere bi ekintzaile eta polizia bat, denak, aurrean eduki behar dituenean, une batetik bestera.

Gerta dadila gerta beharrekoa, eta une batez eskertu ere egin du benetan hilda egotea.

Lagunok, esan die bi gazteei, ertzain bat sartuko da aurki ate horretatik barrura. Ordu erdi barru edo. Emakumea da, nire laguna. Lupe du izena, brigada zientifikoan egiten du lan. Ez dut kalapitarik nahi berarekin. Zuek biok biologiako

ikasleak zarete Leioan, hirugarren mailakoak, eta nire euliekin tesia egin ote dezakezuen erabakitzera etorriak zarete egun batzuetarako. Gordeta dauden lekuan utzi bakean armak.

Baina..., hasi dira esaten bi gazteak, baina, ez dago bainarik, moztu ditu irmo Damianek. Bainak ortuan. Horixe da dagoena, ez besterik. Nitaz fidatu edo ez fidatu, hortxe dago koska. Hartu ala utzi, zeuok erabaki. Gelditu ala orain-txe bertan alde egin etxe honetatik, zeuok jakin-go duzue nora, ez dago tartekorik. Zuri ala beltz. Zeuok jokatu.

Gazteak euren gelara sartu dira eta Damia-nek eztabaidan entzun ditu. Neskak geratu egin nahi du eta mutilak ez. Ezin dutela hainbesteko arriskurik hain hurbil eduki. Neskak, orduan, Da-mianek aukera bat merezi duela esan du. Orain arte zintzo ibili dela eurekin. Eta ez dela ezer pasatuko esaten badu, ez dela ezer pasatuko. Sine-tsi egin behar diotela. Eta gertatuta ere, eurak bi direla eta ertzaina bat eta bakarra. Emakumea, gainera, esan du Leirek.

Damianek ez du lekurik. Ez du etxe barruan metro koadro nahikorik. Ez du arnasarik. Aurki

Lupe etorriko da eta beste bi horiek hemen. Kanpora noa, atarira, esan die ozen gazteei eta Argosen ondora joan da. Orduantxe etorri zaizkio gainera bi itzal handi. Bi itzal sekulako. Hortentsia loratzen hasi berrien artetik bi itzal ikaragarri eta, non duzu argazkia, galdetu dio batek, besteak eskuin besoa atzetik bihurritu dion bitartean. Eta, zaup, ukabilaz eman zio sabelaren erdian lehenbizi eta bularraren gainean ondoren. Zaup eta zaup. Non duzu argazkia.

Argosek zaunka eta zaunka, zaunka eta ez besterik, bi gazteak irten dira azkenean leihora eta, zer gertatzen da hor galdegin dute izuturik, bururik erakutsi gabe. Ezer ere ez. Ez da gertatzen ezer, ihardetsi du Damianek ahal bezain osorik, arnasa juxtu-juxtu ateraz galtzarbe inguruko zulo batetik. Egon zaitezte lasai. Ez ezazue egin ezer. Nire gelako mahaitxoan argazki bat dago, hartu eta bota leihotik hona. Horixe baizik ez dute nahi eta gizon hauek.

Bi gizon erraldoiak baretu egin dira lan erraza ikusi dutenean, gizona laguntzeko prest agertu denean, baina ez dute haatik Damianen beso bihurritua askatu. Egin dioten minarekin, besoa

bere lekutik atera behar diotela begitandu zaio Damiani. Horixe bakarrik nahi dugu, esan dute, argazkia. Ez besterik.

Orduan Damianek, gerta zitekeen okerrena ikusi du bere gelako leiho-ateen artetik agertzen. Gerta zitekeen gauzarik aldrebesena gauzatzen. Pistolaren muturra ikusi du agertzen, eta haren atzetik Gorkaren eskua eta, denok geldi hor, esan du hegaberak zer diren ez dakien mutilak. Filmetan bezala. Robert Mitchumek bezala. Kirk Douglasek bezala. Gary Cooperrek bezala. Denok geldi hor, eta ez inor mugitu. Atzera hortik. Utzi libre gizona, ahots dardartiz oihukatzen entzun du Gorka.

Makal eta lizar gazteen atzetik, errepidearen ertzetik, tiro lehor baten hotsa entzun da Gorka zegoen leihorantz. Pam. Ia jo ere egin du leihoko gaztea ezkutuko tiroak. Baten batek egin dio tiro arbola artean kukuturik. Pam. Inork ikusi eta espero ez zuen lekutik. Pam. Gela barrura sartu da bala. Denok geldi, esan du orduan Damianek ozenki, ez dago arazorik. Gregory Peckek bezala. Lasai. Henry Fondak bezala. Denok geldi. Garra-sika. James Stewartek bezala. Gorka, bota argaz-

kia behingoz eta zaude lasai. Ez da ezer gertatu-ko. Sinets iezadazu niri. Ezkutatu pistola hori, hemen ez da ezer gertatzen eta. Bota argazkia eta kito, horixe da dena. James Coburnek beza-la.

Haizearen firina baino ez da entzun ondorengo segundoetan, tarte handiagoa iruditu duten istant luzeetan. Golf jokalari zenbaiten takatekoak baizik ez, erabateko normaltasunaren agerka-ri. Tak eta tak. Takatekoak.

Leireren eskua agertu da halako batean su- kaldeko leihotik eta harexek jaurti du argazkia zela-hala. Lorategiko anemona artera erori da di- lindan, tximeleta lez, baina ez die loreei errepa- ratu boxeolari kankailuak argazkia jasotzera joan denean. Denak zapaldu ditu eta.

Azkenean, hala ere, Damian askatu egin dute harrapatua zeukan korapilotik, berarentzat mezu bat ere badaukatela esanez. Zein da mezu hori, galdegin du Damianek. Bazterrak nahasten ez ibiltzeko, muturrik ez sartzeko behar ez den lekuan, horixe da mezua. Kontuak ateratzeko, bestela.

Eta nork dio, bada, hori, ausartu da galdetzerara.

Aita Sainduak, erantzun diote irri artean.

Alde egiterakoan ere, umoreari eutsi diote, argazkia hain azkar eskuratu izanak poztuta. Galdera egin dio atzetik helduta eduki duen gizonkoteak: zertarako duzu zakur hori, loreen artean txiza egiteko ez bada. Horixe esan dio, Argosek loreen artean txiza egiteko bakarrik balio ote duen.

Ezkutuko autoan, tiro egin duen gizonezko kukutua bolantean dela, egin dute alde. Hiru gizonak. Hiru sasikumek. Ziztu bizian.

Orduantxe agertu da Lupe bere Clio urdinean, nortzuk ziren horiek maitea, galdetuz, eta Damianek uste izan du, une batetik bestera, zerua erori egin behar zitzaiola buruaren gainera. Zerurik inon baldin bada. Eta baietz, hobe zukeela benetan hilda balego behingoz, erabaki du berriz ere.

Damian harritu egin da, gauzak batzuetan zein modu harrigarrian gertatzen diren ikusitakoan. Gutxien uste duzunean, hodeia erretiratu egiten da eta haizea epeldu. Kolorgeak margo hartzen du eta lahar artean, arantzak ezkutatu eta masustak bakarrik ikusten dira. Heldu-heldu. Gozogo.

Berak uste zuen Lupe eta gazte biak, gazte biak eta Lupe, arazo izango zirela elkarren ondoran jarritakoan. Txinpartak ere irten zitezkeela konbinaketa harrigarri horretatik. Bi ekintzaile eta ertzain bat. Bai, egia da ertzainak ez dakiela ezer. Biologiako ikasleak direla esan zaiola. Baina, beste biek bai. Hari guztiak ezagutzen dituzte. Baita ezagutu berri duten Lupe Latasa, ertzaina lagun bat baino apur bat gehiago ere bada etxe horretan. Ikusi beharrik ez dago zelako erosotasunaz dabilen atzera eta aurrera. Gauza guztien lekua ezagutuko balu bezala. Bertakoa balitz bezala.

Baina ez da halakorik gertatu. Ezta gutxiagorik ere. Boxeolariek eragin duten ekaitzaren ostean era hain amultsuan jarririk, ematen zuen euretako bakoitzak zeukan izaera arriskutsua albo batera utzirik, argi guztia berari, Damiani, zegokiola. Bera izan dela gaueko izar bakar izendatua. Aho batez. Ez dagoela denborarik, ez biologiarentzat eta ez Lupek bidean zekartzan emakume amodioberrituaren desioentzat. Are gutxiago begien aurrean bere lana azken muturre-raino eramateko aukera daukala ikusi ere egiten ez duen polizia batentzat. Eta arnasa hartu du Damianek, urpetik irtendakoan bezala, sortu den harmonia, irudizkoa baino, benetakoa dela ikusi duenean.

Ezen ezin baita ukatu hirurek azkar egin dutela elkarren ezagutza. Inork ez du esan egia. Lupek ez du esan ertzaina denik. Bi gazteek ez dute esan ekintzaileak direnik. Baina gezurrik ere ez diote esan elkarri. Ez da horretarako beharrik sortu oraino. Ematen du hirurek erabaki dutela, gezurrak besterik ezean erabili beharreko tresnak direla.

Har dezagun trago bat, esan du Damianek, gainerakoek ezin ulertzeko moduko pozak eraginda. Hozkailutik bitter gorri batzuk aterata, izotza eta laranja azalaren zatiez zerbitzatu ditu. Cinzano bitter soda. Made in Milano. Italy. Espero zitekeen odolaren antzeko bakarra, Milango gorri horrena izan da. Mikatza zein den gozo, bartzuetan, esan du Lupek ezpainak busti ditue-nean.

Gainera, Damianek zantzu arraro bat ere sentitu du. Gertatzen denaren narratzaile bakarra bera baizik ez daitekeela izan, horixe sentitu du. Bera bakarrik dela hari guzti-guztiak eskue-tan dituen. Gertatutakoaren alde guztiak eza-gutzen dituen bakarra bera dela. Eleberriti esa-ten omen diote horri lekuren batean. Eta gogora etorri zaizkio eleberria hilda dagoela eta, lo ku-luxka baino lehen egin dituen pentsamendu ero guztiak. Grazia dauka, pentsatu du, neu izatea gau honetako nobelagilea. Neu, lau esaldi ja-rraian esaten ez dakien hau, izatea beste denek ezagutu nahi duten istorioaren jabea. Eta profi-tatu egingo duela pentsatu du, ustekabean erori

zaion berezitasun berria. Kontatuko ditu bai, kontatu beharrekoak, baina berak nahi bezala.

Lauron arteko afariak irauñ duen bitartean -merkatalguneko arkume txuletak, gaztearenak direnean, ez dira hain txarrak egoten-, beste guztien begiak egon dira berari so. Ia elkarri ez diote erreparatu ere egin beste hirurek, denak egon baitira hain loturik Damianek esandakoetara, bere kontakizunaren arrastora. Bere ahotik irrendakoetatik dilindan egon dira denak.

Batek, zertarako nahi zuten gizon horiek argazkia, galdetzen bazuen, zer zen, bada, argazki hori, galdetzen zuen Lupek. Edo, bestela, norzuk ziren, bada, gizon horiek. Hark ez baitzekien ezer, hiru gizonekin gertatutakotik. Bi gazteek zekitenari, Lupek ez zion antzik hartzen, eta alderantziz. Hasieratik kontatu behar izan ditu Damianek gauzak.

Lupek Jaioneri buruz galdegiten bazuen, besteek esaten zuten, nor da, bada, Jaione delako hori. Eta horrela. Batak filmaren hasiera ezagutzen zuen, eta besteek bukaera.

Hari guztiak, Damianen esku bakarrik egon dira. Bera izan da titiriteroa eta beste hirurak,

txotxongiloak. Gertakizunak ezagutu nahiaren harian zintzilikaturiko txotxongilo haragizkoak.

Hau esan eta besteari erantzun, gertatutako guztia kontatu die Damianek azkenean. Bi kontu gorde ditu, hala ere, bere kolkorako. Eta ez da izan esateko asmorik ez daukalako. Ezta gutxia-go ere. Ez dago bere baitan ezer ezkututzen ibiltzeko asmorik, azken finean gazte horiek bata eta bestea izango dira, baina biek ala biek atera dute handiagoa eta gaitzagoa izan zitekeen ataka arriskugarritik. Normalena ihes egitea zuten, golf alderako leihoetatik. Baina aurre egin diete hiru kankailuei. Ahal izan duten bezala. Eta Luperi ezer ezkututzen ibiltzea ere alferrik izango da, pentsatu du, denak jakingo ditu azkar edo berandu eta. Hobe ditu nire ezpainenatik.

Alabaina, beste baterako laga du berak zekiena: Jaioneren gorpukiak noiztik zeuden leize zulora botata. Eta beste kontua ere azkenerako utzi du, narrazioak bere unerik gailurrena hartu duenerako. Beste hiruren galdera aztoratuen artean une egokia iritsi denerako.

Zer zegoen argazkian, galdegin dute behin eta berriz. Zer ageri zen bertan. Zergatik nahi

zuten argazkia. Gizon horiek. Nork bidali ditu. Zer egingo duzu orain argazki gabe. Eta abar, eta abar.

Irri zabal bat egin du Damianek une hori iritsi denean, eta atsegin handiz azken lerroa idazten duen eleberrigile baten dardara bera dela pentsatu du, zainetan sumatzen duen kitzikadura hori. Heinrich Böll sentitu da. Faulkner sentitu da. Truman Capote edo Joseph Conrad, edo beste edozein, bere nobelako azken esaldia idazterakoan bezala.

Gizon horiek nortzuk ziren edo nork bidali dituen ez dakit. Hurrik eman ere ez. Baina ez dago arazorik, esan du, ordenagailuan daukat argazkiaren kopia bat, eta denek egin dute trufa eta irri, ordenagailura egin duten presakako bidean.

Txakur zaharra dirudizu, esan dio Lupek. Nola deitzen da elurretan sekula galtzen ez den hegatzia, galdegin dio ondoren Gorkak.

Basoilarra, *Tetrao urogallus*, erantzun du Damianek irririk galtzeke.

Ordenagailua piztu eta bi klikadaren ostean, erdi-erdian agertu da Jaione eta gizonaren argazkia. Hirurek aldi berean aldatu dute aurpegia. Hi-

rurek galdu dute irribarrea. Begien aurrekoa ikusi bezain azkar esan dute nahasian, baina gizon hori, baina gizon buruzuri hori, Bankutxako lehendakaria da. Jaime Aranbarri deitzen da. Ezaguna oso. Beti dago egunkarietan.

Eta orduan bai, orduan Damian ere konturatu da argazkia ikusi zuen estreinako aldian eduki zuen zantzu hura egiazkoa izan zela. Izena entzun eta gero berak ere bai baitaki ezagutzen duela Jaime Aranbarri, Bankutxako lehendakaria. Jaioneren ondoan irri faltsuz ageri den gizon buruzuri hori. Eta irria ezpainetatik zeharo urrundu-ta, ederki jakin du nork bidali dizkion gaur arratsaldean hiru borrero itzelak argazkia bere eskuen artetik kentzera. Kosta ahala kosta.

Eta Aranbarri bezalako gizonak badira Oxford Klubekoak, txiki-txiki egin eta zakurren jana egin dezaketela berarekin, sentitu du. Ur handiegitan sartua dela oharkabea, eta balitekeela olatu handi xamarren batek burua hondotik jasotzen ez lagatzea.

Biharamun goiza da eta Urrutikoetxearen bulegoan, Larrañaga forentsea ez besteko guztiak daude bilduta: Damian, Lupe, Mangas, Leniz eta Urrutikoetxea bera. Dena hitzez hitz eta poliki-poliki kontatzeko eskatu dio Damiani tenienteak. Kontatzeko nola eta noiz jaso zuen argazkia eta, batez ere, esateko berari, Urrutikoetxeari, zergatik ez zion horren albiste eman berehala.

Horixe egin nuen lehenengo gauza, zeuri bidali nizun posta elektroniko. Eta Damian gizon haiek argazki bila joan zitzaizkioneko unera iritsitakoan, lehor eten du Urrutikoetxeak haria: nork zekien argazki horren berri. Horixe galdegin dio, ea nortzuk zekiten argazki hori existitzen zela eta zure eskuetan zegoela.

Zu zeu zinen bakarra, erantzun dio, eta argazkia nire gutunontzian jarri zuena ere bai, jakina. Baina ez dakit nor izan daitekeen nire etxeraino hori ekarri duena.

Ez zaitez lerdoa izan Arruti, erantzun dio tenienteak, nik oraintxe, zuon aurrean zabaldu dut estreinakoz posta elektronikoa. Ezer bidali zeni-danik ere ez nekien. Zertarako dago telefonoa, galdegin du haserre, eta jarraitu egin du hizke-

tan. Inork ez zuen zure etxeko postontziraino isilpean joateko lana hartuko, ondoren argazkia zure eskuetatik kentzen ibiltzeko. Inor ez da hain zozoa. Beste norbaitek ere bazekien argazki hori zure eskuetan zegoela. Derrigor.

Eta Damianek lurrikara bat sentitu duen arren, ez du deus esan. Hanka azpiko lurra pitzatu zaio eta ez du, hala ere, ezer erantzun. Barrua supituan usteltzen hasi zaio, baina isilik geratu da zeharo. Mutu. Burua galdu duten ero askoren antzera. Hildako animaliak bezala. Harriak bezala. Mutu erabat.

Pentsa ezazu ondo eta ezer berririk bururazten bazaizu, hots egin. Beste norbaitek ere eduki behar zuen argazkiaren berri. Latasa, agindu dio gero lehor Luperi tenienteak, ez duzu gizon hau istant batez ere bakarrik utziko. Eta zuek biok, esan die Mangas eta Lenizi, etorri nirekin. Aranbarri jaunarekin hitz egitera joango gara oraintxe bertan. Ostirala da. Bulegoan harapatuko dugu. Eguerdia baino lehen.

Polizia-etxetik irten direnean, udatik aurreratutako eguzkiak erre egiten zituen begiak, baina Damian ez da konturatu ere egin. Berdin dio ho-

rrek. Berdin dio eguraldiak. Berdin dio Lupe bere itzal bihurtu beharrak ere. Gorpukiek leizean hamabost edo hamasei egun zeramatemala Urrutiko-etxeari esatea ere ahaztu egin zaio. Baina futitu egiten da. Berdin dio horrek guztiak. Bost axola horrek guztiak eta beste guztiak ere bai. Soilik galdera batentzat dauka lekua buruan. Ertz eta tarte oro betetzen dizkion galdera da. Metalezkoa edo, behintzat, merkuriozkoa. Gai kimiko astun eta garratzez egindako galdera mota horretakoa.

Eta ia ezin du ibili ere egin kalean galderaren kausaz. Pauso egokia ezin du erabaki. Kosta egiten zaio, zango bat eta gero beste bat, bakoitza bere urratsean jartzea. Eseri egingo litzateke. Apartatu egingo litzateke. Desagertu egingo litzateke.

Ez du, ordea, Lupek ezer nabari diezaion nahi. Ez du inork ezer nabari diezaion nahi, baina ez da segur lortuko duenetz. Antzerkiak luze iraungo ote dion, ala, aitzitik, kalean doazen herritarren begi galduek ere nabarituko ote duten pauso bakoitzarekin golem astun bilakatzen ari dela. Pauso batetik bestera, bere tripetan eztan-

da atomiko bat gertatzeko arriskua gero eta hurbilago dagoela.

Bere begietan dena ikus garbi ikus daitekeela iruditzen zaio, eta ezkutatu egin du begirada lurrerantz. Asfalturantz.

Galdera bakar eta single bat du buruan, baina, hori bai, bere hesteak harri bilakatzeko gaitasuna duen galdera da, inondik ere.

Nork bestek zekien argazkiaren berri. Horixe du galdera. Eta badaki erantzuna. Eguzkia hor goian argitan dagoela bezain ederki daki. Sinetsi nahi ez duen arren. Pentsatu nahi ez duen arren. Jakin badaki zein den erantzun bakarra. Ederki asko jakin ere.

Igandea da gaur. Baina berdin dio horrek abaildurik dagoen Damiani. Azpian hartu du joan zen ostiralean Urrutikoetxeak egin zion galderak eta ezin du ihes egin pisuaren petik. Bere baitara kiribildurik dago. Ia bere gelatik irten eta hitzik esan gabe inori. Hitzik esan gabe Luperi, bere itzal derrigorrezkoari. Utz nazazu lasai, Lupe, esan dio pare bat bider emakumearengan sortzen duen ezinegonaz konturatu gabe. Emakumearengan noraeza sortzen duela ikusi gabe. Autopistan zamaz kargaturik ibili ohi diren kamioiak bezala dabil emakumea. Pasaiaiko ontziak bezala. Auto berriz betetako tren atzera-aurrerratiak bezala. Orain iparrerantz, berriz hegorantz. Orain hemen geldi, pixka batean. Berriro abiatzeko, gorantz, beherantz, jakin gabe norantz. Inoren etxean nola jokatu, non ezkutatu asmatu ezinik utzi duen emakumeari begiratu ere ez dio egiten gizonak. Haren asaldurari baliorik batere emateke. Nahikoa baitu berearekin. Nahikoa ez,

gehiegi. Gehiegi du harrizko egin zaizkion hesteak bere lekuan edukitzearekin.

Zer duzu, Damian, emakumeak. Utz nazazu lasai, Lupe, gizonak. Ez besterik. Ezin dizut ezer kontatu. Baina utz nazazu lasai. Erregutu egiten dizut.

Atzo, oharkabeen, alde egin zuten bi gazteek. Horiek ere fitsik esan gabe. Agur eta eskerrik askorik esan gabe. Etorri bezala, alde. Hegaberek egiten dakiten moduan. Haizeak egiten duen moduan. Etorri eta alde. Oharkabeen.

Damu da orain Damian haiekin egondako denbora gehiago ez profitatu izanaz. Gazteekin egoteko aukera ez erabili izanaz. Bera Irlandan ibili zeneko adinean ziren biak, Gorka eta Leire, ezin, hala ere, bera bezalakoak balira lez ikusi. Bera helduagoa zen. Bera arduratsuagoa zen. Bera helduagoa zen hogeita lau urterekin. Berak emandako pausoak ulertzekoak ziren. Berak historia ezagutzen zuen. Chahoren berri bazeukan. Agirre, Galindez eta Monzonen albiste. Berak hegaberak zer ziren bazekien. Oraingo gazteek, ez. Eta damu da horretaz guztiaz mintzatzeko aukera hartuez izanaz.

Ulertu nahiko lituzke. Jakin egin nahiko luke oraingo gazteen barneko habian bere garaiko txori berak gordetzen diren, ala, aitzitik, ezberdinak ote diren. Ezberdinak ote diren gaur eta atzo, hegaberak mugiarazten dituzten arrazoiak. Berak hala uste du. Ezberdinak direla orduko eta gaurko haizeak. Orduan ulertzekoak zirela berak eman zituen pausoak. Beste biderik ez zela. Emanda etorri zitzaiola berari aukera. Erreteen jarraitzea baizik ez zela izan berak egindako bidea.

Gaur ez daki, ordea. Ez daki erreten berak jarraitzen ote duen. Ez da segur beste biderik ez ote den. Eta jakin nahiko luke. Jakin nahiko zukeen.

Damian ez da bere gelatik ia irten ere egin bi egunetan. Soilik atzo arratsean, Lupek sarrerako atea ireki eta emakume bat zegoela esan zionean. Véronique zen.

Ez zion bere etxetik barrura sartzen utzi Véroniqueri. Zorionaren atea gurutzatzen ez zion utzi Véroniqueri, Ziburuko adiskideari. Ziburuko zoroari. La folle. Utziz gero, alkoholetan itoko litzatekeenari. Arnasa hartzeko ere isiltzen ez den

Véroniqueri. Zimurtzen hasitako neskari. Halako abaguneetarako geratzen zitzaion lagun bakarriari. Ari, ari, ari.

Eta haren begi hezeetan ikusi zuen ez zegoe-la jada zer egiterik. Alferrik zela, nor da beste emakume hori, galderari erantzuten hastea. (Nor da emakume ederrago hori). (Nor da emakume gazteago hori). Ez zegoela nondik. Ez zegoela inola. Ez zegoela modurik. Ez zegoela hitzik, ez dakit zer gertatu den, esatea baino askoz harantzago joango zenik. Berak ez duela erantzun metafisikorik edukitzen. Ez dakiela horrelakorik. Ez dakiela erabiltzen goi-arnasarik. Izatekotan ere, egun batzuk barru kontatuko dizut gertatutako guztia, bezalako dorpekeria mundutar bat otuko zitzaiola. Edo, ez zaitez jarri horrela, Véronique maitea. Gehienez ere.

Horretarako hobe, ordea, ezer ez esanda. Ziburukoari aurrez aurre begira eta mutu geratuta. Véroniqueri ezer esan ez eta gizona gizon baizik ez dela izaten erakustea. Gizona beti dela hegabera. Elurretan galtzen den hegabera.

Erantzunik ezean, Véroniquek hartu zuen hitza: banekien zeuk ez zenuela ezer egingo eta

hauxe ekartzeagatik etorri naiz. Floch jaunaren bitartez lortu dut. Eta alde egiteko bizkar eman baino lehen, barnean dakartena airezko bolatxo babesten duen horietako enbelopa bat eman zion eskuetara Damiani, ez horregatik, gehituz. Gero, besterik esan gabe, joan egin zen. Etorri bezala alde, Véroniquek ere. Isil-isilik.

Damian atalasean geratu zen, paketetxoa eskuetan, Véroniqueren autoa makal eta lizarren artetik ezkutatu artean. Gero, ostiko bat jo zion bere ondoan buztanarin zebilen Argosi. Loreen artean txiza egiteko baizik balio ez duen zakur ganorabakoari. Pasa txokora. Toma hemendik.

Enbeloparen barruan, kutxatila bat aurkitu zuen. Pospolo kaxa handi baten neurrikoa. Dena egurrezkoa, kristalezko alde bat izan ezik. Barnean kotoia, kotoi zuri-zuria, eta kotoian orratz batez josirik, intsektu idor txiki-txiki bat. Sekula ikusi gabekoa izan arren, berehala ezagutu zuen Damianek Véroniquek ekarritako zomorroa. Zenbat ordaindu ote zion Floch jaunari.

Marrazkietatik ezagutzen zuen, argazkietatik ezagutzen zuen, bere ametsetatik ezagutzen zuen, desiretatik ezagutzen zuen: *Necrobia ruffi-*

collis. Necrobien bilduma amaitzeko, hainbeste urtean lortu ezin izandako intsektua. Koleoptero preziatua.

Eta Damianek jakin zuen, han behera, makal eta lizar arteko errepidean zihoan autoan sartuta, munduan bera hobekien ezagutzen zuen emakumea zihoala. Bera gehien maite zuen emakumea zihoala, seguru asko. Betiko zihoala. Bere bizitzatik. Bere ondotik.

Auskalo nora.

Nor zen emakume hori, galdegin zion gero Lupek. (Nor zen emakume eder hori). (Nor zen emakume begi eder hori). (Nor zen ni baino interesgarriagoa zirudien emakume hori). Véronique deitzen da. Nire aspaldiko lagun bat, erantzun dio. Hauxe ekartzera etorri da, eta kutxatxo erakutsi zion.

Txiki-txikia da, eta itsusia benetan zomorroa. Eskertu egin du Lupek, azkenean, euren biez kanpoko gai berri bat agertu izana. Atean aurkitu duen emakumeaz hitz egin beharrik eza.

Eder-ederra da eta bizitza ematen daki heriotzaren bitartez.

Zer da kontu hori.

Kontu zahar bat.

Esadazu.

Gero.

Eta Damian bildumak gordetzen dituen gelara sartu zen bere atzean atea itxiz, bere atzean ezin esandakoak esan beharraren lanak utziz. Gero. Izatekotan. Eta ahal bada, inoiz ere ez.

Letra etzanez *Necrobiak* eta *Corynetesak* jarritzen zuen tinta beltzez kristalezko mahai handi batean. Beirazko estalkia jaso eta hantxe jarritzen zuen Damianek *Necrobia rufficollis* iritsi berria. *Necrobia rufficollis* desiratua. Hutsik geratzen zen leku bakarrean. *Necrobia coeruleus* eta *Corynetes rufipes* izeneko koleopteroen artean. Bere lekuan.

Gero eseri egin zen, besaulki belarridun ubel batean eta, klik, amatatu egin zuen gela argiztatzen zuen argimutil bakarra. Hantxe egon zen ilunpean, bilduma amaitutakoan, bildumagileak ez duela izateko zentzurik pentsatzen. Bildumagilearen absurduaz jabetzen. Bildumak iraultzen

antzekoak direla ere pentsatu zuen. Egin bitartean soilik balio dutela, alegia, iraultzek eta bildumek. Gero alferrik dela beste guztia. Galdu egiten duela funtsa bildumagileak behin bilduma osatu denean. Galdu egiten duela funtsa iraultzaileak, iraultza egina denean. Beste aldi bat hasten dela hori egindakoa eta hor ez dutela zer eginik ez batak eta ez besteak.

Erokeriak pentsatzen hasita zegoela ere pentsatu zuen. Erokeriak pentsatzen hasita zegoela pentsatzen hasita zegoela. Agian Jaionek arrazoa zuela eta euli eta intsektu haiek guztiak Arantzadiri ematea ez zela kontu txarra. Azken finean, bera hil eta gero ere, haiena izanen zela zomorro haiek guztiak zaindu eta erakusteko ardua. Hori ez zela bera bezalako bildumagile baten zeregina. Beste kontu bat zela hori guztia.

Eta zomorro hitza bururatzearekin batera, Jose Ramon Izpizua etorri zitzaion gogora. Aspal-diko laguna. Gizon aparta. Kaka zaharra. Hura ere Oxford Klubekoa izaki. Zalantzarik gabe. Nork esan zion, bestela, Aranbarriri, eta hain azkar gainera, berak, Damianek, zeukala argazki hura. Nork esango zion hori Izpizuz beste inork

ez bazekien bere eskuetan zegoela Jaioneren argazkia.

Zer egiten da, pentsatu zuen gero, halako gertaeretan. Zein da pauso zuzena. Ez zegoen prestaturik, ez zekien nola jokatu, ez zekien zer egin. Kartzinomaren albistea jaso zuenean bezala. Elbarriturik. Harrizko bihurturik. Kaka zaharra hori ere. Batzuetan ahaztu ere egiten zitzaion hilda zegoela.

Zein aurpegi jarri behar zion Izpizuari elkar ikusitakoan. Esan egin behar al zion Urrutikoetxea tenienteari bere lagun bihotzekoak traizionatu egin zuela. Iloba etxean gordea zion arren. Ez, hori ezin zion esan. Iloba iheslariarena ezin zuen aipatu. Esker txarrarenik ere ez. Gizon guztiak direla beti hegabera. Ulertuko al zion Urrutikoetxeak hori. Ulertuko ote zion halakorik beste hegabera batek. Hipokrisia, itxurakeria, azaluskeria balio handikoa dela gaur. Nori esan behar zion horrelako gauza bat. Nork ulertuko zion horrelakorik hitz gutxitan. Metafisikarik gabe. Zein belarritan hustu behar zuen hainbeste gertaeren zama.

Ezin zitekeen izan, ordea. Nola egongo zen, bada, Izpizua Jaioneren hilketan nahasita. Ezinezkoa zen hori. Lagunak ziren, biak ala biak. Eta, batez ere, oso lagunak Jaione eta Izpizuaren emaztea, Marta.

Gelako atea zabaldu zen halako batean. Lupe zen afaritara deika. Zatoz Damian, zatoz, esan zion. Nahikoa eduki duzu eta. Lupe zen, bai, hitz denak neurtzeko egiten zuen ahalegina ezkutatu ezinik. Lupe zen, existitzen zela ikusten hasitako gizona uxatuko ote zuen beldurraz estalirik.

Berehala joango naiz, erantzun zion gizonak, baina beste ordubetez hantxe geratu zen. Ilunpean. Nola jokatu erabakitzeko, argiren bat aurkituko zuelakoan. Bere buruak, behingoagatik, benetan zer nahi zuen erakutsiko ziolakoan.

Jaionerik gabe, Izpizuarik gabe, Véroniquerik gabe, bakardadearentzat bazka erraza izateari nola lagako zion erabakitzen. Erabakiko zuelakoan.

Bai, kontatuko dizut. XVIII. mende amaierako urteetan izan zen. Amaiera-amaieran. 1794an

edo. Frantziako Iraultzaren ostean. Bordeleko portutik ontzi handi bat itsasoratu zen, Guyana aldera presoak zeramatzala. Halako batean, jendarmeen bergantin arinago bat hurbildu zitzaion itsasoaren erdian, presoetako bat handik atera eta berriro lehorreratu behar zutela esanez. Gizon hori Pierre André Latreille deitzen zen, elizgizona eta Errepublikari eta Iraultzari sekularmen ez ziola egingo esanda zeukana. Horregatik zigortu zuten, hain zuzen ere, ez zuelako iraultzaileen aginte berririk onartu nahi. Inola.

Ordurako zoologo handia zen Latreille abadea, baina ez zioten horregatik barkatzen Iraultzaren aurka ibili izana. Beranduago, gainera, Parisko Zoologia Museoan katedra lortu zuen.

Bordeleko kartzelako ziega batean eduki zuten lehenbizi, ontzi hartan eraman zituzten gainerako preso guztiak bezala. Han zegoenean, zomorro harrigarri bat ikusi zuen lurzoruko harlauzen artetik irteten. Txikia zen, zentimetro erdi baino ez luze. Hala, bada, zomorroari begira ari zitzaion tenorean, kartzelako mediku jauna sartu zen eta ea zeri begiratzen zion galdegin zuen. Eskuetan zeukan zomorroa erakutsiz, orain arte

sekula ikusi gabeko zomorroa da hau, koleoptero arras interesgarria, erantzun zion Latreillek.

Medikuak zomorroa hartu eta bere lagun bati eraman zion, Bory de San Vicent entomologo ospetsuari, hain zuzen ere. Baina honek ere ezin izan zuen zomorroa ezagutu eta klasifikatu. Horregatik erabili zituen bere indar eta lagun guztiak, kartzelan zegoen abade eta zoologo haren aldeko askatasun agiria etor zedin. Zomorro hura zein motatakoa zen erabakitzeko, ezinbestekoa zen Latreille.

Berandu etorri zen apaiza askatzeko agindua, ordea. Itsasontzia Guyanarantz abiatuta zegoenean. San Vicent-ek ez zuen etsi, hala ere, eta jendarmeei erregutu zien gizon hura ekar zezatela lehorrera berandu baino lehen. Frantziatik urrun, betiko zeraman ontzi hartatik ekarri zuten arte ez zuen etsi.

Eta nola izaten diren gauzak, agindu hura apur bat beranduago iritsi izan balitz, Frantzia bere zoologo handiena gabe geratuko zen. Hiru egunen buruan hondoratu egin baitzen ontzia eta bertan zihoazen preso guztiak itsasoan ito eta galdu. Ohikoa izaten zen hori, bestalde. Iraul-

tzaren aurkako guztiak behingoz gainera kentzeko egiten zuten hori.

Kontua da, ekarri egin zutela abade hori eta aukera eduki zuela bere intsektua aztertu eta klasifikatzeko. *Necrobia* izen generikoa jarri zion, grekotik hartuta. Hitz horrek, bizitza ematen dizut heriotzaren bitartez, esan nahi du. Horixe esan nahi du. Heriotzatik libratu zuelako jarri zion izen hori Latreillek.

Kontatu didazun dena gezurra da. Zeuk asmatu duzu oraintxe bertan, esan zion Lupek irriz. Egia hutsa da.

Ezin du izan egia hainbeste kasualitatek eta gertakizunek gizon bakarraren bizitzan. Egiazko bizitzan ez da gertatzen hainbestekorik.

Kontatu dizudana, egia da. Egia garbi-garbia. Damian, esan iezadazu zeuk asmatu duzula oraintxe bertan. Asmakeria dela. Gezurra dela. Niri ipuin bat kontatzeko asmatu duzula hori guztia.

Hala nahi baduzu, esango dizut: gezurra da. Gezur borobila. Zer ardura dio horrek, gainera. Zer ardura dio gezurra ala egia izateak. Oso antzekoak dira biak. Berdin-berdinak.

Banekien gezurretan ari zinela.

Zuk hala nahi baduzu, bai: gezurretan ibili naiz. Baina egia esan dizut. Ez zaitez kezkatu, hala ere, ezagutzen dut kontrakoa eta. Ezagutzen dut bizitzaren bitartez heriotza ematen dizun zomorro txiki-txiki bat ere. Berak bizi behar duelako, zeu hiltzen zara. Zeu hiltzen zaitu. Heriotza ekartzen dizu bere bizi behararren bitartez. Kartzinoma deitzen da. Kartzinoma ezkataduna. Korrokoiak bezala. Baina, zer ardurara dio horrek. Biak dira berdinak: gezurra eta egia. Berdin-berdinak.

Bai, gaur igandea da eta Urrutikoetxeak egin du dei, goizean goiz. Aranbarrik ez ziola ezeri erantzun nahi izan esateko. Bere bulegoan aurkitu zutenean, ukatu egin zituela esan zitzaizkion guzti-guztiak. Ez zuela Jaione ezagutzen. Berak ez zuela inor bidali Damian jipoitzera. Horiek filmetako gauzak baino ez direla. Ea zer zela eta joan ziren hara, bere bulegora, hiru ertzain. Ea epailearen agindurik bazuten horrelako gauza bat egiteko. Eta ez bazuten, irteteko Bankutxatik

berehala. Jendea gauza harrigarriak pentsatzen hasiko zela eta.

Argazkia erakutsi ziotenean, ordea, gainbehera etorri ei zen gizona. Ezkur bat bezala. Bai, horixe esan zuen Urrutikoetxeak. Ezkur bat bezala. Eta harritu egin zen Damian. Berak beste irudi bat espero baitzuen polizia haren ahotik: karta-gaztelu bat, elur bola bat. Ez zuen espero, ordea, ezkurra aipatzerik. Beraz, baietz, ezagutzen zuela Jaione. Eta zer, galdetu ei zuen. Hori ez dela inolako hobena. Jende askok ezagutzen zuela Jaione. Bere senar ohia den Damian Arruti entomologoak ere ezagutzen zuela, besteak beste.

Argazkiaren atzeko aldean mozorroturik ageri ziren gainerakoak nortzuk ziren galdetuta koan, berak ez zekiela ezer erantzun zuen. Baina hanka sartzea, argazkia non zegoen aterata galdetu zitzaionean egin omen zuen. Ez zekiela erantzun baitzuen. Oxford Klubean, esan ei zion orduan Urrutikoetxea tenienteak eta handik aurrera argitu omen zen argitu beharrekoa: gizon eta emakume askeek nahi zutena egiteko lagunarte bat baizik ez zela Oxford Kluba, horixe

esan omen zuen Aranbarrik, eta hori ere ez zela hobena.

Bada, bai, erantzun omen zion Urrutikoetxeak, legez kanpoko da, putetxeez kanpo, inori sexu mesedeen truk dirua ordaintzen ibiltzea. Orduan ekarri epailearen agindua, esan ei zuen besteak.

Eta Urrutikoetxeak eten egin zuen kontakizuna une horretan. Hildakoaren zatiak leizera egun berean botatakoak direla jakingo bagenu, behintzat, erabakigarria litzateke. Esan zuen erdi etsiturik. Antza, horixe zuen jakin beharrekoa. Jaioneren zatiak egun edo instant berean bota ote zituena norbaitek leizean behera.

Damianek hartu zuen orduan hitza hariaren bestaldetik. Baietz, Jaioneren zati guztiak une berean botatakoak zirela leizean behera. Azterketa entomologikoak ederki agertzen zuela hori, gorpuki bakoitzean ageri ziren larbak eta ninfak, neurri berekoak baitziren. Batere alderik gabek, izan besoko, zangoko edo gibealeko. Zatiak egun ezberdinetan bota izan balira, ez zuketela neurri bereko ninfarik gordetzen ahal. Aurkitu zi-

tuzteneko eguna baino hamabost edo hamasei egun lehenago botatakoak zirela.

Noiztik dakizu hori, galdegin zion Urrutikoetxeak. Badira pare bat egun, Damianek. Batzuetan baboa dirudizu, Arruti. Zergatik ez didazu lehenago esan.

Beste gauza bat ere badaukat esateko. Argazkiaren berri zeukan hirugarrena nor den ere badakit. Nire lagun handi bat da, Jose Ramon Izpizua, Hondarribiko arkitektoa. Eta Damian supituan jabetu zen, bere bilduma dagoen gelako iluntasunean eginiko gogoeta guztiak alferrikoak izan zirela. Azkenean mundua gailentzen zaiola beti erabaki metafisikoari. Bere baitan. Bere baita mundutarrean. Hegaberaren bularraren erdi-erdian.

Ederrak lagunak zureak, jarraitu zuen Urrutikoetxeak. Aukeratu egiten dituzu, ala. Horixe galdegin zion, ea Jaione eta Izpizua bezalako lagunak berak aukeratzen dituen beste guztien artean ala, aitzitik, bizitzak ekarritako opariak baidarik ez diren. Eta ondoren, atxilotu eta polizia-etxera ekarri behar ditugu biak ala biak, esan zuen. Ez dago beste biderik. Atxilotzeko unean

zeu aurrean egotea ere nahi nuke, ea zure etxera bidali zituzten gizonkote haietakoren bat ikusten duzun inguruan.

Aranbarrirengana lagunduko dizut, baina Izpizurena beste kontu bat da, Damianek. Ez daukat aski adorerik horretarako. Ahal bada, nire laguna gehiago ez ikustea erabakita daukat. Ulertu beharko duzu hori.

Ez naiz batere harritzen, emazte ohia eta lagunik onena, biak Oxford Klubekoak. Ez da marka makala euli artean bizi den gizonezkoarentzat. Epailearen aginduak lortu bezain azkar deituko dizut berriz, eta bai, zu gabe atxilotuko dugu Izpizua, baina Aranbarrirengana nahi eta ez etorri beharko duzu. Bera bakarrik atxilotu ordez, bere bizkartzainak ere atxilotuko nituzke eta gustura.

Ederki da, esan zuen Damianek telefonoa eskegiz batera, baina bazekien esaldi hori formula hutsa zela. Hitz egiteko modu soil bat. Bazekien ederki ez zegoela han ezer. Gaizki eta txarki zuedela gauzak zeharo, eta, deskuidatuz gero, okerrago ere egon zitezkeela.

Igande goiza da oraindik, bai, eta beste dei bat ere jaso du Damianek telefonotik. Aspaldiko partez. Ahots ia ahaztua, hariaren beste muturrean. Mundu oso bat tupustean berritu dion ahots zorrotzegia.

Esan iezadazu zer gertatzen den, Damian. Esan iezadazu, mesedez. Jaioneren amak deitu egin dio, azkenean. Hainbeste urteren ostean. Gerta zekioken gauzarik txarrena.

Zer moduz zaude, galdegin dio Damianek, baina, nola nahi duzu egotea, izan da erantzun diona lehor. Hemen mundu guztiak daki zer bait, nik izan ezik. Non dago Jaione, galdegin dio, halako batean.

Eta Damiani berriz ere bilakatu zaizkio hesteak harri. Zergatik ote da, erantzun ezaguna duten galderek eragitea beti hori. Zergatik ote da berari gauza guztiak gertatu behar izatea. Bera ez da Latreille abadea. Bera hilda dago. Zeharo hilda. Datorren astean, datorren asteartean, egingo dio ebakuntza Aldaba doktoreak. Eztarriko munstroa dagoen lekutik kentzeko. Haren sustraiak bere haragian artetik garbitze-

ko. Donostiako Poliklinikan. Bera hilda dago. Zergatik ez dituzte denek hildakoak lagatzen ba-kean. Zuk ere bai, Lupe, zuk ere utz nazazu ba-kean.

Ezin dizut ezer esan. Horixe erantzun dio telefontik, azkenean. Jaioneren amari, sekula begi aurrean ikusi nahi izan ez duen amaginarre-bari. Amaginarreba ohiari. Ertzaintza ikerketa egiten ari da eta hori bukatutakoan, jakingo duzu guztiaren berri. Urrutikoetxea izeneko te-nientea da ikerketaren buru. Mintza zaitez hare-kin, nahi baduzu. Hark esango dizkizu esan be-harrekoak. Antiguako polizia-etxean aurkituko duzu.

Saiatu naiz harekin ere. Zer uste zenuen, bada. Zuregana jo baino lehen, nahiago nuen nik beste edonorekin mintzatuta. Ez dut sekula uler-tu Jaione zergatik fidatu zen zurekin. Eta txarre-na, oraindik ere fidatzen da zurekin. Banandu eta gero ere, beti fidatu izan da zurekin. Ezin dut ulertu. Gizon ona da, ama, esaten dit beti. Gizon ona zarela, Damian. Euliak zaintzeko bizi den gi-zona, ezin daiteke, ordea, ona izan. Hori zozoe-nak ere badaki. Euliak beste gauza guztien au-

rretik jartzen dituen gizona, ez da gizon eta ez da ezer.

Baliteke, bai.

Ez didazu, beraz, ezer kontatuko.

Ez, ezin dut.

Hala ere, Damian, utz iezadazu gauza bat galdetzen: jaso al duzu argazkia. Jaioneren gauzen artean aurkitu nuen eta nik ez dakit ezertarako balioko ote duen, baina, badaezpada, taxi-lari batekin bidali nizun etxera. Ez dakit ondo ala gaizki egin dudan, baina pentsatu nuen Jaionek hala nahiko zuela. Zuri bidaltzea. Beste inori baino lehen, argazki hori zeuri ematea izango zela onena. Bankutxako Aranbarri da berarekin ageri dena, ezta.

Bai, Aranbarri da.

Hori bai gizona, erantzun, eta agur esan gabe egin du klik telefonoak.

Damianek arnasa hartu du, Lupe hurbildu zaion arte. Lehorrean itotzen egondako arraina izan da tarte batean Damian, telefonoa eskegitzearekin berriro uretara itzuli eta arnas hartu duen artean. Nor zen oraingoan, galdegin dio

Lupek berehala. Nor zen telefonoan. Inor ere ez bihotza, izan da erantzuna. Inor ere ez.

Igandea da. Igande eguerdia. Nora goaz, galdetu du Damianek eta, Lasartera, erantzun dio Urrutikoetxeak. Berasategui jatetxera. Alaba ezkontzen zaio gaur Aranbarriri eta hantxe aurkituko dugu, ezbairik gabe. Hementxe daukat epai-learen agindua. Orain ez da libratuko. Zure lagunaren bila ere, bidean da beste patruila bat, polizia-etxean galdetuko dugu zer gertatu den hemen. Behar bezala.

Gidaria nahastu egin da. Lupe, Damian eta Urrutikoetxea daramatzen autoa gidatzen duen ertzaina nahastu egin da, eta bere nahasmenduan jarraitu egin diote ondotik datozkien bigarren eta hirugarren ertzain-autoek ere. Andoaina arte jarraitu behar izan dute errepidean, biribilgune batean atzera egiteko berriro.

Barkatu, jauna, esan du auto gidariak tenienteari begira, bide guztiak aldatu dituzte hemen egun batetik bestera.

Hainbeste trafikorekin, ulertzekoa da, izan da Urrutikoetxearen erantzuna, gidaria barkatu nahian bezala.

Berasateguiaren jatetxera iritsi direnean, argazkilari andana ikusi dute kanpoko aldean. Gipuzkoako gizon handi guztiak daude ezteietara bilduta eta ez dute halako aukera bat iragaiten utziko. Gipuzkoako lore guztiak. Euren emazte eta lagunekin. Biharko egunkarietan albiste izango da Aranbarriren alabaren ezkontza eta bertara bildu diren gonbidatuen zerrenda.

Lorategietara sartu dira ertzainak eta eten egin dute han gertatzen ari zena. Gonbidatu guztiak, xanpaina koktela eskuetan, denak zeuden adi Aranbarriren hitzetara. Aranbarri mikrofono batetik ari zen gaurkoaren egun handia azpimarratzen, aita bati pena ematen diola bere alaba beste gizonezko baten besoetan uzteak esaten, zer esanik ez alaba hori bakarra bada, baina bizi-legea dela eta zoriona baizik ez diela opa gaur ezkondu direnei, bere alaba Mirari eta Javier Casadevante suhiari, alegia. Eten egin du, ordea. Hitzaldia eten egin du ertzainak ikusi dituenean

eta gonbidatu andanak egindako marmar handi batek bete du haren isiltzeak hartu duen lekua.

Urrutikoetxeak hiru gizon ikusi ditu korrika. Lorategiko azalea eta hortentsien artetik ihesi. Haien ondoren joan dira ertzainetako batzuk. Segika.

Aranbarri, ostera, mikrofonoa itxi gabe geratu da isilik eta, zer da hau, entzun dute guztiek, nire alabaren ezkontza egunean. Erotuta zaude. Eskuburdinak jarri dizkiote, hala ere, besoak atzean hartuta, eta Damiani behatu dio orduan. Zeu zara, Arruti, zirko hau guztia muntatu duena, entzun da bozgorailuetatik.

Argazkilariek sekulako bazka eduki dute, aukeran. Klik eta klik. Biharko egunkarietarako.

Eta Damianek, gizonaren buruko ile zuriak ikusi ditu aurpegirantz erori eta kaskasoila agerian uzten. Eskurik ezean, lepoaz saiatu da gorantz egiten Aranbarri, ileak bere lekura eramateko ahaleginean. Soiltasunaren lotsa estali nahian. Eta lortu du. Eraman egin ditu ileak bere lekura, berriro ere eror daitezzen instant bat geroago. Berriro ere, alboko ile luze horien azpian, larrrua baizik ez dagoela agerian uzteko. Txorimalo

umiliatu baino ez, Aranbarri jauna. Denen aurrean. Argazkilarien aukeran.

Damianek orduan pentsatu du, ez dagoela bere lekuan. Zertan ari den galdegin dio bere buruari. Bere lekua ez dagoela hor, ertzainen ondoan. Berak etxean egon nahi duela. Huraxe bakarririk duela bere lekua, Zorionan, *Necrobia rufficollis* koleoptero eskuratu berriaren ondoan.

Ad finem

8

Ikerketaren berri gutxi eman diote ertzainek egun hauetan Damiani. Ihesi zihoazela atxilotu zituzten hiru borreroak ezagutzera eraman zuten azkenekoz polizia-etxera, igande arratsaldean bertan. Eta, bai, haiexek izan ziren bere etxera argazki bila etorri ziren boxeolariak, Argosek lore artean txiza egiteko bakarrik balio duen zakurra dela esan zutenak. Haiek ezer esan ez zutenez, ordea, berak ere ez zuen aipatu makalen artean kukututakoaren tirorik. Honezkero guztiak berdin bazion ere, ahal zela, ez zeukan gauzak nahasten ibiltzeko asmorik. Nahikoa zeukan zeukanarekin.

Urrutikoetxeak esan zionez, Oxford Klubak bazeukan berezitasun bat. Euren emazteekin egiten ez zituztenak egiteko erabiltzen zuten sare hura Donostia eta Gipuzkoako gizon handienetakoek, bai. Baina sexu harremanetarako erabiltzen zituzten emakumeak ere ez ziren edono-

lakoak. Emakumeak ez ziren nornahi. Bazuten guztiek berezitasun bat: denak ziren gizonezko ezagunen emazteak edo alabak. Denek zuten jabe ezaguna. Ez zituzten nahi izaten kalekoak. Ez zituzten gura izaten etorkin ezezagunak, putetxeetan aurki daitezkeen horietakoak. Euren kastakoak nahi izaten zituzten jolaserako. Antza, bitxitasun horrek, gatz eta piper gehiago ematen ei zion gizon haien guztien sexu grinari.

Nolabait esateko, emakume jatorrak izaten ziren edo, behinik behin, jatorri ezagunekoak. Ez zutela balio, bestela. Ezin esan zizkiola, baina harritu egingo litzatekeela erabilitako emakumeen zerrenda osatzen zutenen izenekin. Eta noiztik, gainera, gehitu zuen Urrutikoetxeak, laurogeita zazpigarren urtetik baitzegoen eratuta Oxford Kluba, Donostiako lehengo alkateak berak sortu zuenetik.

Areto edo etxe jakinik ere ez zutela erabiltzen, esan zion Urrutikoetxeak. Oxford izena ez zegokiola leku jakin bati. Sareari zegokiola, esan zion, eta behar zenean, nahi zuten aretoa edo etxea alokatzen zutela euren zereginetarako.

Horregatik ezin izan zutela argazkiko lekua eza-gutu.

Partaide guztiek bazutela beste berezitasun bat ere: guzti-guztiak ziren Ingalaterrako herri horretako unibertsitatean ibilitakoak edo, besterik ezean, Deustukoan. Ez zutela nornahi onartzen euren ezkutuko sarean.

Emakumeak ez zirela ordaintzen soilik edertasunaren arabera, eta tartean bazirela bi, berrogeita hamarretik oso gertukoak. Ez sinesteko modukoak. Emakumeak gehiago ordaintzen zirela, haien gizonen garrantziaren arabera, aita edo senarraren arabera. Itzelak zirela ordainketako diruak.

Paradoxa zela, pentsatu zuen, Jaioneren soldata. Azken finean, bere neurriak ezartzen zuela haren soldata. Eta bai, ez zen txikietakoa izango, erabiltzailea Izpizua zenean.

Damianek gizakiak misterioa direla pentsatu zuen hori guztia entzundakoan. Errazki ez bazen ere, uler baitzezakeen gizon haien gutizia, baina emakumeak. Emakumeak zerk bultzatzen zituen hartara. Zerk eramaten zituen jolas lizunetara. Euren gorputzak neurri haietaraino eskaintzera.

Dirua ere bai, Arruti, esan zion orduan Urruti-koetxeak, dirua ere bai. Baina Damian ederki ja-betu zen, dirua asko izanda ere, esandako beste bi hitzek gordetzen zutela portaera haren giltza eta sekretua: ere bai. Bi hitz horiek esaten ez zuten guztian ezkututzen zela, batez ere, emakumeak Oxford Klubeko sarera eramaten zituen oldarra.

Izpizua ez zuen ikusi ere egin nahi izan. Laguna, lagun ohia, lagunartea alferrik galdu zuen hura, esker txarreko adiskidea. Aurrerantzean munduaren bere ikuskera, neurri eta beharren artetik ezabatuko zuen, baita horretarako lan eta denbora apur bat beharko bazuen ere. Alabaina, Damian poztu egiten zen haren ontzian joan ziren egunean ezkutatu zionaz. Poztu egiten zen Jaioneren bizimodu berriaz zihardutenean, gauza bat kontatu gabe utzi izanaz. Poztu egin zen esan gabe geratutakoaz.

Jaionek bere sexu-ametsetako bat kontatze-ko eskatu zion egun hartan. Ametsa kontatu egin ziola esan zion Izpizuari. Zein zen, ordea, ez zion

esan. Ez zion esan nahi izan. Eta poztu egiten zen, halakorik kontatu ez izanaz. Lagun ustelari.

Jaionek irri egin zion bere ametsa kontatu zionean. Oraindik bide handia zeukala ibiltzeko. Horixe esan zion. Bere benetako gizon gurarietara iristeko tarte handia zeukala. Damian, Damian, hori baizik ez bada, esan zion irri artean Jaionek desioa entzun zionean, neuk lagunduko dizut horretan.

Damianek bere desioa agertu zion. Ezkutu-koa. Sekula inori aurrez esan gabekoa. Bere buruari ere isildutakoa. Aitortzea ere lotsarazten zuena. Emakumeak zer sentitzen duen nahi zuela jakin, horixe esan zion Jaioneri. Emakumeak zer sentitzen duen gizona bere barnera sartzen denean. Eta irri egin zion Jaionek bere desioari. Irri, Damianen ametsetakoari. Hori besterik ez bada, esan zion, neuk lagunduko dizut.

Londres hotelean hartu zuten gela bat. Itsasoari begira. Santa Klara uharteko argiak eta Igeldokoak soilik begien aurrean leihotik. Itsasoren gainean. Biak biluzik. Hotel Londreseko gelan. Jaione eta Damian. Damian eta Jaione. Aspaldi ez bezala.

Jar zaitez hor lurrean lau hankaren gainean, esan zion Jaionek, eta supituan, uste ez zuenean, bi hatz sartu zizkion bortizki Jaionek atzeko zulo-tik. Ipurditik. Hori izan zen guztia. Komuneko zapi batez bildu zuen Damianek, lotsaturik, uste-kabea lurrera isuritako hazia eta, gero, jantzi eta alde egin zuen gela hartatik Jaionek. Hori duk hik senti dezakean hurbilena, esan zion. Asko falta zaik oraindik, maitea. Hurrengo batean, nahi baduk, Oxford Klubean. Bila nazak Oxford Klubean. Horixe esan zion pauso hotsak irensten zituen moketaren bidean agur egin zionean.

Damianek ez zuen lo handirik egin Londres Hoteleko gau hartan eta bazitekeela, erabaki zuen, bazitekeela bera bezalako gizonak ez eza-gutzea behar bezala bere burua. Bazitekeela ge-ruza bat eta beste baten azpian ezkutatuta edu-kitzea benetako desira. Bazitekeela egiazko de-siraren lekua zein den sekula ez jakitea. Bazite-keela gizonezko baten baitan, hegabera baten baitan, inork sekula jakin ez dezakeen zerbait habia eginda egotea.

Izanak izan, poztu egiten zen Izpizuari gerta-tutakoa ezkutatu izanaz. Poztu egiten zen egia

osorik ez eskaini izanaz. Hala ere, ordea, ezin kendu burutik irudia. Irudi mingarria: Izpizua eta Jaione, biak biluzik Oxford Klubean. Izpizuak esaten dio Jaioneri, emakumeek zer sentitzen duten nahi nuke jakin Jaione bihotzekoa. Jaione ederra. Zuek zer sentitzen duzuen nahiko nuke jakin edo ahalik eta gehien hurbildu, behintzat, horretara. Esaten du gizonak, esaten du lagunak, esaten du Jose Ramonek, emazte ohiaren bi hatzek lau hankan jarrita dagoen gizonezkoaren atzeko zuloa bortizki erasan baino pixka bat lehenago.

Ez diote ertzainek ikerketari buruz gauza handirik esan Damiani. Soilik Oxford Kluba izan dutela hizpide. Horixe. Hasieran ez bezala, Izpizuak eta Aranbarrik, biek alabiek, egin dutela bat Oxford Klubeko partaideen zerrenda osatzerakoan. Hemeretzi. Hemeretzi gizonezko gipuzkoar. Nor baino nor, emagaldu berezien beharretan. Emagaldueña baino eskaintza handiagoaren beharretan.

Jaioneri buruz, ordea, ezetz eta ezetz. Eurek ez dakitela ezer. Soilik Oxford Klubean ikusten

zutela emakumea. Putatzarra. Hilabeteak direla desagertu zela eta ez dakitela haren berririk. Galdetzeko Arruti bere senar izandakoari edo bere amari. Eurek ez zekitela ezer Jaioneren hilketaz. Hilda egon zitekeenik ere ez.

Urrutikoetxeak esan zien orduan gizon batek baino gehiagok bota zituztela zati haiek guztiak leizean behera. Derrigorrez behar zuela horrela izan. Halako lan bat ez zezakeela egin gizon bakarrak. Istant berean jaurti zirela gorpuki guztiak leize zulara, ederki zekitela hori. Eguna ere ezagutzen zutela zehatz: martxoaren zazpia edo zortzia.

Hiltzaile bakarraren lanaren aurrea baino, pertsona gehiagok egindakoaren parean zeudela, eta esateko behingoz, nortzuk esku hartu zuten hilketa hartan. Bestenaz Oxford Klubeko hemeretziak atxilotu beharrean aurkituko zirela. Malkartsua zela leizerako bidea, bi ordu baino gehiago behar zirela haraino oinez iristeko eta ez zegoela inor halako pisuaz zamatuta, emakumearen zati guztiak lepoan hartuta, leku hartaraino iritsiko zenik. Eginak zeuzkatela azterketak eta, gutxienez, bi gizonek esku hartu zutela hil-

keta hartan edo, behintzat, gorpukien desageretzean.

Halaxe ulertu du Damianek Urrutikoetxearen obsesioa. Azkenean. Tenientearen berarekiko eske itsua. Zatiak une berean bota ote dituzten jakin nahi dut, Arruti. Orduantxe ulertu du Damianek bere lana eta juzkua zein den ikerketa-rentzat erabakigarria. Entomologo adituaren garrantzia.

Baina ezetz eta ezetz. Izpizuak eta Aranbarrik irmo jarraitu zuten horretan. Jaione Oxford Klubean ikusten zutela soilik, euren lagunarteko sarean, baina horretaz gain ez zeukatela haren berririk. Gainera, inork ez zuela Jaione behartzen bilera haietara. Bera izaten zela sarritan denei hartzen ziena aurrea. Eta ez merke, gainera. Azken hilabeteetan ez zela agertu euren artera, bat baino gehiago ibili bazen ere haren galdean. Haren beharretan.

Urrutikoetxeak erabaki bat hartu zuen. Bere atzamarretan zituen eskualdeko gizonik prestuenak. Hemeretzi handienak. Tartean lurraldeko Diputatu Nagusia. Eta bat-banaka agertu behar-ko zuten bere aurrera, Antiguako polizia-etxera.

Berak galdetutako oror erantzutera. Teniente apal baten aurrean makurtzera.

Bere bizitzako lanik garrantzitsuena zeukan begien aurrean eta, bai, kontuz ibiliko zen kasu harekin, Barne sailburuak berak erregutu zion eran ibiliko zen. Zarata handiegirik atera gabe, baina ez zituen haatik lasai utziko. Gizon handi haiek guztiak. Jaione nork hil, nork zatitu eta nork amildu zuen jakin artean, bereari eutsiko zion. Kosta ahala kosta.

Lupe etorri zaio ikustera. Zorionara. Batere esan gabe. Euren artekoa ezinezkoa dela esatera. Bera ahalegindu dela, baina alferrik dela. Bik ez dutela aurrera egiterik batek nahi ez duenean. Eta damu dela, hainbeste itxaropen puztu izanaz. Bere barnean. Emakume bati ez zaiola egiten horrelakorik. Horixe esan dio, ez lukeela berarekin haserretu nahi, baina joan dadila behingoz popatik hartzera eta gera dadila, bere euli nazkagarrien artean. Bakar-bakarrik. Zorionan. Bakar-bakarrik mundutik apartean.

Geldi zaitez Véronique horrekin. Berak jasan zaitzala.

Ezer berririk ez du esan Damianentzat. Horiek eta gehiago espero zituen gizonak. Eta ez daki zergatik, baina ez du nahi. Ez du zeharo argi ikusten, baina ez du nahi. Ez du erabat erabaki, baina ez du nahi. Ohituegi dago ohituretara. Bel-durtuegi. Izutuegi.

Ikusten du, bai, emakumearen azken eraso dela. Azken ahalegina. Berak kontrakoa esan diezaion jokatzeko duela horrela. Baietz, maite duela, esan diezaion. Itxaropena gorde dezala eska diezaion. Orain artean gertaerek agindu duten arren, aurrerantzean aukera handiago edukiko dutela, esan diezaion. Esan diezaion hori guztia eta esan diezaion gehiago. Esan diezaion askoz ere gehiago.

Esan diezaion Zorionan aurkituko duela bere ondoan. Elkarrekin egingo dutela bidea. Bata bestearen ondoan, bata bestearentzat, biziko direla. Elkarren begietan galduta. Bata bestearen azalean babestuta.

Baina Damianek ezin du. Damianek ez daki. Arantzadiri ematea deliberatu dut, erantzun du

Damianek. Denak eman ditut, musu truk. Aurki dira bila. Besterik ez du esan Damianek.

Begiak piztu egin zaizkio orduan Luperi. Aukeraren bat erne litekeela oraindik, pentsatu du. Etxea euliz hustu ahala, berak leku har dezakeela bertan. Zomorroen hutsunean.

Gutxi iraun dio, hala ere, sentipenak. Hilda nago, Lupe, esan baitio Damianek. Zeharo hilda. Karramarro bat dut eztarriaren erdian. Bihar kenduko didate munstroa istorio hau hasi zen leku berean, Donostiako Poliklinikan. Goizeko hamaiketan. Hilda nago, Lupe. Zeharo hilda, eta hildakoak ez dira izaten aukera egokia bizirik nahi duen emakumearentzat. Eta hitz beldurgarria esan du: minbizia.

Zergatik ez didazu orain arte ezer esan. Zergatik ez duzu nirekin hori guztia partekatu nahi izan, galdetu dio Lupek, hunkituta.

Emakumea ohartu egin da zerbaitek egin diola ihes. Ez dela iritsi behar zuen lekura. Uste baino babes eta geruza gehiago dituela gordezko, parean daukan gizonak.

Zenbat egun dira, Lupe, elkar ezagutzen dugunetik. Hamabi. Hamabost. Hamalau. Zenbat

dira guztira. Zer da, bada, denbora labur hori pertsonaren bizitzan. Asko niretzat, hilda nagoen honentzat, baina deus ere ez denbora guztia aurrean daukan zu bezalako batentzat.

Utz iezadazu, baina, laguntzen. Utz iezadazu zurekin erietxera joaten.

Ez dut inor nahi alboan. Aski naiz neu. Hilda-koak ahaztu egin behar dira, lehenbailehen. Horixe duzu lanik behinena, ni ahaztea.

Eta ahantzi hitz madarikatua entzutearekin batera, mundua etorri zaio behera emakumeari. Lehertu eta hondar bilakatu zaio eskean zekarrena.

Banoa, bai. Utziko zaitut bakean behingoz, baina, hala ere, utz iezadazu gauza bat esaten: nahastu egin zara nirekin. Zozoa naizela pentsatu duzu. Zeharo zozoa. Beharrean dagoen emazte bat baizik ez naizela uste izan duzu eta ikaratu egiten zaitu horrek. Kikildu.

Bestela ikusiko zenuen, ikusten jakingo zenuen, nik baneukala Gorka eta Leireren albistea. Haien argazkiak polizia-etxean banatu zizkigutela denoi. Banekiela haiek ez zirela biologiako ikasleak.

Duela egun batzuk, Intxaurrondoko kuartelaren kontra jaurti zituzten granadak. Huts egin eta polizia zuten ondoren. Zer uste zenuen. Hori guztia banekien etxe honetan aurkitu nituenean. Zu, ordea, zure eulien artean. Abade frantses baten ipuinak kontatzen. Eta ni isilik. Isil-isilik. Zuregatik. Gu biongatik. Biologiako ikasleak, hori irensteko ere prest egon naiz. Eta zure gelako horman bala batek utzitako zuloa ere, ez dut ikusi nahi izan. Zozoa naizela uste izan duzu eta horixe izan da niretzat okerrena. Ikusi ere ez nauzula egin. Zure barnean bizi den ume izu horren argiak itsututa. Bejondeizula, beraz.

Damianek emakumea lizar eta makal artean urruntzen ikusi duenean, pena dela erabaki du. Pena dela bera bezalako gizonak azken aukera galtzea. Eta akaso haren besoetan aurkituko zuela beste inon aurkitzen ez dena. Haren begi gazteetan kausituko, ilunpean ibiltzeko adina poz eta adore. Hildako bati, ordea, ez dagokio ez pena eta ez pozik. Ez neke eta ez dolore. Ez dagokio besterik loa baino. Loa. Sekulorum sekulontan.

Katalina eta Moisesi deitu die telefonoz. Egun batzuetan, aste pare batean edo, Argos zaindu beharko duzue, esan die. Bera erietxera doala, ebaketa gaitz bat egitera. Ez dela ezer. Polipoak. Dena pasatuko dela, lasai egoteko, baina bien bitartean, eurena izango dela zakurraren ardura. Eta etxearena.

Amari ere deitu dio, bihar Donostiako Poliklinikan eztarriko polipoak kendu behar dizkiotela, esanez. Polipoak eta pulpoak. Eztarrian. Olagarroa esan beharko ote, euskaraz. Ez dela ezer eta egoteko lasai. Ebaketa arrunta dela. Egun batzuetan isilik egon beharra, horixe daukala gaitza. Ez besterik. Eta erreparatu egin dio bere amaren bizitza lausoari. Bizimodu gezari. Poztu egin baita ia, semea zaintzeko edukiko duen aukera berrituarekin. Poliklinikako gela batean. Semea zainduko du. Egunkariak eta aldizkariak eramango dizkio. Pijama berriak ekarriko. Ez etorri arratsaldera arte, esan dio, hala ere. Anestesiatik irteteko, ohera eramaten nautenera arte bederen. Ez lehenago. Bakarrik nahi dut eta. Bakarrik nahiago dut.

Ondoren, beheko geletara joan eta ate guztiak zabaldu egin ditu. Arkume biriketan zeuden euli askok eta askok ez dute, ordea, alde egin nahi izan. Hantxe jarriak dituzte arrautzak, hantxe, Damianen etxeko gela horietan, dute etorkizuna. Arrautzak, larbak eta ninfak. Ez dute besterik nahi. Munduaren neurria bakarra da. Munduaren neurria ezaguna da. Han geratzea baizik ez dute nahi. Berak bezala, Damianek bezala. Ez du Zorionatik atera nahi, baina ezinezkoa zaio hori. Habiatik irten egin behar du. Poliklinikara joan behar du bihar, eztarriko munstroa errotik ken diezaioten. Kartzinoma ezkataduna behingoz desager dadin. Eta zapi zuri batez astindu ditu euliak behingoz alde egin dezaten. Nahi duten lekura. Nora-nora. Gero ardiki guztiak bota ditu hozkailutik zakarretara, ganean dituzten euli usteko guztiei begiratu ere egin gabe. Kito.

Horretan dabilela, zarata bat entzun du inguruan eta, harritzekoa, Argosek ez du egin batere zaunkarik. Etxekoren bat izango da. Moises izango da. Katalina izango da. Baina ez, ez dira auzoak. Ez dira aingeru zaintzaileak. Emakume bat

da, betaurreko ilunez datorrena. Burua painelu urdin batean bildurik.

Zertan zabilta. Zer egiten duzu, erotu egin zara ala, esan dio Jaioneren ahotsarekin. Baboa zara. Inozoa zara. Donostia erdia sartu duzu kartzelan alferrik. Ikusten duzu, bizi-bizirik nago. Ez nau inork hil. Bistan da.

Lerdoa halakoa. Nire lagun guztiak nahastu dituzu. Bat bera ere ez da gelditu ukitu gaberik. Zozoa behar du gizonak. Edo eroa, bestela. Zu bezalakoa.

Eta Damianek, baina Jaione, esan du. Baina Jaione, esatea besterik ez du lortu. Non egon zara sartuta. Ozta-ozta, egun gutxiren buruan hirugarrenez harrizko egin zaizkion hesteen arte-tik.

Hori ez da zure kontua, esan dio zorrotz emakumeak.

Orduan, nor da Polloeko emakumea.

Zein emakume, zertaz ari zara. Deitu lehenbailehen deitu beharrekoari eta esan bizirik nagoela. Ez nauela inork hil. Esan mundu guztiari zure emazte izandako Jaione ez dagoela hilik.

Eta askatzeko preso hartu dituztenak. Horixe esan. Besterik ez. Babo halakoa.

Baina Jaione, itxaron apur bat. Ertzaintzara joan behar dugu lehenbailehen. Ez dago beste irtenbiderik. Zu aurrean ikusita bakarrik sinetsiko dit Urrutikoetxea tenienteak.

Nik ez daukat zurekin inora joateko asmorik. Emakume librea naiz eta ez dut egin ezer txarrik. Ez daukat inori begira zertan ibili. Miarritzeko taxi bat daukat zain hor kanpoan eta huraxe hartu eta banao bueltan Parisa. Zazpietako abioia galtzen ez badut, behintzat. Lagun batek deituta, bizirik nagoela erakusteko baino ez naiz etorri zuregana. Eta ikusten duzu. Hementxe naukazu. Bizi-bizirik.

Atximur egin dio Damiani besoan.

Hemen ezin da ihes ere egin isilean. Hemen ezin da lasai bizi. Beti behar du mozoloren batek inguruan. Zu bezalakoren bat ibiltzen da beti jira-biraka, mandeulien antzera. Zuek zarete emakumeon zoritxarra, gizon zintzoak. Gizon zintzo askoak. Gizon zintzoegiak. Gauzek nola behar duten dakizuela uste duzuen jakintsu horiek guztiak.

Eta berriz egin dio atximur leku berean.

Egin itzazu lehenbailehen egin beharreko denak eta adio, Damiantxo. Hobe dugu berriz elkar ez ikusita. Ondo ibili.

Harrizko hesteak benetan arindu zaizkio Damiani. Zirindu egin zaizkio. Gainbehera etorri zaio zerua eta ia konortea ere galdu du. Sukar larri batek harrapatuta dago. Ez daki zer pentsatu, ez daki zer egin. Zentzumenak eta adimena, denak geratu zaizkio nahastuta Jaioneren etorrerarekin.

Bai, Jaione da 64 matrikuladun taxi batean doana. Bera da, Jaione emazte ohia. Poztu behar duen ere ez daki. Ez da behintzat pozten. Beste zerbait da zorabioa eragiten diona. Eguraldi moduko bat, bere mendean osorik harrapatzen duena.

Lotsa handi bat igo zaio gero, zangoetatik gorputzean zehar, burura. Bero-bero. Aurpegira. Lotsa izugarri bat. Eta gizadiaren gaitz nagusia zein den irakurri berri duela gogoratu da. Irakurtzeko asmorik gabe irakurri duen eleberrian irakurri duela. *Montanoren gaitza* liburuan. Gizaki guztien gaitz nagusia beti dela bat eta bera.

Gauza guztien sekretua: munduaren erdigunea norbera dela pentsatzea. Horixe egiten dutela pertsona guztiek eta horrexek galdu duela bera. Horregatik uste izan zuela Polloeko mahai gainean zeuden gorpuki haiek guztiak Jaionerenak zirela. Damianen mundukoak zirela. Mundu guztia baita Damianena. Mundu guztia baitabil beti gizonaren inguruan. Gizonaren epizentroaren birundun jiraka. Horrexek itsutu zuela. Munduaren erdigunea bere baitan zegoela sentitzeak.

Telefonora joan da korrika, baina ez du Urrutikoetxea aurkitu. Kanpoan dela esan dio Terek, fiskalarekin bilduta. Jaioneren kasua epaileen aurrean nola aurkeztu pentsatzen ari direla.

Lehenbailehen dei diezaiola eskatu dio. Larría dela berak esan behar duen albistea eta dagoen lekuan bilatzeko tenientea. Baita fiskalarekin baldin bago ere. Baina ez dio inork deitu arratsalde osoan. Ez dio inork deitu gau osoan eta ez dio inork deitu goizaldean ere.

Batere gosaldu gabe hartu du autoa. Badaki anesthesiarentzat ur trago bakar bat ere txarra izan daitekeela. Bertan gera zaitezkeela itota. Baraurik, beraz, autopistan.

Polloeko tuneletara iritsi baino apur bat lehenago, keinu automatiko bat eginarazi dio lepoak, burua ezkerretara jiratzuz. Jada ez dira ikusten zuloak, apobelarrak estali ditu arrastoak eukalip-toen osteko belardian. Hala ere Gorka eta Leire irudikatu ditu eskuineko etxadian ezkutatuta, bazoka batez tiroka. Chaho edo Matalasen izena sekula entzun ez duten bi gazteak irudikatu ditu hodi batez tiroka. Intxaurrondoko kuartelaren kontra. Beraren kontra ia.

Poliklinikan lasai egoteko esan diote. Biluzteko eta janzteko txabusina berde bat, atzeko aldetik lotzen den horietakoa. Eta zain egoteko pixka batean. Aldaba doktoreak laster amaituko duela ebakuntza bat, goizeko laugarrena.

Bitartean, berak erantzun metafisikoak emateko ez duela balio erabaki du. Gustatuko litzaiokeela eleberrietako protagonistengan ikusi ohi duen goi-arnasaren jabe izatea. Ezin, ordea, gaztanberak hezurrik. Mundutarra dela erabaki du berriro. Mundu honetakoa zeharo. Esku-ohe gurpildunean daroatenean, ospitaleko sabaian ira-

gaiten ikusten dituen bonbillak bezain mundu honetakoa. Korridoreetan gurutzatzen zaizkion erizainak bezain mundu honetakoa.

Eta halako batean, ebakuntza-gelaren erdian biluzik etzan dutenean, anestesistak lasai egoteko esan eta erle bat jarri dio eskuaren ifrentzu gaineko azalean sartuta. Liztor bat, ezten luze-luzeduna. Zizt sumatu du zainean barrura. Hemen zaina errazagoa da harrapatzen, esan dio, horixe esan dio, baina, badaezpada, besoko beste zain batean ere egin dio ziztada. Han ere zizt.

Non dago Aldaba, galdetu du. Laster etorriko da. Bidean da. Zaude lasai, ni naiz haren laguntzailea.

Orratz luze-luzeak dira, gorago zintzilik dau-den plastikozko poltsa batzuetatik isurki kimikoa dakarten hodi mehe batzuen amaiera metalezkoak baino ez. Bere zainen barruan. Bero handi-handia dakarte. Erre egiten dute ia. Izotzaren antzera.

Eta, ondoren, instant batean lo egongo zara, gozo-gozo, esan dio anestesistak. Ez duzu ezer sumatuko. Zenbatu hamar arte, esan dio. Da-

mian zenbatzen hasi da. Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, eta zazpitik harantzago ez dela joango konaturatu da. Anestesiak harrapatu egingo duela erabat. Lotan egongo dela. Edo hilda. Eta berdin-berdinak direla horiek biak. Gezurra eta egia bezala.

Zein alde dago, bada, bata eta bestearen artean.

Hendaian
021231